



IRAKASLEEN EUSKALDUNTZEA

HE2rako curriculumuma
(4000 eta 5000 atalak)

361:37



katalogoa

Eibarko Hezkuntza Esparrua

943.20.27.48

20600 EIBAR

IRAKASLEEN EUSKALDUNTZEA

HE2rako CURRICULUMA

(4.000 eta 5.000 atalak)



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1997

Argitaraldia: 1.a, 1997ko abendua

Ale kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Lan taldea: Kolesti Agirresarobe Etxeberria, Inazio Eizagirre Portillo,
Antton Peñalba Alberdi

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Duque de Wellington, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri

ISBN: 84-457-1191-1

L.G.: BI - 2.330-97

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
1. LEGE ESPARRUA	11
1.1. Helburu orokorrak	11
1.2. Ebaluaziorako irizpideak	13
1.2.1. HE2 egiaztatzeko ebaluazio-irizpideak	13
1.2.2. Hizkuntz kalitate-maila	16
2. SARRERA: ABIAPUNTUA ETA ATAL NAGUSIAK	19
2.1. Abiapuntua	19
2.2. Atal nagusiak	19
3. OINARRI TEORIKOA	21
3.1. Iturburu epistemologikoa	21
3.2. Testua eta bere ezaugarriak	24
4. BEHAR KOMUNIKATIBOEN AZTERKETA	27
4.1. Ahozko adierazpena	28
4.2. Entzutezko ulermena	33
4.3. Idatzizko adierazpena	35
4.4. Irakurriaren ulermena	37
5. EDUKIAK: AUKERAKETA ETA SEKUENTZIAZIOA	39
5.1. Helburu estrategikoa: komunikazio gaitasuna	39
5.2. Komunikazio gaitasunaren osagaiak	40
5.3. Edukien zehaztapenak eta sekuentziazioa	42

5.4. Sekuentziazioa	43
5.4.1. 4.000 atala	45
5.4.1.1. 4.000 atala: entzutezko ulermena	45
5.4.1.2. 4.000 atala: ahozko adierazpena	47
5.4.1.3. 4.000 atala: irakurriaren ulermena	49
5.4.1.4. 4.000 atala: idatzizko adierazpena	51
5.4.1.5. 4.000 atala: bukaerako gaitasuna	53
5.4.2. 5.000 atala	55
5.4.2.1. 5.000 atala: entzutezko ulermena	55
5.4.2.2. 5.000 atala: ahozko adierazpena	56
5.4.2.3. 5.000 atala: irakurriaren ulermena	57
5.4.2.4. 5.000 atala: idatzizko adierazpena	58
5.4.2.5. Irakaspraktikak	59
5.4.2.6. 5.000 atala: bukaerako gaitasuna	61
6. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK	65
6.1. Irakurriaren ulermena	65
6.2. Idatzizko adierazpena	67
6.3. Entzutezko ulermena	71
6.4. Ahozko adierazpena	74
6.5. Ikasgelarako aktibitateak	77
6.6. Gaitasun linguistikoa	81
6.7. Itzulpena	84
7. ERANSKINAK	87
7.1. Egokitasuna	87
7.1.1. Erregistroa	87
7.1.2. Diskurtso objektiboa eta diskurtso subjektiboa	89
7.1.3. Testu mota	95
7.1.3.1. Deskribapena	96
7.1.3.2. Narrazioa	97
7.1.3.3. Azalpena	101
7.1.3.4. Argudioa	104
7.1.3.5. Instrukzioa	106
7.1.3.6. Elkarrizketa	106
7.1.4. Ahozko diskurtsoaren: ezaugarriak	107
7.1.5. Eztabaida/ negoziazioa	111
7.2. Baliabide diskurtsiboak	113
7.2.1. Erreferentzi kidetasun kateak	113
7.2.2. Testu-antolatzaileak	116
7.2.2. 1. Lerrozko integratzaile markatzaileak	117
7.2.2. 2. Emendiozkoak	121
7.2.2. 3. Nabarmentzaileak	123

7.2.2. 4. Hautakariak	124
7.2.2. 5. Aurkaritzakoak	124
7.2.2. 6. Baibainakariak	125
7.2.2. 7. Ondoriozkoak	126
7.2.2. 8. Kausazkoak	127
7.2.2. 9. Narrazio antolatzaileak	128
7.2.2.10. Adibidegileak	129
7.2.2.11. Birformulatzzaileak	130
7.2.2.12. Finkapenezkoak	131
7.2.2.13. Modalizatzaileak	131
7.2.2.14. Atribuziorakoak	132
7.2.3. Puntuazioa	133
7.3. Baliabide linguistikoak 4.000 atala	137
7.4. Baliabide linguistikoak 5.000 atala	155
8. HIZTEGIA	175
8.1. Gizarte-zientziak	175
8.2. Natur zientzia	182
8.3. Matematika	187
8.4. Hizkuntzalaritza	193
8.5. Oinarrizko hezkuntza-hiztegia	196
8.6. Ebaluazioa	198
8.7. Ebaluazio-fitxa. Zenbait esapide	200
9. Bibliografia	203

AURKEZPENA

IRALE programak eskaintzen dituen ikasketak, bost urratsetan antolatuak daude oinarritz. Urrats horiei *atalak* deitzen zaie. Horrela, 1.000, 2.000, 3.000, 4.000 eta 5.000 atalek osatzen dute ikasketariak jorratu beharreko ikaskuntza. Lehen hiru atalak HE1erako ibilbidea dira; hurrengo bi atalek, berriz, ikasketaria HE2rako prestatzea dute helburu.

Liburuxka honek bigarren ibilbide horren curriculum biltzen du, hots, 4.000 eta 5.000 atalena. Material hau prestatzeak gogoeta-saio luzeak eta sistematizazio-lan handia eskatu du, bai IRALEko irakasleentzat bai zeregin honetan lagundu duten guztientzat ere.

Emaitza ez da, halere, ikasketa-plan bukatu eta itxia. Oraindik zer konpondu, zer orraztu eta zer hobetu izango du. Baina aurrerapauso nabarmena dakar ikastegi hauen pedagogi antolamenduan. Ez da ahantzi behar, curriculum hau, IRALEk dituen lau ikastegietan ezezik, beste hainbat eta hainbat euskaltegitan ere manejatuta beharko dutela. Izan ere, IRALE programaren ikastaroak, irakastorduz kanpokoak batez ere, ia edozein euskaltegi publiko edo pribatutan ematen baitira.

Horregatik helduen euskalduntze-prozesuan, eta bereziki irakasleen euskalduntzean, erreferentzia garrantzizkoak izango dira curriculum hauek: bai orain eskuetan duzun hau eta baita, lehenago, aurreko hiru ataletarako argitaratu zena ere.

Edurne Gumuzio Añibarro
Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria

1. LEGE ESPARRUA

1.1 Helburu orokorrak

47/1993 Dekretua, martxoaren 25ekoa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena (EHAA - 1993ko apirilak 2).

I. ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. atala.

Dekretu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntza/ OHOkoko eta Irakaskuntza Ertainetako irakaspostuei ezartzeko da.

II. ATALBURUA. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

2. atala.

Lanpostua lortzeko eta bertako lana betzeko beharrezko diren euskararen ezagutza mailek finkatutakoa da irakaspostuetako hizkuntz eskakizuna.

Hizkuntz eskakizuna finkatzeko, izaera orokorreko hizkuntz trebetasunak sartuko dira (ahozko eta idatzizkoaren ulermena edo adierazpena), baita 4. eta 5. ataletan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko izan eta zuzenean irakaskuntzarekin lotuta daudenak ere.

3. atala.

Irakaspostuei ezarriko zaizkien hizkuntz eskakizunak bi dira: 1. Hizkuntz eskakizuna eta 2. Hizkuntz eskakizuna.

1. Hizkuntz eskakizuna ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie, baina euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntz gaitasuna bermatuko da. 2. Hizkuntz eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu-hizkuntza eta irakaskuntza-hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntz gaitasuna bermatuko da.

4. atala.

HE1eko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaiez euskaraz hitz egiteko: besteak beste, jokabide, motibazio, ikasketetan lortutako emaitza, beste ikasle batzuekin eta irakasleekin izandako arazo eta ikasketak egiteko familiako giroaz aritzeko;
- ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaiez euskaraz hitz egiteko: familiako arazo, adiskidetasun, nortasun, zein bere heldutasunerako bidean izan dezaketen beste edozein arazoz aritzeko;
- gurasoekin, irakasleekin eta Hezkuntza Administrazioko langileekin, hizkuntza maila egokian nahiz eta teknikoa ez izan, honako gaiez euskaraz hitz egiteko: eskolaren funtzionamendu, helburu, pedagogiako jokabide, ikasturteko egitarau, ikastaroari eta zehazki ikasleari buruzko iritzi, eskolako orduko eta orduz kanpoko iharduera, ebaluaketarako irizpide, lortutako emaitza eta, orokorrean, pedagogia lanari eta ikasketxearen funtzionamenduari buruzko gaiez aritzeko.

5. atala.

HE2ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- HE1erako zehaztutakoa euskaraz egiteko;
- bere ikasgaiko edo alorreko irakaskuntzak ikasleei bai bakarka, zein taldeka, euskaraz emateko, dela azalpen magistrala eginez, zein gelan eztabaida sortuaz eta jasotako galderei erantzunez;
- eskolak prestatzeko edo ikasleek irakurtzeko probetxugarriak izan daitezkeen euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testuliburuak, kontsulta liburuak, artikuluak eta abar ulertzeko;
- irakasgaiarekin zerikusia izanik eskolak prestatzeko probetxugarria izan daitekeen ahozko materiala euskaraz ulertzeko (besteak beste, pelikulak, bideoak, zintak, irradi programak);

- programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko;
- eskolak emateko fitxak, apunteak, materialak, ariketak, ebaluazioko ariketak eta abar euskaraz idazteko;
- ariketen zuzenketa, txostenen idazketa eta ikasleen lana baliostatzeko beste edozein iharduera euskaraz egiteko.

IV. ATALBURUA.- HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN EGIAZTAPENA

11. atala.

Hizkuntz eskakizun bakoitza egiaztatzeke, Hezkuntza Administrazioak finkatuko ditu kasu bakoitzean euskararen ezagutza maila ebaluatzeko saioen edukina eta modua (...).

1.2. Ebaluaziorako irizpideak

1994ko urtarrilaren 10eko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Irakaslegoaren Euskalduntze-Alfabetatzerako IRALE Programaren ebaluazio-bidea arautu eta irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeke probak edukinez eta formaz zehazten dituen (EHAA- 1994ko urtarrilak 26).

1.2.1. HE2 egiaztatzeke ebaluazio-irizpideak

Hizkuntz eskakizunak zedarritzeko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HE2 egiaztatu ahal izateke honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez

Irakasle-ikasketariak HE2 egiaztatuko badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohiko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi beharko du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean) eta gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntza Administrazioke pertsonalarekin dituen harremanetan. Orobat, eta oroz gain, bere gaia edo arloa euskaraz irakasteko gai dela erakutsi beharko du.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez

Irakaslanarekin ikasleek dituzten arazo eta interesekin eta eskolako jardunarekin loturik dauden gaiez gainera —Eranskin honetako HE1i buruzko atalean ezarri den bezala— ikasketariak HE2 egiaztatuko badu bere jakintza-gai edo arloa azaltzeke trebetasuna erakutsi beharko du.

C) Hizkuntz trebetasunei dagokienez

1. *Ahozko edozein testutako ideia nagusiak eta berariazko informazioa jaso eta horren edukina ahoz nahiz idatziz adieraztea.*

Irizpide honen bidez zera neurtu nahi da: erabilpen-esparru desberdinetan (giza-harremanetan, komunikabideetan, administrazioarekiko harremanetan, ikasgelan...) benetan erabiltzen diren testuen nondik norakoaz eta bigarren mailako informazioaz jabetu diren ala ez; testuak beti ere aktualitatea, kultura, irakaslanak oro har hartuta edo irakaslearen jakintza gaiarekin zerikusia duten gai bereziagoak izango dute ardatz; irakaslea, honenbestez, informazio hori kritikoki analizatu, berrantolatu eta bere ekoizpenetan erabiltzeko gai izango da, ahoz nahiz idatziz.

2. *Ikasketariak darabilen hizkera estandarretik asko urruntzen ez den euskalki batean ekoiztutako ahozko testuetan nagusiki zein gai azaltzen diren ulertzea.*

Ikasketariaren ikastetxea kokaturik dagoen eskualdeko euskalkian ahoz ekoiztutako testuak oro har ulertzen dituen ala ez neurtu nahi da. Hizkera estandarretik oso urrun ez dauden benetako edo egokitutako testuetan adierazitako ideia nagusiak eskuratu dituen egiaztatu nahi da. Testu horiek eskola-ingurutik aterak izango dira.

3. *Era askotako testu idatzietako informazio nagusiaz eta xehetasunez jabetzea, informazio inplizitua eratorriz. Kalitate eskaseko testuak direnean, akatsak, koherentzia-erak, e.a. antzematea, bai edukinari bai alderdi formalagoei ortografia, zuzentasuna...) dagokienez, testu horiei buruzko bere iritzia azalduz.*

Irizpide honen bidez ikasketariak bere irakas-jardunarekin loturik dauden testu idatziak ulertzeko bereganatu duen trebezia neurtuko da, testuan ezezagun gerta dakizkiokeen elementu esplizituak testuinguruagatik zuzen interpretatzeko eta hitzez hitzezko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna kontuan hartuz. Era berean, bere ikasleek kalitate eskasaz ekoiztutako testuak kritikoki irakurtzeko eta behar izanez gero testuok hobetzeko orientabideak (akatsen zuzenketa, testuaren egokitzapena, e.a.) emateko gaitasuna zenbateraino bereganatu duen begiratuko da.

4. *Bere jakintzagaiarekin loturik dagoen gai bati buruzko azalpena egitea, argi eta era ordenatuan mintzatuz, aurrez prestatutako eskema edo gidoia garatuz, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, egiten zaizkion galderari erantzunez, irakasmaila bakoitzak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza...) eta irakaskuntza-arlo bakoitzak dituen ezaugarri eta berezko formak kontuan hartuz.*

Irizpide honekin ikasketariak aurrez erabakitako eskema edo gidoia erabiliz bere jakintzagaiari buruzko gai baten inguruan dituen ideiak antolatu eta era logikoan azaltzeko eskuratutako gaitasuna zenbaterai-

nokoa den neurtu nahi da, horretarako hizkera jariakor eta zuzena erabiliko duelarik. Orain esandakoaz gain bere hizkeraren zehaztasuna, ebakera eta egiten zaizkion galderei ihardestean emandako erantzunak egokiak diren ala ez ebaluatuko da, bere irakasmilak eta beren arloan dituzten berezko ezaugarriei atxekiz.

5. *Elkarreraginezko elkarrizketetan parte hartzea, eskola barneko munduko nahiz eskolaz kanpoko gaien inguruko informazio egokia emanez, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.*

Irizpide honen bidez eskola-giroko informazioa (adibidez, errendimendua, ikaslearen jarrera, ikastetxearen funtzionamendua, programen egokitzapena...), eskolaz kanpoko (eguneroko bizimodua, aktualitatea) eta komunikazio-egoera desberdinei buruzkoa (elkarrizketa arrunta, klaustro edo bestelako bilerak) azaltzeko gai den ala ez neurtu nahi da. Bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna, jariotasuna eta ebakera; gaiarekiko atxekimendua hiztegiaren aldetik; era logiko eta egituratuaz dituen iritziak azaldu eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzeko gaitasuna neurtuko da (solaskide-kopurua, komunikazio-intentzioa eta testuinguruko beste elementu batzuk).

6. *Zuzentasunez eta hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran testu-mota desberdinak (argibideak, oharra, aktak, txostenak, eskutitzak...) eta bere arlo edo jakintza-gaiarekin loturik dauden ikasmaterialak (fitxak, apunteak, eskemak, neurketa-probak...) erredaktatzea, iturri anitzeko informazioa integratuz eta testuari barne-lotura ematen dioten baliakideak (lokailuak, aditz tempusak, e.a.) erabiliz.*

Iturri idatzi nahiz ahozkoetatik informazioa jaso, sintetizatu eta era egokian idatziz aurkezteko gauza den neurtu nahi da. Ikasketariak, hortaz, bere jakintza-gaiarekin loturik dauden euskarazko materialak ezagutu eta erabili beharko ditu. Ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzentasuna hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.

7. *Ikasketariak eskuratutako ezagupen linguistiko, soziolinguistiko, estrategiko eta diskurtsiboak erabiltzea, antozuzenketako prozedurak zorrotz erabiliz.*

Elementu linguistiko eta diskurtsiboak (egokitasuna, koherentzia, koherentsia, menpeko perpausak, nominalizazioak, bere arloari dagokion lexiko berezia, lokailuak) ezagutu eta erabiltzean eskuratutako heldutasun-maila neurtu nahi da. Kalitate oneko hizkuntz ekoizpena burutu eta behar izanez gero hobetu, eta berak edo bere lankideren batek, ahoz nahiz idatziz, egin ditzakeen akatsak identifikatu eta zorrotztasunez eta kritikoki zuzentzeko gai izango da.

1.2.2. *Hizkuntz kalitate-maila*

IRALE Birmoldatzeko Batzorde Akademikoak (IBIBA) Hezkuntza Sailari Hizkuntz Eskakizun bakoitzerako hurrengo hizkuntz kalitate-maila eta ordu kopurua proposatu zizkion:

AHOZKO ADIERAZPENA

Hizkera jariakor eta uniforme, ez jatorrizko euskaldunaren adinakoa, baina honek onargarritzat joko lukeena.

Zuzentasun handiz hitz egiten du, noizik behin mezuaren ulerkuntza eragozten ez duten hutsegite morfosintaktikoak izan daitezke, baina gehienetan bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du hizkuntzaren funtzionamendua.

Ahoskera, gehienetan, jatorrizko hiztunarentzat onargarria da, baina H1en kutsua (lehen hizkuntzarena) igartzen zaio eta zenbaitengan H1en azentua eta doinuera nabaria izan daiteke.

Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Bere arloko gaietan lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du, baina nolabaiteko muga ere badu. Noiz-behinkako gabezia-egoera horietan, euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko estrategiak garatuak ditu. Hala ere, inoiz asmatu ezina ere gerta liteke.

Solaskide bat baino gehiagorekin ari denean, informazio egokia adierazteko gauza da: arrazonamendu, azalpen, deskribapen edo narrazio luzeak zailtasun handirik gabe egin ditzake, unean uneko gaiak bere iritziak eta ikuspuntuak azalduz eta defendatuz, hipotesiak eginez, aholkuak emanaz eta abar.

Eztabaidan eta bestelako hizkuntz elkarrekintzetan, dagokion rola egoki betetzen daki eta hizkuntza entzulego-motaren arabera egokitzen.

IDATZIZKO ADIERAZPENA

Bere rolek eskatzen dizkioten idatzizko eginkizunak era egokian burutzeko gauza da. Akats ortografiko eta morfosintaktikoak oso urriak dira, bere komunikazio-xedeari eta irakurle posibleari doitzen zaizkien hizkuntz eta erregistro-motak erabiltzen ditu lexiko aberastasun nabarmenez. Zenbait lanetan hiztegiaren laguntza behar du.

ENTZUTEZKO ULERMENA

Solaskide bakar batekin aritzean, ikasketariak xeheki ulertzen du kanal ezberdinetatik bere arloaz eta honi dagozkion ingurune eta gai desberdinez abiada normalean esaten zaiona, inoiz edo behin errepikatzearen edo azalpenaren beharra izan dezakeen arren. Gurasoekiko komunikazioan, hauek erabiltako euskara ikasketariarenetik urrun badago, ulertzeko eragozpenak handiak izan daitezke, nahiz eta esandakoaren funtsa ulertu ahal izan.

Komunikabidez igorritako mezuak xeheki ulertzen ditu, noizbait xehetasun bat galdu arren.

Solaskidearen jarrera eta egoera animikoa antzeman ditzake. Testuak esplizituki eskaintzen ez duen informazioa ere neurri handi batean antzemateko gauza da.

Esaldi osagabeak, elisioak, anaforak e.a. ez dira oztopo mezua ulertzeko.

Hitz ezezagunen esanahia inferitzeko gaitasuna du testuinguruaz baliatuz.

IRAKURRIAREN ULERMENA

Oro har, bere esparruko testu idatzi arruntak, testuliburuak barne, zailtasun handirik gabe ulertzen ditu, jatorrizko hitzun jantziarenera asko hurbiltzen den erritmoaz irakurriz.

Gainetikako irakurketaren eta irakurketa analitikoaren bidez informazio globalak eta xeheak ateratzen ditu. Egilearen intentzioa antzematen du, testuaren parteak bereizten ditu eta haien arteko erlazioak ulertzen ditu. Batzuetan lexikoa eta, gutxiagotan, lotura-elementu ezezagunek berriz irakurtzera behartu dezakete eta, inoiz, ez ulertzea eragin ere; baina normalean testuinguruaz, bere ondare kulturalaz edo prozedura analitiko eta etimologikoez baliatuz haien esanahia deduzitzeko gauza izango da hiztegieta edo bestelako kontsulta-liburueta jo behar izan gabe.

Testu korapilatsuak badira, ezezagunak zaizkion gaiak edo aurretik jorratu gabekoak garatzen badituzte edo oso lexiko espezialdua darabilten gai berezi bati buruzkoak badira, irakurketaren erritmoa aski apalduko da eta informazio-galerak gertatuko dira edota hiztegieta jo beharko du, ama-hizkuntzara itzuli, berriz irakurri... Hitz baten adiera desberdinen artean testuingururako egokiena hautatzeko (hiztegia erabiltzerakoan, adibidez) gaitasuna izango du.

Ikasleek sortutako idatzizko testuak era kritikoan irakurtzeko gai da (zuzentasuna, egokitasuna, koherentzia, ideien ordena, osotasuna, puntuazio-markak...).

Ordu kopurua:

4.000 atala: 450 ordu 5.000 atala: 450 ordu
--

2. SARRERA: ABIAPUNTUA ETA ATAL NAGUSIAK

2.1. Abiapuntua

IRALEko Curriculum honek honako iturburu hauek izan ditu:

- 47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena (EHAA-1993ko apirilak 2).
- 1994ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Ikaraslegoaren Euskalduntze-Alfabetatzerako IRALE Programaren ebaluazio-bidea arautu eta irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatze probak edukinez eta formaz zehazten dituena (EHAA-1994ko urtarrilak 26).
- IRALE Birmoldatzeko Batzorde Akademikoak (IBIBA) Hezkuntz Sailari Hizkuntz Eskakizun bakoitzerako proposatutako hizkuntz kalitate-maila eta ordu kopurua.

2.2. Atal nagusiak

Hona hemen Curriculum honek bere baitan jasotzen dituen atal nagusiak:

OINARRI TEORIKOAK

Azken urte hauetan inoiz baino aldaketa handiago eta sakonagoak eman dira hizkuntzen irakaskuntzan. 70.eko hamarkadan gailur-gailurrean zeuden gramatika sortzailearen postulatu eta eredu formalek indarra galdu dute pragmatikaren eta ikuspegi komunikatiboen mesedetan. Azken hauen arabera,

hizkuntza ikasi beharrak bere lekua utzi behar izan dio komunikazio-gaitasuna eskuratu beharri eta, honek guztiak ezinbesteko eragina izan du, bai edukia zehazterakoan eta bai metodologia hautatzeko orduan ere. Honenbestez, saihestu ezina iruditu zaigu Curriculumaren euskarri eta ardatz diren oinarri teorikoak finkatzea.

BEHAR KOMUNIKATIBOEN AZTERKETA

Oinarri teorikoak finkatuta, Helburu Orokorren eta HE2ri dagokion hizkuntz kalitate-mailaren argitan, behar komunikatiboak aztertu ditugu, hauek dira-eta hizkuntzaren erabileraren NON, NOREKIN, eta ZERTARAKOA mugatzeko elementurik aipatzenak. Hala, irakasle arrunt batek ikastetxearen inguruan burutu ohi dituen hizkuntz eta komunikazio-ekintzak aztertu ditugu ikasprozesua ahalik eta egoera errealeanetara bideratu ahal izateko.

EDUKIEN ZEHAZTAPENA

4.000 eta 5.000 ataletako edukia zehaztean ikasketariak hizkuntz ekintza jakinak burutu edota testu-mota desberdinak ekoizteko behar dituzten baliabideak- ez gramatikalak bakarrik- zerrendatzen ahalegindu gara.

ATALAREN BUKAERAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Atal bakoitzari dagokion edukien zehaztapenaren ondoren Bukaerako Ebaluazio- Irizpideak eman dira, bertan ikasketariak atalaren bukaeran hizkuntz trebetasun bakoitzean eskuratu behar duten gaitasun komunikatiboa zehaztuz.

ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

Hemen komunikazio-gaitasuna eskuratze-prozesuan baliagarri izan daitezkeen zenbait ohar-iradokizun ematen dira, irakasprozesuak ere Oinarri Teorikoen ildoari jarrai diezaion.

ERANSKINAK

IRALEk Curriculuma lanerako tresna eraginkorra izatea izan du beti helburu. Horren haritik irakasleei kontsultabide eta osagarri izan dakizkiekeen zenbait eranskin bildu dira atal honetara. Hauek dira dokumentuak:

- I. eranskina: Egokitasuna.
- II. eranskina: Baliabide diskurtsiboak.
- III. eranskina: Baliabide linguistikoak. 4.000 atala.
- IV. eranskina: Baliabide linguistikoak. 5.000 atala.

HIZTEGIA

3. OINARRI TEORIKOA

Curriculumaren atal honetan, honen funts teorikoa eta oinarritzko ideiak jorratuko ditugu. Horretarako, lehendabizi hizkuntzaren ezagutzaren garapeneraren analisisan erabilitako nozioen iturburuaz (iturburu epistemologikoaz) ari tuko gara; eta, ondoren, azken teorien arabera komunikazioaren ardatza den testuaz eta honen ezaugarriez.

3.1. Iturburu epistemologikoa

Curriculum batek zedarritu nahi duen esparruan planteatzen diren oinarritzko galderei erantzun egokia eman behar die, hots, ZER landu (edukiak), NOLA (orientabide metodologikoak), eta ZERTARAKO (helburuak). Horretarako abiapuntu teorikoak argia eta sendoa behar du izan, oinarri teorikoak nolako, ondorioak halakoxeak izango baitira. Alegia, planteamendu eta proposamen didaktikoak eta metodologikoak egiteko, eta aurrekoak garatzeko ariketa, ekintza eta iharduerak zehazteko, erabakior gertatuko da hartutako ildo teorikoa.

Lan hori taiuz burutzeko, halaber, indarrean dauden korrante teorikoei erreparatu eta hauek egindako ekarpenik nabarmenenak jasoko ditugu. Honak, paradigmatik aztertzeraz garmatza. *Paradigma* finkatu bat erreferentzi marko gisa ulertu behar da, oinarritzko pentsamendu teorikoaren homogeneitate erlatiboa duena bere baitan, eta *irizpideak* eskaintzen dituen esparru jakin baten helburuak planteatzeko, aztergaiak aukeratzeko eta funtsezko arazoei irtenbideak bilatzeko.

Gaur egun hizkuntzalaritzaren alorrean bi paradigma nagusi daudela esan daiteke: batetik, *orazionala*, hizkuntzaren funtsezko aztergai perpausa hartzen duena (gramatika tradizionala, estrukturalismoa eta gramatika sortzailea bil-

tzen ditu) eta bestetik, *esaldizgainekoa* edo *supraorazionala*, testuan edo diskurtsoan oinarritzen dena.

Bigarren paradigma hau gailendu da gaur egun, bereziki lehenarekiko dartzan berrikuntzak direla eta. Baina «berri» den hori ez da hizkuntzalaritzak aztertzen duen eremu independente bat gehiago (fonologia, morfologia, sintaxia edo semantika bezala), hizkuntzaren edozein aspektu aztertzeko erabil daitekeen *ikuspegi berria* baino. Honen arabera, hizkuntz-formak gramatika-ikuspuntutik ezezik, komunikazioan betetzen dituzten funtzioei begira ere aztertuko dira. Adibidez, «jakina» bezalako forma bat gramatikaren aldetik izan daiteke: 1) *izena*: «bere jakinean egin du gaizkia»; 2) *izenondoa*: «pisu jakin bat altxatzeko indar jakin bat behar da»; 3) *adberbioa*: «lerro hauek, jakina, Londrestik datoz» edo, 4) *hizketa-lokailu*: bi lagun solasean eta bat zerbait adierazten ari dela besteak, burua mugituz, «jakina» tartekatzen duenean. Funtzioei begira, berriz, lehenengo bi adibideek *informatiboa* izango lukete; hirugarrenak *testualizatzailea*, testuaren modalizatzailea hain zuzen ere; eta azkenak *sozializatzailea*, solaskideak hizketan jarrai dezan laguntzea kasu honetan.

Hizkuntzalaritzako paradigma testual honek —diskurtsiboa zein *pragmatika* izenez ere ezagutua— didaktikaren mailan ikuspegi komunikatiboan du bere segida eta berari zor zaio batez ere, bigarren hizkuntzaren (H2) irakaskuntzan aspaldion oinarri teoriko, metodologiko eta didaktikoetan eman den aurrerakuntzarik handiena.

Paradigma testual honen ezaugarriak nabarmenenak honako hauek dira:

1. Hizkuntzak gizakion arteko *komunikazioa* du funtsezko helburu. Komunikazio hau, gainera, iharduera dinamikoa da, hiztunek elkarrenginaren unean buruan duten ezagupen-multzoan (jakituria, sinismenak, usteak, sentimenduak...) aldaketak burutzen baitituzte. Horregatik, gramatika formalen eta gramatika sortzailearen mugak agerian geratu dira hizkuntza, komunikazioaren aldea kontuan hartu gabe, *sistema* idealizatu gisa soilik hartzean (soinuak eta esangurak lotzeko arau-multzo bat besterik ez bailitzan), ezin baitute hizkuntzaren benetako erabilera taiuz azaldu. Izan ere, komunikazioan badira bestelako erabilera-arauak ere, eta horiek gabe alferrikakoa litzateke arau gramatikalak bakarrik betetzea egoki aritzeko (adibidez, adierazpen linguistiko bat zuzena izan daiteke gramatikalki, baina trakets antolatuta dagoelako edo, desegokia bere helburua betetzeko). Bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan, garrantzizkoa izango da ekoizpen linguistikoak, gramatikalki zuzen izateaz gainera, bestelako baldintzak ere betetzea bere helburu komunikatiboa beteko badu, hala nola: bere egokitasuna kontestuekiko, asmo komunikatiboarekin koherente izatea, bere pertinentzia, informazioa progresiboki eta ongi antolatua egotea, eta abar.

2. Hizkuntza bere *erabileran* aztertu behar da, hots, ingurune batean eta komunikazioa helburu duelarik.
Horrenbestez, bigarren hizkuntzaren alorreko planteamendu pedagogiko eta didaktikoetan xede nagusia aldatu egingo da: ikasleak hizkuntza gramatikalki ezagutzeaz gain, komunikazio-egoeretan egoki erabiltzen ikasi behar du. Hauxe da, sustatzearekin batera, IRALEn neurtu eta ebaluatuko duguna.
3. Komunikazioan gertatzen diren *prozesuak* aztergai dira, eta faktore linguistikoak ezezik hizkuntzaz kanpokoak ere kontuan hartzen dira. Honela, *hiztuna/ igorlea, hartzailea, asmo komunikatiboa, kontestua* edo *egoera komunikatiboa* bezalako kontzepuak oinarritzkoak dira; orobat, adierazpen linguistikoaren *kodifikazioa* eta *dekodifikazioa* batetik, eta bestetik *planifikazioa* eta *inferentzia* bezalako prozesuak (igorlearen eta hartzailearen aldetik, hurrenez hurren).
Ildo beretik, bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan, trebetasun bakoitzean zer-nolako prozesuak gertatzen diren eta hauen faseak aztertzeari eta lantzeari berebiziko arreta eskainiko zaio.
4. *Empirismoan* oinarrituta, errealitatean sortutako testuak —kontestu baten emaitza, hortaz— izango dira aztergai, ez asmatu-koak. *Kontestua*, horrenbestez, funtsezko kategoria izango da.
Honetara, bigarren hizkuntza lantzerakoan ere testu erreal kontestualizatuak ulertzeko eta ekoizteko eskatuko zaie ikasketari.
5. Hizkuntzaren azterketa *disziplinartekoa* da, hau da, psikologia (psikolinguistika), soziologia (soziolinguistika), semiotika... hartzen dira kontuan. Izan ere, tradizioz, hizkuntzaren funtzioen azterketa hizkuntzalariari badagokio ere, ekoizpen- nahiz ulertze-prozesuez, esaterako, psikologia arduratu izan da; arazoa da, ordea, hainbeste lotura dagoela bien artean, ezen oso lauso baitago bien arteko esparru-muga: horratx, psikolinguistika.
Gure kasuan ere, ikasketariak arlo psikolinguistikoan burutzen dituen eragiketei kontu egin beharko diegu, honi estrategia komunikatiboak lortzen laguntzearren.
6. Gaitasun komunikatiboaren nondik norakoak argitze aldera, teoria linguistikoaren erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna hartzen dira aintzartat bereziki.
7. Hizkuntza *testu* edo *diskurtso* gisa hartzen da, eta ez perpaus-multzo bezala.
Curriculum honetan ere, testua erabiliko dugu lanerako oinarritzko unitate gisa, aurreraxeago aztertuko dugun bezala, testuen bitartez betetzen baititu ikasleak bere behar komunikatibo guztiak.

Aurreko guztia laburturik, esan daiteke helbururik behinena *komunikazio gaitasuna* hobeto garatzea dela, nola testuak ulertu, hala ekoizteari dagokienez.

Geroago ikusiko dugun legez, hauxe izango da curriculum honetan ikasketarientzat ezarritako helburu estrategikoa.

3.2. Testua eta bere ezaugarriak


Testua komunikazio-ekintza baten hitzezko emaitza da, hiztunak kon-
testu batean duen asmo komunikatiboaren eraginez sortua. Komunikazio
linguistikoaren oinarrizko unitatea izanik, badu itxiera semantikoa eta komu-
nikatiboa. Honela, testuak dira historia-irakaslearen azalpenak, irratiko albis-
teak, bilera baterako deialdi idatzia, irakasleen arteko elkarrizketak, tele-
fono-deiak, iragarki publizitarioak, txistekak, amonaren ipuinak... Testua
idatzizkoa edo ahozkoa izan daiteke, entzuteko edo irakurtzeko, laburra edo
luzea...

Testua zentzu-batasuna duen adierazpen linguistikoa izanik eta oinarrizko
komunikazio-unitatea dela gogoan hartuta, gaitasun komunikatiboa lortze-
ko xedez hizkuntz arloan planteatzen den lana haren inguruan antolatu be-
harko da. Lau trebetasunetarako behar komunikatiboak aztertutik, egoera ho-
rietarako testu-mota desberdinak ekoizten batetik, eta testu errealak ulertzen
bestetik trebatuko ditugu geure ikasketariak. Testuak izango dira, hortaz,
gure lan eta ihardueraren abiapuntu eta funtsezko oinarri (gai hau zehatzago
jorratuko da orientabide metodologikoen sailean).

Testu bakoitzak bi tasun berezi ditu: *testualitatea* bera ematen diona
alde batetik, hots, adierazpen linguistikoari testu izatea ahalbidetzen dion
baldintza-multzoa edo *testu-arauak*; eta *gramatikalitatea* bestetik, alegia,
adierazpen linguistikoa gramatikala izateko baldintza edo *hizkuntz arauak*.
Testu arauak honako hauek dira: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, estilis-
tika eta aurkezpena. Gramatikalitateak, berriz, zuzentasuna eskatzen du.
Arau hauetariko bakoitza maila linguistiko edo estralinguistiko bati dagokio.
Adibidez, egokitasuna, kontestuari lotzen zaio; koherentzia, barruko batasun
kontzeptualaz arduratzen da; kohesioa, artikulatzeko moldeaz (esaldien ar-
teko loturaz); zuzentasuna, gramatikaz (lexikoa eta morfofonetika barne);
aurkezpena, testuaren kanpoko itxuraz; eta estilistika, baliabide erretoriko
eta literarioez.

Batzuetan arau hauen arteko mugak zailak dira bereizten, esaterako pa-
sarte bateko ideia nagusia ilun egon daiteke sintaxi traketsa erabili delako.
Zeini egotzi akatsa? Zuzentasun ezari? Koherentzia ezari? Kohesio faltari?
Antzera gerta daiteke deiktikoak gaizki erabiliz gero (normalean kohesio-
akats gisa hartua). Izan ere, kontuan izan behar dugu ezaugarri hauek guz-
tiak testuari berari dagozkiola eta gauza beraren «irakurketa» desberdinak
direla.

Erabilgarritasunari begira ezaugarri guztiak, testu-arauak eta hizkuntz
arauak, eskema batean honela ikus ditzakegu:



INGURUNE FISIKOAN

KOMUNIKAZIO EKINTZA

TESTUA

TESTU ARAUAK

HIZKUNTZ ARAUAK

Egokitasuna

Koherentzia

Kohesioa

Aurkezpena

Estilistika

Zuzentasuna

Modalizazioa
Deixia
Erregistroa
Testu mota
Aldaera dialektala

Asmo komunikatiboarekikoa
Informazioa
Tema/Rema
Ez-kontraesana
Egituraketa

Anafora
Elipsia
Ordezkapena
Determinazioa
Lokailu antolatza.
Aditz denbora
Puntuazioa

Kaligrafia
Diseinua

Aberastasuna
Figurak

Morfosintaxia
Lexikoa
Ortografia
Morfofonetika
Jariora

TESTUAREN EZAUGARRIAK

TESTU ARAUAK	
EGOKITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> — Erregistroa: orokorra/ zehatza, formala/ informala, adin bakoitzari dagokiona, tonu berdina testuan zehar... — Modalizazioa: ziurtasuna, probabilitatea, beharra, balorazioa... — Deixia: enuntziazioaren pertsona, denbora eta lekua: <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona: ni, zu, <u>naiz</u>, <u>zatoz</u>, <u>duzu</u>... • Tokia: hemen, hor, han... • Denbora: gaur, bihar, atzo... — Testu-mota: narratiboa, deskriptiboa, argudiozkoa, azalpena, preskriptiboa, elkarrizketa. — Aldaera dialektala.
KOHARENTZIA	<ul style="list-style-type: none"> — Asmo komunikatiboarekikoa: ea erantzuten dion (eskaera bada, hala egiten al du?) — Informazioa: kantitatea (nahikoa/ gutxi), kalitatea (argi/ ilun; ideia nagusiak/ 2. mailakoak...) — Tema/ rema: ezazuna eta ezezagunaren arteko progresioa (mintzagaia/ galdegaia) — Ez-kontraesana testuaren harian — Egituraketa: testu osoarena (parrafoen banaketa barne) — Parrafoa: ideia oso bati soilik dagokion ala ez; parrafo-motak.
KOHESIOA	<ul style="list-style-type: none"> — Anafora: testu barruko erreferentziaren haria jarraitzea — Elipsia: elementuak ezabatzea (inplikaturak) — Ordezkapena: sinonimoak, hiperonimoak, parafraasiak — Determinazioa: artikulua, zenbatzaileak, erakusleak... — Lokailu-Antolatzaileak: testua egituratzekoak — Aditz-aspektua: ea kontraesanik dagoen testuan zehar — Puntuazioa: idatzizkoan komak, puntuak, marrak... — Entonazioa: ahozkoan galdera, harridura, poza... — Paralinguistikoak: ez dira ikasten (keinuak, imintzioak...)
ESTILISTIKA	<ul style="list-style-type: none"> — Aberastasuna: lexiko-barrietatea, atsotitzak, esamoldeak, konplexutasuna (sintaxian, ideiak...) — Baliabide erretorikoak: metaforak, galdera erretorikoak, ironia, umorea, estilo zuzena...
AURKEZPENA	<ul style="list-style-type: none"> — Idatzizkoan: kaligrafia, tipografia, margenak... — Ahozkoan: ahotsa, etenak, jarrera...
HIZKUNTZ ARAUAK	
ZUZENTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> — Morfosintaxia: arau gramatikalak — Lexikoa: egokitasuna, zehaztasuna... — Ortografia: arauak — Morfofonetika: ebakera, prosodia, hiatuak... — Jarioa: abiadura hitzegiteko, etenak...

4. BEHAR KOMUNIKATIBOEN AZTERKETA

Helburu Orokorrak, Ebaluazio-Irizpideak eta oinarri teorikoak zehazturik, hurrengo urratsa behar komunikatiboen azterketa burutzea da.

HE1en kasuan egin zen bezala, behar komunikatiboak zehazteko orduan komunikazioan parte diren aldagaiak aztertzea komeni da, aldagai hauen araberako beharrak finkatzeko.

Denok dakigu komunikazioan faktore anitz elkartzen dela eta faktore horien neurrira gauzatzen dela komunikazioa. Bestela esanda, komunikazio-ekintza guztiak ingurune fisiko eta sozial jakinetan ematen dira: leku fisiko jakinean, partaide mugatuen artean eta rol zehaztuetan, xede batekin, partaideen munduaren ezagutza zehatza bitarteko delarik...

HE2 eskuratu behar duen ikasketaria irakaslea da eta, hala izanik, burutu behar dituen komunikazio-ekintzek ingurune fisiko eta sozial zabala izango dute. Ikastetxearen inguruan sor daitezkeen komunikazio-egoeren aldagaiak asko dira. Ikasketariak bere jardunean, irakas-jardunean bereziki eta eskolaz kanpoan oro har, era askotako solaskideak izango ditu eta gai-multzo zabal bati egin behar izango dio aurre. Laburbilduz, esan daiteke hezkuntza-esparruaz gain komunikazio arrunt eta kultur eremu zabalean murgildurik jardun beharko duela ikasketariak.

Edozein kasutan, ikasketariaren komunikazio-esparrua oso zabala izan arren, curriculum honetan ikasketariak irakaslanean aurkituko dituen komunikazio-egoerak aztertuko ditugu, hauek baitira, irakasle batek behar duen komunikazio-gaitasun orokorretik kanpo, irakaskuntza-ihardueraren ezaugarriak definituko dituztenak.

Hurrengo lerroetan irakasle batek ohiko lanean izango dituen solaskideak, egoerak, xedeak eta erabiliko dituen gaiak kontuan harturik, izango dituen behar komunikatiboak aurreikusiko dira, ondoren hauek betetzeko behar diren baliabideak, eta edukiak zerrendatzeko.

4.1 Ahozko adierazpena

Irakaslea ikasleekin	Irakaslea lankideekin	Irakaslea gurasoekin	Irakaslea hezkuntza administrazioan	Irakaslea eskolaz kanpoko solaskideekin
<p>— Gelaz kanpoko egoerak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pasiloa • Jolasgaraia • Jantokia • Txango/ irteerak 	<p>— Irakas-jardunaz kanpokoak (informalak)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lagunartekoa • Irakasle-gelan • Eskolazainarekin 	<p>— Irakas-jardunaz kanpokoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lagunartekoak • Eskolaz kanpoko jardunetakoak: <ul style="list-style-type: none"> – Kirola – Bisitak – Ibilaldiak 	<p>— Irakas-jardunaz kanpokoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Langileen atala • Euskara atala 	<p>— Eskola dagoen auzo, herriko... erakundeekikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaletxea • Kirol-elkartea • Kultur elkartea • Auzo-elkartea • Beste eskolekikoak <p>— Harreman komertzialak</p>
<p>— Ikasgela barruan</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelako jarduna • Azalpenak • Gelako dinamika sustatu, kontrolatu... • Tutoretza <ul style="list-style-type: none"> – Banan bana-koa – Taldekoa 	<p>— Irakas-jardunarekikoak (formalagoak)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mintegia • Zikloko bilera • Klaustroa • Beste zentroekikoak 	<p>— Irakas-jardunari lotuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tutoretza <ul style="list-style-type: none"> – Banan-bana-koa – Gelakoa • Eskola Kontseilua • Batzar Orokorra 	<p>— Irakas-jardunari lotuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritza • PAT 	

Grafiko honetan —HE1eko curriculumean Ahozko Adierazpenerako erabili denaren antzekoa— ikastetxean maizenik ematen diren egoerak daude jasota, ez denak baina bai arruntenak. HE2ri dagokionean, ordea, bereizketa egin da egoera desberdinei dagokien garrantzia eskainiz. Alde batetik, komunikazio-egoera «arruntak», irakas-jardunaz kanpokoak ditugu, diskurtso-mota edo hizkuntz gaitasun jakina eskatzen dutenak. Hauek, HE1eko curriculumaren helburu izanda, HE2ko ikasketariak HE1ekoak baino hizkuntz kalitate (doinuera, jarioa, zuzentasuna, egokitasuna eta zehaztasuna) dezente handiagoz burutu behar ditu, IBIBAk proposatutako Hizkuntz kalitate-mailan (ikus 6. orrialdea) adierazita dagoen bezala. Bestetik, badira beste komunikazio-egoera batzuk, eskola-emankizunei zuzenkiago atxekirik daudenak, bere konplexotasunagatik edo eskatzen duten hizkuntz gaitasun edo diskurtsoaren jabetze osoagoagatik, HE2ko curriculumean arreta berezia eskatzen dutenak.

Ikasketarien benetako komunikazio beharra, beraz, bikoitza izango da. Batetik, aurretiaz planifikatu eta prestaturik, hartzaile bati edo multzo bati zuzenduak dauden hizkuntz ekintzak burutu beharko ditu, eta bestetik, elkarreraginean, bi edo solaskide gehiagoren artean burututakoei erantzun beharko die. Beraz, HE2koen prestakuntza eraginkorra izango bada, biek izan beharko dute bere islada IRALeko curriculum, ikasplan eta ebaluazioetan.

Ikasketariak, eskola barruan, ahoz burutu beharko dituen hizkuntz ekintzen artean bi sail nagusi egin daitezke: alde batetik bakarkako diskurtsoak, bestetik elkarreraginean sortutakoak.

Lehenengoaz arituko gara orain. Batzuetan, bakarkako diskurtsoak ekoiztu beharko ditu. Hauek lanaren alderdirik «akademizistena» betetzeko erabiliko ditu, bai ikasleekiko harremanetan, bai gurasoekikoetan, e.a.

Komunikazio-egoeren artean bakarkako diskurtso hau da, eguneroko irakaslanean duen garrantzia eta maiztasunagatik, curriculum honetan pisurik handien hartuko duena. Egia da curriculum honek ikasketarien banan-banako behar bereziei erantzun behar balie, bakoitzaren neurriko proposamen berezia eskaini beharko liekeela; izan ere, HH, LH, DBH eta Batxiler, LH eta UBIn diharduten ikasketarien beharrak, neurri handian parekoak izan arren, erregistroari, lexikoari eta formalitate-mailari dagokion arloetan batik bat, desberdinak baitira.

Ezinezkoa da, alabaina, irakasmila eta irakasgai bakoitzaren neurriko curriculum egitea; ezinezkoa, halaber, ikasketari bakoitzak egoera jakin batean burutu ditzakeen hizkuntz edo komunikazio-ekintza guztiak dokumentu honetan zerrendatzea, irakaskuntzan eman daitezkeen egoera komunikatiboak kontaezinak baitira. Ez hala, ordea, ikasketari guztiek, maila eta irakasgaia edozein izanda ere, beren jarduna behar adinako gaitasunez betetzeko erabili behar dituzten diskurtso-motak zerrendatzea. Hau izango dugu, irakasle orok bere eginkizunean erabili behar dituen diskurtso-motak eta diskurtso-erak hain zuzen ere, azterkizun hurrengo lerroetan.

— Instrukzioak. Ikasgela barneko eta kanpoko iharduerak zuzentzeko:

- Iharduera jakinen nolakotasuna
- Joko/ jolasak
- Saiakerak egiteko instrukzioak
- Lanerako prozedurak
- Iharduera jakinen sekuentziazioa
- Araudiak
- Ikasturte hasierako arauak
- Materialak, gela eta abar erabiltzeko arauak
- Harreman sozialak eta jokabideak bideratzeko arauak

— Deskribapenak

- Grafikoak
- Irudiak
- Pertsonak (Ebaluazioa: ezaugarri psikikoak, lanerako jarrera...)
- Animalia/ landareak (Biologia/ Zoologia/ Natur zientzia...)
- Gauzak (Gaixotasun, aparailu/ hormona..., osasun alorreko hainbat)
- Lekuak (Turismo bideak, herrialdeak, herriak, nazioak, auzoa, eskola...)
- Prozesuak (Bilakaera fisikoak, kimikoak, zikloak, kate trofikoak, fotosintesia, erliebearen sorrera...)
- Ohiturak: eskolako festa, herriko ohiturak, San Juan sua, Santa Ageda, Olentzero...
- Kontzeptu/ definizioak (Azalpenetan maiz erabiliko dira)

— Narrazioak

- Ipuinak/ elaberriak
- Gertaera sozialak (albisteak)
- Gertaera historikoak
- Gertaera kulturalak
- Bestelako gertaerak: pasadizoak...
- Biografiak
- Erakunde jakinen historia...
- Ohitura jakinen bilakaera
- Norberaren bizipenak

— Azalpenak

- Ikasleekiko harremanetan
 - Kasuan kasuko irakasgaiak eskatzen dituenak: (Presioa/ Kenketak/ Abakoa erabiltzeko azalpena/ Iraultza industrial...), Zehar lerroek eskaintzen duten bidetik eztabaidarako hasierako azalpentoak: balioak, jarrerak...¹
- Irakasleekiko harremanetan:
 - Txostenak
 - Urteko plan/asmoak
- Gurasoekiko harremanetan
 - Ikasturtearen hasierako plana
 - Aurreko urteko memoria
 - Ikasturtearen gora-beherak
 - Gelako dinamikarekikoak
 - Harreman sozialak eratu eta portaerak sustatzekoak

¹ Kontuan izan azalpenetan era guztietako sekuentziak erabili behar izango direla: instrukziozkoak, narraziozkoak, deskripziozkoak, argudiozkoak...

Zerrenda honek ikasketariaren hizkuntz portaeraren alderdi «akademikoari», bakarkako diskurtsoari baino ez dio erantzuten, ez hala hizkuntz portaera osoari. Azken hau zehazteko gogoan hartu behar da, ezinbestean, ikasleekiko, gurasoekiko eta beste lankideekiko komunikazio-ekintza asko eta asko elkarreraginean gauzatzen direla eta gutxitan, bakarkakoen kasuan bezala, aurretiaz planifikatutako hitzaldi etengabeen antzera.

Bigarren hauek, elkarreraginean burutzen diren hauek, bi eratakoak izan daitezke: bi lagun artekoak eta bi baino lagun gehiagoren artekoak. Aldameneko taulan dituzu laburbilduta.

ELKARRERAGINEAN SORTUTAKO HIZKUNTZ EKINTZA MOTAK		
Irakasleak Ikasleak	Irakasleak Irakasleak	Irakasleak Gurasoak
— Banan-banakoak <ul style="list-style-type: none"> • Harreman arruntak • Tutoretza (Ikasle bakoitzarekiko elkarriketa) 	— Banan-banakoak <ul style="list-style-type: none"> • Lankideak • Zuzendaria • Ikasketa burua 	— Banan-banakoak <ul style="list-style-type: none"> • Gurasoekiko elkarriketa • Seme-alaben martxaren berri eman • Aholkuak eman
— Gela osoaren aurrekoak <ul style="list-style-type: none"> • Gela kontrolatu • Ikasleekin negoziatu • Gelako dinamikan eman daitezkeen bestelako hamai-ka... 	— Askoren artekoa <ul style="list-style-type: none"> • Mintegiko bilera • Klaustroa 	— Gurasoen bilerak <ul style="list-style-type: none"> • Gelako gora-beherak • Ekintza bereziak • Irteera — Eskola-kontseilua

Ikus daitekeenez, ez ditugu hemen irakas-jardunarekin estuki loturik dau-denak baino azaldu. Ezin da ahaztu, alabaina, maila honetako ikasketariak HE1eko egoera komunikatiboei, eguneroko harreman arruntetatik eratorritakoei alegia, ere erantzun behar diela, kalitate askoz handiagoz gainera.

Elkarreragineko egoera hauei erantzuteko ikasketariak elkarriketan, eztabaidan eta abarretan trebatu behar du eta, horretarako, HE1ean landutako funtzio komunikatiboak burutzeko gaitasun handia erakutsi beharko du. HE2ko ikasketariak, beraz, gaitasun handia erakutsi behar du honelako hizkuntz ekintzak burutzeko momentuan:

- Argudiatu: aldeko eta aurkako arrazoiak eman
- Argudio baten aurka/ alde egin

- Proposamenak egin
- Negoziatu
- Sugeritu
- Konponbideak eskatu/ eskaini
- Iritziak eskatu/ eman
- Egitasmoen berri eman/ eskatu
- Hipotesiak egin
- Adibideak eman
- Ikasleen portaera bultzatu/ gaitzetsi

Irakas-jardunari dagozkion hizkuntz ekintzak (eguneroko azalpenak ematea, gelako dinamika sustatzea, klaustro eta mintegiko bilerei dagozkienak eta abar) irakastegiko ikasgelan burutu behar dira, horretarako simulazioa edo bestelako bideak erabiliz. Ikasketariak halakoetan, hala ere, ikasgelan eginda-koaz gain benetako gaitasuna eskuratzeko praktikaldirako aukera izango du; bertan, tutorearen laguntzaz, ikasgelan ikasitakoa irakas-egoera jakinetara egokitzeko aukera paregabea izango du.

4.2. Entzutezko ulermena

Ikasgelako eguneroko jarduna	Irakasleekiko jarduna	Gurasoekikoak	Administrazioa- rekikoak	Eskolaz kanpokoak	Norabide bakarrekoak
<p>— Gelaz kanpoko egoerak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pasiloa • Jolasgaraia • Jantokia • Txango/irteerak 	<p>— Irakas-jardunaz kanpokoak (informalak)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lagunartekoa • Irakasle gelan • Eskolazainarekin 	<p>— Irakas-jardunaz kanpokoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lagunartekoak • Eskolaz kanpoko jardunetakoak <ul style="list-style-type: none"> – Kirola – Bisitak – Ibilaldiak 	<p>— Irakas-jardunaz kanpokoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonal atala • Euskara atala 	<p>— Eskola dagoen herriko erakundeekikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaletxea • Kirol-elkartea • Kultur elkartea • Auzo-elkartea • Beste eskoletzekoak <p>— Harreman komertzialak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bisita kulturalak • Gestioak 	<p>— Norabide bakarreko diskurtsoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideak • Ikastaroak • Hitzaldiak • Ikus-entzuzko material didaktikoa
<p>— Ikasgela barruan</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelako jarduna: azalpenak, gelako dinamika sustatu, kontrolatu • Tutoretza <ul style="list-style-type: none"> – Banan-banakoa – Taldekoa 	<p>— Irakas-jardunarekikoak (formalagoak)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mintegia • Zikloko bilera • Klaustroa • Beste zentroekikoak 	<p>— Irakas-jardunari lotuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tutoretza <ul style="list-style-type: none"> – Banan-banakoa – Gelakoa • Eskola Kontseilua • Batzar Orokorra 	<p>— Irakas-jardunari lotuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritza • PAT 		

Ahozko adierazpenaren arloan bezala, honetan ere ikasketariak garatua izango du komunikazio arruntetan ulertzeko gaitasuna. Hala ere, oraingo honetan batetik, HE1ekoa baino dezente handiagoko gaitasuna, ia jatorrizko hiztun baten parekoa, lortu behar du; eta bestalde, komunikazio-egoera berriei, irakas-jardunari zuzenki loturikoei hain zuzen ere, egin beharko die aurre. Hona hemen azken hauek goiko kuadrotik ekarrita:

- Ikasgela, eguneroko jarduna.
- Irakaskideekiko irakas-jarduna.
- Gurasoekikoak.
- Norabide bakarrekoak. Hauek izango dira askotan ikasmaterialen, azalpenen eta abarren iturri.

- Lexiko orokorra nahikoa garatua du. Oraindik ere noiz edo noiz hitz aproposa aurkitzeko lanak izango ditu, ez ordea diskurtsoaren haria eteteraino. Halakoetan hiztun arruntak erabiltzen dituen estrategiak erabiliko ditu (betegarriak, definizio informalak, erdal mailegu euskartuak...).
- Zehar estiloan ari denean, unitate diskurtsiboak esaldiak baino luzeagoak izango dira. Elipsia eta bestelako baliabideak erabiliko ditu. Iritzi propioak tartekatzeko gaitasuna ere badu.
- Lan-bilera eta abarretako eztabaidan parte hartzeko gai da, hizkuntz edota komunikazio-arazo handirik gabe gai ezagunak direnean. Egoera inprobisatuetan, bat-batekoetan, etenak egin eta pentsatzeko astia hartu beharra izan dezake.

ENTZUTEZKO ULERMENA

Gehienetan guztia ulertzeko gai da, bai komunikazio-egoera arruntetan, bai komunikabideak edota norabide bakarreko bestelako diskurtsoetan. Hitz

ezezagunak testuingurutik (kontestutik) inferitzeko gaitasun handia du baina oraindik ere zailtasunak izan ditzake halako bi egoera hauetan:

- Lexikoa arrotza edo oso espezifikoa denean
- Solaskide edo igorlearen hizkera estandarretik urrun samar dagoenean

IDATZIZKO ADIERAZPENA

Espezializazio handirik eskatzen ez duen edozein testu ekoizteko gai da, besteak beste, zuzendariari egin gutuna, aldizkarirako kronikak, curriculumak, araudiak, eskabideak, liburuen erreseinak, lekuen deskribapenak, gutunak... (ikus edukien zehaztapenak testu-erei dagokien atalean)

Hizkuntz kalitate-mailari dagokionez testu-arauak honela beteko ditu:

- Zuzentasuna. Sintaxian, ortografian edo deklinabidean oraindik ere mezuaren ulerkuntza zailtzen ez duten hutsegite arinak egin ditzake.
- Egokitasuna. Testua komunikazio-egoera, jasotzaile eta gaira arazorik gabe egokitzen du.
- Zehaztasuna. Ideia konplexuak adierazi nahi dituztenean oraindik ere zailtasunen bat izan lezake. Lexiko orokor eta zabala erabiltzen du eta baita aipatutako testuei dagokien lexiko espezifikoa ere.
- Koherentzia eta kohesioa. Baliabide diskurtsiboak, arruntenak behintzat, erabiltzen ditu inoiz berauen arteko nahasketak sor daitezkeen arren.

IRAKURRIAREN ULERMENA

Gehienetan guztia ulertzeko gai da, bai testu arruntetan, bai testu didaktikoetan. Hitz ezezagunak testuingurutik (kotestutik) inferitzeko gaitasun handia du, baina testuak oso espezifikoak direnean oraindik ere zailtasunak izan ditzake, batez ere lexiko aldetik.

5.4.2. 5.000 atala

5.4.2.1. 5.000 atala: entzutezko ulermena

KONTESTUA	TESTU-MOTAK	BALIABIDE LINGUISTIKO-DISKURTSIBOAK	AZPITREBETASUNAK/ ESTRATEGIAK
<ul style="list-style-type: none"> — Xedea (ikus 4.000 atala) <ul style="list-style-type: none"> • Eskolagaiak prestatu — Komunikazio-era (ikus 4.000 atala) — Kanala (ikus 4.000 atala) — Gaia <ul style="list-style-type: none"> • Orokorra • Kulturaren edozein alorretakoa • Eskola emankizunetan LH eta DBHko lehen zikloko edozein irakasgairi dagokiona • Eskola praktiketako jardunei lotua (dokumentalak etab.) — Erabilera esparrua <ul style="list-style-type: none"> • 4.000 atalari dagokionaz gain eskola-esparruko emankizunei zuzen-zuzen dagokiena • Eskola praktikak — Eginkizuna (ikus 4.000 atalari dagokiona) — Hizkera <ul style="list-style-type: none"> • Estandarra • Estandarretik gertuko lekuan lekuko euskalkia, estandarretik oso urrundua ez bada, bederen 	<ul style="list-style-type: none"> — Ikus 4.000 atalari dagokiona. — 5.000n landuko diren testu motak 4.000n landutakoak izango dira. Dena den, hezkuntza gaiei aurreko atalean baino arreta handiagoa eskainiko zaie (ikus kontestuari dagokion atala) — Atal honetan izango dute bere lekua hitzaldi eta bakarkako ihardunaldietan egindako diskurtsoei buruzko gogoetak: forma, lotura, ahoskotasunaren ezaugarrien inguruko gogoetak, diskurtsoaren antolatzaileen azterketa ... 	<ul style="list-style-type: none"> — Ikus 5.000 atalari dagozkionak — Atalezkoetz gain eskola gaiei eta hezkuntza esparru orokorrari dagozkien nozio espezifikoak lantzea komeni da. — Atal honetan, era exhaustiboan ez bada ere, euskalkiaren inguruko baliabide fonetiko, morfologiko, sintaktiko, eta lexikoari dagozkionek bere lekua izango dute ulermen mailan, eta ulermen mailan bakarrik. 	<ul style="list-style-type: none"> — Ikus 4.000 atalari dagokiona — Besteen gainetik diskurtsoaren formari dagozkionei eta ahozko diskurtsoak berriaz dituen ezaugarriei erreparatzea komeni da.

5.4.2.2. 5.000 atala: ahozko adierazpena

KONTESTUA	TESTU-MOTAK	BALIABIDE LINGUISTIKO-DISKURTSIBOAK	AZPITREBETASUNAK/ ESTRATEGIAK
<ul style="list-style-type: none"> — Komunikazio xedea (ikus 4.000 atalari dagokiona) <ul style="list-style-type: none"> • Solaskideak (ikus behar komunikatiboak, 27 eta hurrengo orrialdeak) — Komunikazio-era <ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketa: solaskide bat edo gehiagoren artekoa • Bakarrizketa — Komunikazio-egoera <ul style="list-style-type: none"> • Egunerokoa • Irakas-jardunari lotuak dauden egoerak <ul style="list-style-type: none"> – Gela barruko dinamizari lotuak – Azalpen magistralei lotuak (ikus behar komunikatiboak) — Gaiak <ul style="list-style-type: none"> • Egunerokotasunari lotuak (ikus 4.000 atala) • Hezkuntzari lotuak <ul style="list-style-type: none"> – Pedagogia – Hezkuntz antolamendua – Ebaluazioa – Esperientzia berriak – Helburu didaktikoak/ metodologia • Zikloko edozein eskolagairi lotuak <ul style="list-style-type: none"> – Oinarriko matematika – Gizarte arloa – Natur arloa – Hizkuntzalaritza • Dibulgazio mailakoak, ekologia, osasuna... • Kultura arlokoak — Hizkera <ul style="list-style-type: none"> • Doinuera eta ahoskera estandarra edo inguruko erdararen ikutu nabarmenagirik gabea — Elkarrizketa <ul style="list-style-type: none"> • Ondo finkatzea komeni da bai biren artekoa bai askoren artekoa, baita eztabaida /negoiazioa ere (ikus 4.000 atalari dagokiona) 	<ul style="list-style-type: none"> — Instrukzioak (ikus 4.000 atalari dagokiona, berrikusi) — Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> • Iharduera jakinen nolakotasuna • Lanerako proz.k: ariketen sekuentziak • Saiakerak egiteko instrukzioak — Narrazioak <ul style="list-style-type: none"> • Berrikusi 4.000 atalari dagokiona <ul style="list-style-type: none"> – Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> · Kronikak · Narrazio historikoak — Deskribapenak • Berrikusi 4.000 atalari dagokiona <ul style="list-style-type: none"> – Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> · Pertsonen deskripzioak · Ebaluazioa · Izaera · Lanerako jarrera · Portaera · Prozesuak · Bilakaera fisikoak (zikloak, kate trofikoak, fotosintesia...) · Kontzeptu/definizioak · Testulib. ahozkoa moldatuak · Animaliak/ landareak · Fenomeno atmosferikoak · Giza-gorputza — Azalpenak <ul style="list-style-type: none"> • 4.000 atalari dagokiona berrikusi • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Eskolagaien azalpena – Zehar lerroekin zerikusia dutenen gaietakoak – Urteko planak/ helburuak – Gelako dinamizari dagozkienak (arau, ohitura, gomendio...) – Txostenen azalpena – Metodologiari lotutakoak – Deskrip. atalean azaltzen diren asko eta asko ere atal honetan sar daitezke — Argudiozkoak <ul style="list-style-type: none"> • Ikus eztabaidari dagokion atala (7.1.5 eranskina) • Gainontzeko tesu-motetan erabilitako sekuentzia argumentatiboak 	<ul style="list-style-type: none"> — Sistema fonologikoa <ul style="list-style-type: none"> • Ikus 4.000 atalekoa — Baliabide diskurtsiboak <ul style="list-style-type: none"> • Ikus 4.000 atalari dagokiona — Baliabide morfosintaktikoak <ul style="list-style-type: none"> • Ikus 5.000 atalari dagokion 7.4 eranskina — Gai jakinei, eskolagai eta halakoei dagozkien nozio espezifikokoak, lexikoa 	<ul style="list-style-type: none"> — Ikus 4.000 atalari dagokiona — Azpimarratu azalpenei zuzenago dagozkienak eta elkarreragineko diskurtsuoen bat-batekotasunari dagozkionak <ul style="list-style-type: none"> • diskurtsua planifikatu • esanahia negoziatu • ahozkoaren ezaugarrietara makurtu • sintaxi etena • diskurtsuaren etengabeko berreraiketa

5.4.2.3. 5.000 atala: irakurriaren ulermena

KONTESTUA	TESTU-MOTAK	BALIABIDE LINGUISTIKO-DISKURTSIBOAK	AZPITREBETASUNAK/ ESTRATEGIAK
<ul style="list-style-type: none"> — Irakurriaren xedea <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa jaso <ul style="list-style-type: none"> – Azalpen bat prestatu • Jakinmina asetu • Usteak/hipotesiak baietsi, ezetsi • Zalantzak argitu — Komunikazio kanala <ul style="list-style-type: none"> • Literatura • Egunkariak/ aldizkariak • Inprimakiak • Txostenak • Testuliburuak — Gaia <ul style="list-style-type: none"> • Egunerokoa • Kultura-esparru zabala • Eguneroko eskola emankizunekin eta bereziki irakasgarekin loturik daudenak <ul style="list-style-type: none"> – LH eta DBHko Lehen Zikloko gaiak • Dibulgazio aldizkarietakoak: Pedagogia, Natur Zientzia, Giza Zientziak, Ekologia... — Eginkizuna (ikus orientabide didaktikoak: gelako ekintzak, 6.5 atala) 	<ul style="list-style-type: none"> — Instrukzioak <ul style="list-style-type: none"> • Berrikusi 4.000 atalari dagokiona • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Erabilera liburuak, gida didaktikoak – Araudiak – Ariketa-liburuak, azterketak — Narrazioak <ul style="list-style-type: none"> • Berrikusi 4.000 atalari dagokiona • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Kronika – Narrazio historikoa — Deskribapenak <ul style="list-style-type: none"> • 4.000 atalekoak berrikusi • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Orientabide didaktikoak – Ebaluazio fitzak, txostenak – Testuliburuak <ul style="list-style-type: none"> · Natur zientzia · Gizarte zientzia · Matematika — Azalpenak <ul style="list-style-type: none"> • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Monografiak – Erreportaiak – Artikulu espezializatuak – Dibulgazio artikulak – Entziklopediak – Inkestak – Testuliburuak – Txostenak – Erreseinak: liburuenak, ariketenak... — Argudiozkoak <ul style="list-style-type: none"> • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Eskabideak – Erreklamazioak – Editorialak – Iritzi artikulak – Zuzendaritari egin eskutitzak – Azalpenetako sekuentzia argumentatiboak – Txostenak 	<ul style="list-style-type: none"> — Baliabide diskurtsiboak <ul style="list-style-type: none"> • Ikus 4.000 atalari dagokiona — Baliabide morfosintatikoak <ul style="list-style-type: none"> • Ikus 5.000 atalari dagokion edukien eranskina, 7.4 eranskina — Nozio espezifikoak, lexikoa, hezkuntza eta eskolagaiei lotuak 	<ul style="list-style-type: none"> — Ikus 4.000 atalari dagozkionak

5.4.2.4. 5.000 atala: idatzizko adierazpena

KONTESTUA	TESTU-MOTAK	BALIABIDE LINGUISTIKO-DISKURTSIBOAK	AZPITREBETASUNAK/ ESTRATEGIAK
<ul style="list-style-type: none"> — Idatzizko adierazpenaren xedea <ul style="list-style-type: none"> • Eskaerak egitea • Salaketak egitea • Ziurtagiriak • Errekurtsoak/ erreklamazioak egitea • Gai bat garatzea • Apunteak prestatzea • Ariketak eta azterketak prestatzea • Curriculuma idaztea • Araudia idaztea • Ohar-iradokizunak egitea • Txostenak idaztea • Zerbaiten berri eman/ eskatzea • Gai jakin bati buruzko iritzia ematea • Ekintza jakin batzuen helburuak, arrazoiak ematea. — Komunikazio kanala <ul style="list-style-type: none"> • Literatura • Egunkariak/ aldizkariak • Inprimakiak • Txostenak (praktikaldia) • Ikasleentzako apunteak (praktikaldia) — Gaia <ul style="list-style-type: none"> • Egunerokoa • Kultur alorrekoa • Hezkuntza-arlokoa <ul style="list-style-type: none"> – Gaien azalpenekin zerikusia dutenak – Gai orokorrak 	<ul style="list-style-type: none"> — Instrukzioak <ul style="list-style-type: none"> • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Berrikusi 4.000ri dagozkionak – Araudia – Gida didaktikoak/ ikasmaterialaren erabilera-oharrak – Ariketa-liburuak eta azterketak (praktikaldiari begira) — Narrazioak <ul style="list-style-type: none"> • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Berrikusi 4.000ri dagokiona – Kronikak/ Erreportaiak – Apunteak (itzulpenak) – Txostenak (zenbait sekuentzia) — Deskribapenak <ul style="list-style-type: none"> • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Berrikusi 4.000ri dagokiona – Ebaluazio fitxak – Ebaluazio informe/txostenak – Apunteak. Testuliburueta itzulpenak. (LH eta DBH Lehen zikloa) – Liburu edo material didaktikoen erreseinak — Azalpenak <ul style="list-style-type: none"> • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Berrikusi 4.000ri dagokiona – Azalpen baterako eskemak – Apunteak (itzulpenak) — Argudiozkoak <ul style="list-style-type: none"> • Testu-erak <ul style="list-style-type: none"> – Berrikusi 4.000ri dagozkionak – Iritzi artikulua – Eskaerak – Salaketak – Erreklamazioak eta errekurtsoak – Zuzendariari egin gutunak – Txostenak (sekuentzia argumentatiboak) 	<ul style="list-style-type: none"> — Baliabide diskurtsiboak <ul style="list-style-type: none"> • Ikus 4.000 atalari dagokiona — Baliabide morfosintatikoak <ul style="list-style-type: none"> • Ikus 5.000 atalari dagokion edukien eranskina, 7.4 eranskina — Nozio espezifikoak, lexikoa, hezkuntza eta eskolagaiei lotuak 	<ul style="list-style-type: none"> — Ikus 4.000ri dagozkionak

5.4.2.5. Irakaspraktikak

5.000 atala irakaspraktikek egiten dute berezi. 5.000 ataleko edukiak zehazteko orduan, bai kontestuari dagokionean bai testu-mota eta testu-erei dagokienean, irakaslanarekin zuzen-zunenean loturik dauden edukiek berariazko pisua hartzen dute. Izan ere, atal hau, ikasketariaren euskalduntze-prozesuaren bukaeran dagoena hain zuzen ere, abagune aproposa da irakaslanak berezki sortzen dituen behar komunikatiboeri erantzun zuzen eta zehatzagoa emateko.

Curriculumaren atarian eman den eredu teorikoan, komunikazio-gaitasunari nahitaezko garrantzia ematen zaio eta, gaitasun linguistikoari adinako garrantzia ematen zaie komunikazioaren zer-nolako bideratzen duten bestelako baldintza edo aldagaiei: solaskideari, lekuari, rolari, xedeari... Honen arabera, komunikazioan kontestua benetako pisua hartzen du, errealtatean erabiltzen diren testuak ikas-irakasprozesuaren ardatz bilakatzen direlarik.

Orain arte esandakoa geurera ekarrita, aitortu beharra dago H2a eskola-esparruan erabili beharrik ñabardura jakinak ezartzen dizkiola ikasketariak eskuratu behar duten komunikazio- gaitasunari. Honela, bada, IRALEren irakas-jardunak ñabardura jakin horiei ere erantzun diezaien irakaspraktikek garrantzi handia hartzen dute.

PRAKTIKALDIAREN HELBURUAK

IRALEko ikasketariak irakaspraktikak egitera bultzatzeak hurrengo helburu hauek ditu:

- Ikasprozesuan hurrengo urratsa ematea. Irakaspraktikak oso aukera ona eskaintzen dio ikasketariari bene-benetako egoeran bere komunikazio-gaitasuna areagotzeko. Ikasketaria irakaspraktikan, murgilpen egoeran, duen hizkuntz gaitasuna eskola-egoerara edo kontestura egokitzen joango da eta, horrekin batera, komunikazio-gaitasuna hobetzen. Ikasketariak praktikaldian, esaterako, ikasleekin elkarreraginean hizkuntza baliatzen, idatzizko eta ahozko hizkuntzaren artean bereizketak egiten eta hizkuntza malgutasun handiagoz erabiltzen aurrera pauso bat emango du; azalpenen orduan, ulergarritasuna bermatzeko zenbait estrategia erabili beharraz jabetuko da etab. Laburbilduz, esan daiteke eguneroko irakastegiko ikasesparruaz landako komunikazioaren bestelako alderdietan trebatzeko aukera izango duela.
- Bere hizkuntzazko eta komunikazio gaitasun-mailari buruz hausnartzeko aukera ematea. Honela, ikasketariak errealtatean ikusi ahal izango du zer-nolako zailtasunak dituen klaseak euskaraz emateko.
- IRALEn, ikasketariaren benetako zailtasunen eta beharren arabera, ikasketa-plan pertsonalizatuago eta zehatzagoa burutu ahal izatea.

Honetarako IRALEko eta praktikaldiko tutoreen arteko harremana bultzatuko da. Praktikaldiko tutoreak dagokion ikasketariaren ikasprozesuaren berri izango du eta praktikaldian laguntza pertsonala eman ahal izango dio. Bestalde, bai irakaspratiketako tutoreak bai ikasketariak berak jasotako informazioa oso baliotsua izango da irakastegira itzulitakoan ikasketariaren ikasprozesua bideratu eta zuzentzeko.

- Ikasketariak bere buruan duen konfidantza eta istimua areagotzea. Klaseak euskaraz lehenengoz ematea sortzen duen ziurtasun falta gainditzeko lagunduko diote irakaspraktika hauek ikasketariari, bertan konturatuko baita hainbat gauza- sarritan berak pentsatu baino gehiago euskaraz egiteko gai dela.
- Benetako klase-emankizunetan izandako esperientzia (zailtasunak, beharrak...) trukatzeko aukera ematea. Praktikak burutu ondoren, IRALEko taldean bere esperientziaren berri elkarri ematea oso aberasgarria izango da ikasketariarentzat.
- Aurreko puntuaren ildotik, ikasmaterial eta esperientzia didaktiko berriak ezagutu, erabili eta trukatzeko aukera ematea.
- Ikasketariak euskarazko irakaskuntzan murgiltze-prozesu progresiboa izatea. Honela, ikasketaria apurka-apurka murgilduko da eta, gainera, tutorearen laguntzaz.

PRAKTIKEN ZER-NOLAKOA

- Aurreko hau guztia lortu ahal izateko ikasketariak 90 ordu inguruko praktikaldia burutuko du.
- IRALEko ikasketariak praktika-ikastetxeko tutorearekin batera jardun behar du, bai klase emankizunetan eta bai irakaslanari dagokion beste edozein zereginetan (lan-bilera, material-prestaketa...)
- Praktika hauetan IRALEko ikasketariaren partaidetza progresiboa izango da, bai intentsitatean bai zailtasunean.

IRIZPIDEAK

- Ikasketariak, ahal delarik, D ereduko ikastetxea aukeratuko du praktikaldirako. Ezinezkoa denean B eredurako bidea emango zaio aukerari.
- Ikasketariak bere praktikaldia normalean irakasten duen irakas-zikloan eta bere asignaturan edo antzeko batean egingo du. Hau, alabaina, ez da ezinbestekotzat hartuko. Zenbait kasutan, ikasketariak irakasten duen gaiak edo hautatutako irakas-zikloak bere ikasprozesuari onurarik ekarriko ez balio, ikasketariak berak eta IRALEko tutoreak, ados jarrita, praktikaldirako plan bereziak egiteko aukera izango dute, irakasgaia eta maila ikasketariaren ikasprozesuari egokituz.

PRAKTIKALDIETAKO TUTOREEN EZAUGARRIAK

Hona hemen praktikaldiko tutoreari eskatuko zaizkion ezaugarriak:

- Hizkuntz gaitasun altua izatea: EGA edo baliokidea, HE2 edota EIT-ren jabe izan behar du.
- Euskaraz irakasten gutxienez 2 ikasturteko esperientzia izatea.
- Pratikaldia irauten duen bitartean ikasketaria dagoen ikastetxe berean egotea.

TUTOREAREN FUNTZIOAK

Hiru izango dira tutorearen funtzio nagusiak:

- Praktiken orientazioa, jarraipena eta balorazioa
- Ikasketariaren ikasprozesuaren ardura izatea. Praktikaldiaren garaian tutoreak ikasketariari laguntza emango dio halakoetan: akatsak bideratzen, hizkuntzaren erabilera desegokia zuzentzen, klase emankizunak prestatzen...
- IRALEko ikasketariarekin batera jardutea, bai klase-emankizunetan eta bai, ahal bada, ikastetxeko dinamikari dagokion beste edozein zereginetan ere.

PRAKTIKEN EBALUAZIOA

Praktikak ebaluatu ahal izateko, hiru informazio-iturri erabiliko dira:

- Ikasketariaren autoebaluazioa. Ikasketariak praktikaldian zehar edo bukaeran autoebaluazio fitxa, txostena, edo eguneroko bat beteko du. Hala nahi izanez gero tutorearekin kontrastatu ahal izango du.
- Irakaspraktiketako tutorearen ebaluazioa. Tutoreak praktiken bukaeran txosten bat egingo du eta IRALEko irakastegira bidaliko; bertan praktikaldiaren ebaluazioarekin batera ikasketariaren ikasprozesuaren jarraipenean baliagarri izan daitezkeen iruzkinak egingo ditu, hala nola, antzemandako hutsuneak, gaitasunak...
- IRALEko tutorearen balorazioa. Tutorea, gutxienez bitan pasatuko da dagozkion ikastetxeetatik, eta bertako tutoreekin eta ikasketariekin elkarriketatuko da praktikaldiaren martxa aztertu eta ikasketariaren ikasprozesua hurbiletik jarraitzeko.

5.4.2.6. 5.000 atala: bukaerako gaitasuna

AHOZKO ADIERAZPENA

Hizkuntz Eskakizunak egiaztatzeko Hezkuntza Sailak emandako ebaluaziorako irizpideetan honako hau dio mintzamenari dagokionez:

Ikasketaria, hurrengo lerroetan zehazten den hizkuntza maila zainduta, gai izango da:

- Bere jakintzagaiarekin edo kultura-esparru zabal batekin loturik dagoen gai bati buruzko azalpena egiteko, argi eta era ordenatuan mintzatuz, aurrez prestatutako eskema edo gidoia garatuz, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, egiten zaizkien galderari erantzunez, irakasmaita bakoitzak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza...) eta irakaskuntza-arlo bakoitzak dituen ezaugarri eta berezko formak kontuan hartuz.
- Solaskide bat edo gehiagorekin ari denean, informazio egokia adierazteko: arrazonamendu, azalpen, deskribapen edo narrazio luzeak zailtasun handirik gabe egin ditzake, unean uneko gaiak bere iritzia eta ikuspuntuak azalduz eta defendatuz, hipotesiak eginez, aholkuak emanez eta abar.

ENTZUTEZKO ULERMENA

HE2ko ikasketaria gai izango da:

- Ahozko edozein testutako ideia nagusiak eta berariazko informazioa jasotzeko eta informazio hori, ahoz nahiz idatziz kanporatzeko. Erabilpen esparrua zabala izango da (aktualitatea, kultura, irakaslan) eta benetako testuak erabiliko dira.
- Ikasketariaren ikastetxea kokaturik dagoen eskualdeko euskalkian ahoz ekoiztutako testuak oro har ulertzeko. Hizkera estandarretik oso urrun ez dauden benetako edo egokitutako testuetan adierazitako ideia nagusiak eskuratzeko.
- Solaskidearen jarrera eta egoera animikoa antzemateko eta testuak esplizituki eskaintzen ez duen informazioa ere neurri handi batean antzemateko.
- Esaldi osagabeak, elisioak, anaforak, eta abar dituzten mezuak ulertzeko.
- Hitz ezezagunen esanahia inferitzeko, testuinguruaz baliatuz.

IDATZIZKO ADIERAZPENA

HE2ko ikasketariak, testu-mota desberdinak (argibideak, oharrak, aktak, txostenak, eskutitzak...) eta bere arlo edo jakintza-gaiarekin loturik dauden ikasmaterialak (fitxak, apunteak, eskemak, neurketa-probak...) erredaktatzeko gaitasuna erakutsiko du.

Hau guzti hau egiteko ikasketariak behar adinako maila erakutsiko du testu-arauen ezagupenean:

- Zuzentasuna. Ortografia eta morfosintaxiaren arauak zuzentasunez erabiltzen ditu, testua hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran.

- Egokitasuna. Kontestuak eskatzen dion araberako erregistro kolokiala/ formala, lexiko zehatz/ orokorra... bereziko ditu. Lexiko zehaztasuna eta aberastasuna erakusten du.
- Koherentzia/ Kohesioa. Informazioa, gertaerak eta argudioak egokiro aurkeztu eta garatzeko gaitasuna du. Testua era egokian egituratuko du mezuaren ulergarritasunaren mesedetan.

IRAKURRIAREN ULERMENA

HE2ko ikastetariak:

- Era askotako testu idatzietako informazio nagusiaz eta zehatzaz jabetzeaz gain, informazio inplizitua eratorzeko gaitasuna du. Kalitate eska-seko testuak direnean akatsak, koherentzia-erak, eta abar antzemateko gai da, bai edukinari bai alderdi formalagoei dagokienez (ortografia, zuzentasuna...), testu horiei buruzko iritzia azalduz.
- Oro har bere esparruko testu idatzi arruntak, testuliburuak barne, zailtasun handirik gabe ulertzen ditu, jatorrizko hitzun jantziarenera asko hurbiltzen den erritmoaz irakurriz.
- Gaietarako irakurketa eta analitikoaren bidez informazio globalak eta xeheak ateratzen ditu. Egilearen intentzioa antzematen du, testuaren parteak bereizten ditu eta haien arteko erlazioak ulertzen ditu. Normalean testuinguruaz, bere ondare kulturalaz edo prozedura analitiko eta etimologikoez baliatuz elementu ezezagunen esanahia deduzitzeko gauza izango da hiztegietara edo bestelako kontsulta-liburuetara jo behar izan gabe.
- Testu korapilatsuak badira, ezezagunak zaizkion edo aurretik jorratu gabeko gaiak garatzen badituzte edo oso lexiko espezializatua darabilten gai berezi bati buruzkoak badira, hiztegietara joko du. Hitz baten adiera desberdinen artean testuingururako egokiena hautatzeko gaitasuna izango du.
- Ikasleek sortutako idatzizko testuak era kritikoaz irakurtzeko gaitasuna garatua du (zuzentasuna, egokitasuna, koherentzia, ideien ordena, osotasuna, puntuazio-markak...).

6. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

TREBETASUNEN ARTEKO INTEGRAZIOA

Hizkuntz trebetasunak ez dira komunikazioan bananduta, banan-banan ematen, baizik eta elkarren eraginpean. Elkarrizketa edo eztabaida batean, konparazio batera, solaskideek rol anitzetan ari behar izaten dute, orain entzule orain esatari, hurrengoan solaskidearen jarduna eten eta hitza hartu. Idazten dugunean ere, askotan jo behar izaten dugu idatzizko testuetara, ikus-entzutezko iturrietara eta bestelako kanaletara informazio bila, hizkuntz trebetasun desberdinez baliatuz informazioa bildu eta idazteari ekiteko.

Hitz gutxitan esanda, komunikazioan ahozko kanaletatik idatzizkoetara eta alderantziz ematen den joan-etorria etengabea izaten da. Honela gertatzen da, esaterako, azalpen bat egiteko (urteko plana gurasoei, gai bat ikasleei...) gidoia edo eskema idatzi laburragoa edo osatuagoa egiten denean; edo, hitzaldi bat, kronika bat edo komunikazio bat idazten denean ondoren ozenki irakurtzeko. Azken batean, beraz, lau trebetasunei buruzko orientabideak bereizirik eman arren, komunikaziorako tresna edo baliabide bateratutzat hartu behar direla azpimarratu beharra dago.

Honenbestez, hizkuntz trebetasunen didaktikak integratua izan behar du. Ikasketariak lau trebetasunak nahasian erabiltzera bideratuko dira klase-emankizunetan, ikaste-prozesuak adierazpen eta ulermen trebetasunen garapen orekatua lortzea izango baitu helburu.

6.1. Irakurriaren ulermena

HE2ko ikasketari batek bere bizitzan, bai eskolan bai eskolaz kanpo, askotan jo behar izango du testu idatzietara: batzuetan, informazio gosea ase-

tzeko; beste batzuetan, plazer hutsez eta sarri askotan, eskola-gairen bat edo prestatzeko informazio bila.

HE2ko ikasketariak, HE1ekoek ez bezala, gaitasun handia izan behar dute eskolan bereziki eta gizartean oro har erabil daitezkeen era guztietako testu idatziak ulertzeko. Irakasle arrunt batek bere eguneroko jardunean oharak, gutunak, aktak, ziurtagiriak, egunkariak, era guztietako aldizkariak, anzerkiak, elaberriak, gida didaktikoak, curriculumak, eskolaliburuak eta abar luze bat erabili behar izaten ditu esku artean. Horrenbestez, irakurketa-saioetan ikasketariak era guztietako testuak erabili behar ditu bere ulermen-gaitasuna egunetik egunera zabaltzen joateko.

Bada, hala ere, hizkuntz irakaskuntzaren alorrean irakurmenari aitortzen zaion bestelako dohai garrantzitsurik ere. Nekez lortuko dugu *idazlerik* edota testu egile treberik, asko irakurri eta testurik landu ez dutenen artean. Irakurketa, beraz, idatzizko adierazpenerako eredu-harrobi amaiezina dugu eta balio hori ere aitortu behar zaio hizkuntzen irakasprozesuan.

Irakurketak bete litzakeen bi funtzioen (informazio-iturri eta eredu-harrobi) araberako tratamendua izan behar du didaktikaren ikuspuntutik ere.

Informazio-iturri den neurrian irakurketa-saioak gaitasun zehatzak lortzera bideratu behar dira. Besteak beste, honelako azpigaitasunak eskuratzea izango dute helburu:

- Informazioa inferitzeko gaitasuna
- Lerro artean irakurtzeko gaitasuna, inplizitoki esandakoa interpretatzeko gaitasuna
- Datu jakin eta zehatzak jasotzeko gaitasuna
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, tesiak eta argumentuak, datu nagusiak eta osagarriak, kontzeptuak eta adibideak, abstrakzioak eta zehaztasunak bereizteko eta jasotzeko gaitasuna

Testua eredu-iturri den neurrian, eduki esplizitu eta inplizituaz gain bere egitura, antolaketa eta formak ere lantzea komeni da. Arlo honetan, testuaren forma eta antolaketaren arloan alegia, idazketak eta irakurketak elkarren eskutik joan behar dute. Irakurketa-saioak testuaren alderdi formalak eta propietateak edo tasunak aztertu eta lantzeko erabil daitezke, eta idazketa-saioak ereduaren araberako testuak ekoizteko. Hona hemen irakurketa-saioetan landu daitezkeen zenbait alderdi:

- Testu-motak: ezaugarri orokorrak
- Testuaren antolamendua: sarrera, garapena eta ondorioa (bukaera)
- Koherentzia: informazioaren pertinentzia, kantitatea, gaiaren batasuna, informazioaren progresioa, parrafoen egitura
- Informazioaren antolamendu logikoa eta parrafo-motak: kausa/ ondoriokoak, konparazio/ kontrastekoak, argumentaziokoak ...
- Kohesioa: erreferentzia kateak (pronominalizazioa, elipsia, ordezkapen lexikala)

- Konexioa: lokailu eta antolatzaileak
- Egokitasuna: modalizazioa, lexikoa...
- Lexikoa
- Esamolde, adiera, esaera zahar, modismo...

Erabil daitezkeen materialei dagokienez esan, benetako testuak erabil-tzea komeni dela eta halakorik izan ezean sasibenetakoetara jo daitekeela. Bestalde, gogoratu behar da testu-mota eta testu-era edo genero desberdi-nak erabili behar direla. Hala nola: publizitate testuak, egunkari/aldizkarieta-koak, gutunak, txostenak, ziurtagiriak eta baita eskola-testuak ere. Azken hauek ezaugarri jakinak izaki —azalpen objektiboak eta neutroak, estandarrak eta lexiko zehatzekoak...—, ezinbestekoak dira ikasketarien behar komunika-tiboen alderdi bat bete ahal izateko.

6.2. Idatzizko adierazpena

Hizkuntzaren irakaskuntzan tradizionalki. Irakaslearen egitekoa «erredak-ziorako» gaiak proposatzea eta ondoren emaitzak zuzentzea, ebaluatzea baino ez zen; ikaslearena, berriz, irakasleari bere gaitasuna erakustea, irakas-learentzat idaztea eta idatziaren idatziz, arian-arian gero eta idazlan zuzena-goak eta aberatsagoak lortzea.

Gaurko ikuspegi didaktikoen arabera, idaztea helburu komunikatibo jakin batekin ideia, gertakizun, datu sorta bat bildu, ordenatu eta era koherente eta kohesionatuan papereratzea da. Idazten duenak, esaterako, ez du testu ber-bera erabiliko liburu, pelikula edo telebista saio baten erreseina soilu egiteko edo ikasleak pelikula, liburu edo telebista-saio jakin bat ikus-irakurtzera bul-tzatu nahi dituenan; ezta gertatutako zerbaiten kronika eskolako aldizkarian jakitera eman edo gertakizun jakin baten aurrean salaketa adierazteko edo gertaera horren aurrean, eskolako ikasleengan giza portaera jakin bat susta-tzeko ere. Ez du, bestalde, erregistro —lexikoa, sintaxiaren konplexuta-suna...— berbera erabiliko hamabi urteko ikasleentzat gai baten azalpen-tes-tua burutu behar duenean edo gai berberaz mintegikideekin txosten edo ikas-unitate bat prestatu behar duenean. Bi hitzetan esateko, helburu komu-nikatibo jakinen baitan idaztea komeni da, hala gertatzen baita errealitatean.

Gure kasuan, ikasketariak behar komunikatiboen atalean eta edukien ze-haztapenetan zehaztutako beharren araberrako testu-motak eraikitze gaita-suna eskuratu behar du; ez da, beraz, nahikoa izango arituaren arituaz gero eta idazlan hobeak egiteko gaitasuna lortzea, nor, nori eta zertarako zehatzak dituzten idazkiak ekoizteko gaitasuna eskuratzea, baizik.

Ikasprozesuari dagokionean, aribide tradizionalak ez zioten azken emai-tzari baino garrantzia ematen: didaktikak ez zuen esku hartzerik ez idatzi au-rreko prozesuan, ezta idazkia gauzatzeko unean ere. Irakaslearen berezko se-nak, dohaiek, gutxi ala gehiago irakurri izanak eta idatzi ondorengo zuzenketak ziren idazle trebeak lortzeko bitarteko bakarrak.

Arestian, aribide tradizionalei egozten zitzaien bigarren akatsa zera izaten zen, idazte-prozesuan parte hartze eskasa zutela eta askotan, tamalez, hutsa. Nola bete, bada, hutsune hori? Zer egin ikasketarien sena, dohaiez eta behinbetiko testuen zuzenketaz gainera idazte-prozesuan eragina izan eta azken emaitzetan helburu jakinak lortzeko?

Gaurko adituek bi ardatzen inguruan aritzea proposatzen dute. Beraiek diotenez, idaztea prozesu bat da eta prozesu horren, emaitza, testu jakin bat. Didaktikak, beraz, bi norabide horietan esku hartu behar du.

Hona hemen idazte-prozesuari buruzko zenbait xehetasun.

—Idatzi aurrekoak. Eragiketa, psikolinguistikoak

- Helburuaren arabera testu-mota edo testu-era aukeratu
- Erregistroa erabaki
- Informazioa hautatu: ideiak bildu, aukeratu eta ordenatu

– Ideiak biltzeko teknikak

- Ideia-zerrendak
- Ideia-mapak
- Idazte jariakorra

– Ideiak sortzeko eta lotzeko mekanismoak

- Aurkaritza
- Kausa
- Ondorioa
- Adibidetza
- Tipologia
- Norberaren esperientzia
- Autoritate-zita
- Analogia
- Iragana
- Geroa/ etorkizuna

—Idaztea

- Aurretik egindako eragiketen emaitza da: ideiak parrafoetan gauzatzeari

—Idatzi ondorengoak

- Idatzia ebaluatu (berrikusi)
 - Egokitasuna
 - Asmo komunikatiboarekiko
 - Erregistroa
 - Modalizazioa

- Koherentzia
 - Asmo komunikatiboekiko
 - Informazioaren pertinentzia: kantitatea eta kalitatea
 - Progresio tematikoa, gaiaren garapena
 - Parrafoen egituraketa
- Kohesioa
 - Erreferentzia mekanismoak: pronominalizazioa, ordezkapena, errepikapenak...
 - Konexioak: testu-antolatzaileak
 - Puntuazioa
- Zuzentasuna
 - Morfologia
 - Sintaxia
 - Ortografia
- Berridazketa
 - Testua laburtu
 - Osatu
 - Berrantolatu
 - Aldatu.

Emaitzari dagokionez

Idazte-prozesuaren emaitza testua da eta emaitza den aldetik hitzez, esaldiz eta parrafoz osaturik dago; didaktikak, beraz, testuaren osagaien eraketan esku hartu behar du ikasketariaren gaitasun-testuala zabaltzeko. Morfologia eta sintaxia baliatuko ditugu esaldiaren mailako gaitasuna lortzeko eta testu-gramatikara joko dugu esaldiaren gaineko egiturei, hau da, parrafoa eta testuari buruzko zehaztasunak emateko orduan.

Testu-mota, testu-era edo parrafoa edozein motatakoa izanda ere hone-lako egitura izaten du oinarrian.

—SARRERA

- Helburuak
 - Irakurlearen arreta lortu
 - Idatziaren tesia edo gaia formulatu
 - Garapena aurreratu
- Baliabideak: sarrera-parrafoa
 - Tesi-sarrera
 - Pasadizo-sarrera

- Zita-sarrera
- Galdera-sarrera
- Analogia-sarrera

—GARAPENA

- Helburua
 - Sarreran igorritakoa garatzea
 - Ideien arteko erlazio logikoak garatzea
- Baliabideak: parrafoak/ testu-antolatzaileak
 - Izendatze-parrafoa
 - Sekuentzia-parrafoa
 - Konparazio/aurkaritza-parrafoa
 - Kontzeptua garatzeko parrafoa
 - Kausa/ondorio-parrafoa
 - Enuntziatuak proposatzen duen arazoari irtenbidea emateko parrafoa

—ONDORIOA

- Helburua
 - Egindako bidea erakutsi puntu nagusienak bilduz
 - Arrazonamenduaren etapak eta emaitzak markatu
 - Ondorioak atera
- Baliabideak: ondorio-parrafoa
 - Sintesia/ laburbildu
 - Pasadizoa
 - Zita
 - Galdera erretorikoa
 - Proposamena.

Prozesuan esku hartzeko oso ariketa aproposak dira.

Idatzi aurrekoari dagokionez:


- Testu batetik eskemara etortzea
- Laburpenak egitea
- Alderantzizko bidea egitea: eskemak testu bilakatzea
- Idea bat eman eta beste batekin lotzea (kausa bilatzea, ondorioa ematea, adibide batez arrazoitzea, azpikategoriak ematea...)
- Ideia-mapak egitea...

Idatzi ondokoari dagokionez: testuak, osoak edo parrafoak, zuzentzea, goiko kuadroan eman diren irizpideen arabera. Behin eta berriro azpimarratu

behar da idatzi ondorengo prozesua oso garrantzitsua dela eta ezin dela akatsen zuzenketa hutsera murriztu. Berrikusketan irakurketa bat baino gehiago egitea komeni da eta irakurketa bakoitzari helburu zehatz bat ematea; ulergarritasunak, ideien garapenak, helburuarekiko egokitasunak, hitz-errepikapenak eta abarrek ere zer zuzendua edo zer aldatua izaten dute ia beti.

Beste zenbait ohar

Testuak hobetzeko idazte-prozesuan zuzenean esku hartu behar da; horretarako benetako testu-ereduetan oinarritutako sekuentzia didaktikoak prestatu behar dira. Irakurketak eta idazketak elkarren eskutik ibili behar dute: irakurketak testu errealak landu eta ereduak proposatzeko bidea eskaini behar du eta idazketak, berriz, ereduaren pareko testuak edo sekuentziak eraikitze modua. Hona hemen modu grafikoagoan emana:



Idazketa-saioetan urteetan nagusi izan den iharduera: *erredakzioa* ezin da komunikazioaren izenean, besterik gabe, idazmena lantzeko ihardupideetatik kanpo geratu, testu komunikatiboen osagarri oso aproposa izan baitaiteke. Erredakzioa baliagarria izan dakieke hizkuntza finkatu eta ahozko azalpenak egiteko entrenamendu edo aurrelan gisara erabiltzeko.

Bukatzeko, esan baztertu egin behar dela idaztea beti testu osoak ekoiztea delako ustea eta, ariketa edo iharduera hori alde batera utzi gabe, idazketa-saioetan ariketa intentsiboagoak ere burutu behar direla.

6.3. Entzutezko ulermena

HE2ko ikasketariak aurrez aurreko komunikazio-egoeretan esaten zaiona, komunikabideek (irradi, telebista) euskaraz igorritako ahozko testuak eta bes-telako bakarrizketak (ikastaro, hitzaldi, ikusentzutezko material didaktikoa) xe-heki ulertzeko gaitasuna eskuratu behar du. Zehatzago esanik, HE2ko ikasketari batek aipatu egoeretako ahozko testuetako informazio esplizitua ulertzeaz

gain informazio inplizitua antzemateko eta informazioa inferitzeko gaitasuna lortu behar du. Bestalde, lekuan lekuko euskalkian eta hizkuntz sinkopatuan, hau da, fonema-erorketak, asimilazioak eta halako fenomeno fonetikoak erakusten duen hizkuntzan, adierazten zaiona, orokorrean bederen, ulertzeko ere gai izan behar du.

Askotan pentsatu ohi da ikasketariak HE1 eskuratua duenean bereganatua duela, dagoeneko, behar duen entzutezko ulermen-gaitasuna eta HE2ko gaitasun-maila eskuratzeko prozesuan, entzutezko ulermena erabat baztertu gabe, bestelako trebetasunak izan behar dutela lehentasuna.

Gaitasun maila edozein dela ere, ezin dugu ahaztu entzutezko ulermenari ezinbesteko balioa aitortzen zaiola hizkuntzaren jabetze prozesuan. Izan ere, H2ko input-ak sortzen dizkion ulermen arazoak gainditzen saiatzen denean, H2ko sisteman dituen hutsunez jabetu eta hutsune horiek bete ahala ikasi egiten du. Honela bada HE2ko Curriculumean ere entzutezko ulermenari berea aitortu behar zaio, hizkuntza eskuratzeko-prozesuan oso paper garrantzitsua jokatzeko baitu.

Irakurriaren ulermenari informazio-iturri izateko eta idatzizko adierazpena eraikitzeke aitortzen zitzaien balio berbera aitortu behar zaio, atal honetan, entzutezko ulermenari ahozko adierazpenarekiko.

Informazio-iturri gisa erabiliko da entzutezko materiala, besteak beste:

- Informazioa jaso eta trukatzeko
- Ahozko azalpen bat egiteko
- Eztabaidarako abiapuntutzat
- Idazlana egiteko abiapuntu gisa
- Informazio jakin batzuei erreferentzia egiteko orduan

Eredu iturri gisa eskainiko zaizkio ikasketariari entzutezko materialak bertatik bereganatuko baititu gero ahozko adierazpenean erabiliko dituen zenbait eredu:

- Lexikoa, esamolde jakinak, adiera bereziak... lantzeko
- Zenbait funtzio lantzeko: informazio, jarrera, ... funtzioak
- Ahozkoatasunaren ezaugarriak aztertzeke (ikus 7.1.4 eranskina)
- Bakarkako diskurtso-mota desberdinak aztertu eta baliabideak lantzeko
 - Denbora markak
 - Adibidegileak
 - Definizioak/ kontzeptu adierazpenak
 - Hasiera eta amaierak
 - Sailkapenak
 - Kontraste/ konparazioak
 - Sekuentziak egitekoak
 - Kausa/ ondorioak

- Parafraasiak
- Betegarriak
- Berformulazioak/ errepikapenak
- Hipotesi formulatzaileak
 - Entonazioa eta ebakera lantzeko

Hona hemen entzutezko ulermena lantzeko zenbait ohar orokor

Ikasketaria ez da testu prozesatzailea, ez du entzuten duen testu baten aurrean informazio karga neurtua baino jasotzeko ahalmenik; komeni da, beraz, ahalik eta gehien zehaztea entzun-jardunaren helburua: ideia nagusiak jasotzea, informazio zehatza jasotzea, testuaren alderdi jakinak lantzea... Ikasketariak, beti ere, helburua ezagutu behar du entzunaldian, egoera errealean bezala, arreta alderdi jakinei eskaini eta entzun-estrategia egokia erabil dezan.

Eskaintzen diren testuen kontestualizazioak garrantzi handia du; kontesturik gabeko testuek zailtasunak gaineratu eta ikasketariari duen ezagupen-ondarea erabiltzea eragozten diote. Askotan entzun aurretik entzungo denaren kontestua —gaia, non jaso, esatariaren/-en ezaugarriak eta abar— argitzea oso garrantzizkoa da. Bestetik, entzun aurretik lexikoari buruzko berri ematea, entzungo den testuak erabiliko duen gaiari buruz ikasketariak dituzten ezagupenak edo esperientzia gogora ekartzea, eta halakoak sustatuko dituzten entzun-aurreko jardun laburrek ikaragarri erraztu lezakete ulermen-prozesua.

Erabil daitezkeen testuei (materialari) dagokienez:

- Testuek helburuaren arabera luze izango dute: zenbat eta zehaztasun eta arreta handiagoa eskatu testuak, orduan eta mugatuagoak izango dira. (10/15 minututik gorako dokumentuek oso helburu zabala behar dute)
- Eredu erreala, benetakoak erabiltzea komeni da. Ildo honetan ahal izanez gero, komenigarria litzateke irakaskuntzan jasotako benetako entzun-materiala erabiltzea.
- Behar komunikatiboetan zehaztu diren testu-mota desberdinak aztertu behar dira, hau da: narrazioak, elkarrizketak, azalpenak, eztabaidak...; honetarako zenbait hitzaldi, irratsaioak eta telebistako materialak oso egokiak dira. Dokumentalak oso aproposak izan daitezke informazioa lortzeko baina ez dira batere egokiak eredu gisa erabiltzeko, bertan erabiltzen den hizkuntza oso urruti dago eta ahozko hizkuntzaren parametroetatik.
- Testu akademizistez kanpo, hizkera arruntean burututako elkarrizketa azkarrak, lekuan lekuko euskalkia erabilita burututakoak, hizkuntza sinkopatua erakusten duten elkarrizketak... erabiltzea ere oso gomendagarria da.

Entzumena landu egin behar da eta ez bakarrik ebaluatu. Entzunaldi ba-koitzean ikasketariaren arrakasta ala porrota neurtu nahi izateak ikasketaria-
rengan frustrazioa sortzeaz gainera, entzutezko ulermenari ikasprozesuan oso egiteko eskasa aitortzea da.

Oso komenigarria da ikasketaria gelako «sasi komunikazio» egoeratik kanpora ateratzea; ikasketaria hitzaldiak antolatu, solaskide desberdinekin ha-
rremanetan jarri, benetako komunikazio-egoeretan jarri eta gestioak egitera bultzatzea komeni da.

6.4. Ahozko adierazpena

Ebaluazio irizpideak diotenaren arabera, ikasketariak HE2rako ikasproze-
suaren amaieran izan behar duen adierazpen-gaitasuna honelakoa izango da:

Batetik, bere jakintzagaiarekin zerikusirik duen gai baten azalpena egi-
teko gai izan behar du, hau da, aurretik egindako gidoi edo eskematxo bat ebakera argiz eta era ordenatuan garatzeko, informazioa eta argumentuen aurkezpena ordena logikoan emateko eta hartzailearen arreta bereganatu eta haren galdera posibleei erantzun egokia emateko gai. Bestetik, era desberdi-
netako ahozko komunikazio-elkarrekintzetan parte hartzeko gai izan behar du. Hau da, unean uneko gaiari buruzko informazio egokia ematen jakin behar du eta bere iritzia eta ikuspuntua azaltzen, baita arrazoitzen eta defendatzen ere, beti ere, egoeraren aldagai desberdinei eta komunikazioaren oinarritzko arauak kasu eginez.

Ikasketariak prozesuaren bukaeran Behar Komunikatiboen atalean ze-
rrendatzen diren bai bakarkako diskurtsoetan baita elkarreraginean ere aritze-
ko gaitasuna eskuratu behar du. Mintzameneko jardunak, beraz, bakarkako diskurtsoa eta elkarrizketa —duala eta anitza— lantzerantz bideratuko dira.

Hizkuntz kalitateari dagokionez, HE2ko ikasketari batek, batetik, behar adinako zehaztasun lexikala, zuzentasun gramatikala, eta ebakera normala erakutsi behar ditu eta, bestetik, behar adinako abiadura, erritmo iraunkorra eta ez etena, erraztasuna eta lotura ahozko adierazpenetan.

Eguneroko jardunari dagokionez aitortu beharra dago askotan irakaste-
gietan burutzen diren mintza-saioetan honelako joera izaten dela:

- Hizketan aritzekoa, aritzeak berak bailekarkio onura mintza-gaitasunari.
- Zuzentasuna bermatzekoa; lan honetan irakaslearen itzala ezinbeste-
kotzat jo izan ohi da gehienetan.

Lehenengoari dagokionez, aritzeari dagokionez alegia, mintza-saioen hel-
buruak ondo zehaztea komeni da eta hauen araberako praktikak bultzatzea gelan.

Zuzentasunaren alorrean, ikasketarien artean hedatua dago zuzentzaile bakarra irakasleak izan behar duen ustea. Egia da irakaslearen egitekoa dela hau, ez ordea irakaslearena bakarrik. *Komeni da ikasketarien artean elkarri*

zuzentzeko beharra sustatzea eta komunikazio orotan feedbacken beharra indartzea. Askotan, ikaskide baten «ez dizut ulertu, errepikatuko duzu mese-dez» edo «aizu, zer esan nahi duzu honekin» batek argibide errealagoak eskain litzake irakaslearen ondorengo akats eta iradokizunen zerrendak baino.

Hau guztia aintzakotzat hartuta, bi eratako ihardunak eratu behar dira mintza-saiotarako:

- Ataza itxiak*. Idatzizko adierazpenaren arloan esan den bezala, batzuetan helburu oso jakin baten atzetik bideratuko dira mintza saioak. Esaterako, funtzio komunikatibo baten inguruan; edo estrategia jakin baten inguruan: parafraseatu, zenbait hutsune betetzeko muletilak erabili, kontzeptuak berformulatu, adibideak eman edota gidoi jakin bati loturik elkarrizketa antzertu. Halakoetan ereduak aztertu eta landu ondoren ataza komunikatibo mugatuak, itxiak erabiltzen dira eta bai ikasketariak bai irakasleek erduetan landutako hizkuntzari baino ez diote erreparatuko, gainontzekoari jaramon handirik egin gabe.
- Ataza irekiak*. Besteetan berriz, eztabaidak, elkarrizketak, azalpenak eta abarrak ataza komunikatibo irikiagoak izaten dira eta nolakotasuna edo hizkuntz kalitatea baztertu gabe egoera komunikatiboan sartu eta beroni erantzutea izango dute helburu. Bigarren hauen kasuan ohar-iradokizun batzuk egitea komeni da:
 - Eztabaidak: eztabaida lantzeko orduan arriskua dago ikasketariak nola hasi edo eztabaida aurrera nola eraman asmatu ezinda gertatzeko. Halakoetan eztabaidarako gai motibagarriak, gaurkotasun handikoak eta hurbiletik bizi direnak erabiltzeaz gain, eztabaida bera *ondo prestatzea komeni da* benetakotasuna izan dezan. Horretarako, *eztabaidagaia ondo zehaztu eta ilustratu behar da*, entzutezko dokumentu baten bidez edota idatzitako testuen bidez, *tesiak eta antitesiak, aldeko eta aurkako elementuak ondo mugatuz*. Bestetik, ikasketari guztien parte hartzea bermatzea ere oso kontuan edukitzeko faktorea da. Horretarako, batzuetan oso *komenigarria da talde txikietan, hiru edo lau laguneko taldeetan alegia, aritzea*, ondoren talde handian txikietan egindakoaren berri eman eta jarraitzeko.
 - Azalpenak: azalpenen harian, sarri askotan geletan ematen den mintzapraktikak duen itxura honela deskriba daiteke: ikasketariak, bakarkako diskurtsoetan nagusiki, azalpena burutzen du eta irakasleak bukaeran zenbait ohar-iradokizun egiten dizkio gainontzeko entzule edo hartzaileak sarritan komunikazio-egoeratik kanpo geratzen direlarik. *Halako jardunak burutzen direnean, beti ez bada ere, komunikazio-egoera errealak simulatzen saiatu beharra dago*. Ikasketariak taldearen aurrean edo talde txikiagoetan azalpenak ematen dituenean *benetako egoeretan ematen den feedback-a bultzatu behar da*. Egoera errealetan gertatzen den legez, azalpenaren ondorengo zerbaite, nolabaiteko erantzuna eskatu behar zaie entzuleei.

Esaterako, hutsune batzuk bete, erantzun fisikoa, ariketa batzuk eginarazi, informazioa kontrastatu, adostasuna ala ez adierazi... Honela, *esatariak etengabeki entzuleen ulermena baloratu behar du* eta horretarako, gaia behin eta berriz errepikatu, kontzeptuak era batera eta bestera berformulatu, azalpena adibide ugariz hornitu... Bide beretik, *hartzailleak*, esataria adoretzeaz gain, *mezua behar bezala jasotzen ahaleginduko dira; esataria ideiak errepikaraztera, argiaraztera eta abarretara behartuko dute, egoera errealetan ematen den elkarreragina sortu eta horrek eskatzen dituen azpigaitasunetan trebatzeko bidea eskainiz.*

Ahozko adierazpena lantzeko zenbait ohar

Gogora ekarri beharra dago ahozko adierazpenaren arloan gainontzekoetan bezalatsu *adierazpen-egoera errealetara jotzea komeni dela*. Ikasketariak bihar irakaslanetan izango dituen behar komunikatiboak betetzeko gaitu behar du. Hau dela eta, 5.000 atalean ikasketariak egingo dituen praktikaldian benetako komunikazio-egoeretan murgiltzeko aukera izango duen arren, irakastegian zenbait egoera simulatzea ere komeni da. Honek ez du esan nahi, ezta gutxiagorik ere, 5.000 ataleko iharduera guztiak irakas-egoera komunikatiboetara bideratu behar direnik, baizik eta oso komenigarria dela praktikaldiaren aurretik eta ondoren ere aldika-aldika irakas-egoera batzuk irakasgelan bertan simulatzea. Honela, tarteka-marteka ikasketaria irakasle/ ikasle roletan jarriko da; beste batzuetan, guraso/ irakasle roletan; inoiz, ikasketarien artean rola banatu eta klaustro modukoren bat simulatzen, horrela, hauen guztien bitartez, ikasketaria zenbait irakas-egoeratan ematen diren errutina eta lexikoarekin harremanetan jar daitekeelarik.

Hizkuntz tailerrek ere bere lekua izan dezakete maila hauetan. Hauen helburua euskararen erabilera gelako jardunetan ohiko ez diren eremuetara bideratzea izaten da, gela barruan ohiko ez diren eginkizunen inguruan sortzen diren roletan aritzea, hain zuzen ere. 4.000 atalean erabil daitezke tailerrek eginkizun jakinen inguruan talde-lana bultzatu eta elkarreraginean eman daitezkeen hizkuntz funtzioen erabilera sustatzeko. Esaterako, albistegi tailerrek, antzerki tailerrek, publizitate tailerrek, eta bestelako hamaikatzok ondorio onak izaten dituzte. 5.000 atalean ere sustatu daiteke halako dinamika eskola-gaien inguruan. Nor bere gaiaren inguruanitsu-itsuan aritu ordez tailerretan jarduteak bidea eskain dezake, oinarrizko eskola-hizkuntza (oinarrizko matematika, geografia, historia, natur zientzia, ebaluazio-hizkuntza) landu eta ondoren nor bere arlo edo mailara egokitzen hasteko. Esaterako, instrukzio-disurtsoa landu eta bakoitzak bere egoerara egokitu beharra suertatzen bada, matematikakoek, adibidez, buruketara egoki dezakete, fisika edo natur-zientzietakoek saiaketetara eraman, lehen hezkuntzakoek eskularen bat egitera. Kontzeptuen definizioen arloan ere beste horrenbeste egin daiteke eta horrela abar luze batean.

Arreta berezia merezi du atal honetan irakurketa ozenak, eskola-emanki-zunetan sarritan ematen den iharduera baita. Komeni da zenbait testu ozen irakurtzea eta doinuera, ebakera eta adierazgarritasuna landu eta ebaluatzea.

Hasieran aritze soilari oso izen onik eman ez bazaio ere, aitortu behar da hizkuntza erabiltzea ezinbesteko baldintza dela ahozko adierazpen-gaitasuna lortzeko. Ikasketariak, jarioa, malgutasuna eta erraztasuna lortzearren, aritzen direla ziurtatu behar da. Honetarako, talde txikietako dinamika bultzatu behar da, frogaturik dago eta, ikasketariak talde txikietan hizkuntza zabalagoa eta hizkuntz funtzio eremu zabalagoa erabiltzen duela talde handietan eta irakaslearen begiradapean baino.

Azkenik, esan gabe doa, *ahozkotasunaren ezaugarriak behin eta berriro landu* behar direla ikasketariaren ahozko diskurtsoak sinesgarritasunik izango badu. Hau hala, ahozkotasunak eskatzen dituen puntu nagusienak —diskurtsoa soiltzea; parafraseatzea; etenaldi eta makuluen erabilera; errepikapenak; ideia eta kontzeptuak birformulatu beharrak; adibide, konparazio, esperientzia eta abarrak erabili beharra; diskurtsoa autozuzendu, berregin, berregituratu beharra...— oso kontuan edukitzekoak dira ahozko adierazpena lantzeko orduan.

6.5. Ikasgelarako aktibitateak

IRAKURRIAREN ULERMENA

- Testuingurua baliatuz hitz jakinen esanahia inferitu
- Testuingurua baliatuz parrafo jakinen eduki/ ideia nagusia inferitu
- Testu bati titulu nagusia eta azpтитuluak eman
- Testu baten ideia nagusiak azpimarratu
- Testu baten eskema egin
- Ordenatu:
 - Luzeraren araberrako bi edo testu nahasi gehiago ordenatu
 - Testu baten parrafoak ordenatu
 - Parrafo baten esaldiak ordenatu
- Testu bati falta zaizkion hitz, esaldi edo parrafoak gehitu
- Testu batek sobran dituen hitz, esaldi edo parrafoak kendu
- Galdera-sorta bati erantzun:
 - AAG erakoak
 - Egia/ Gezurra erakoak
 - Erantzun irekiak erakoak
 - Kuadro edo taula bat osatu erakoak
 - Cloze testak
- Bikoteak elkartu:
 - Galdera eta erantzunak

- Tituluak eta albisteak
 - Gaia eta esaldiak edo parrafoak
- Testuaren baliabide jakinak lantzeko:
- Anaforak markatu eta pronominalizazioa edo ordezkapen lexikala landu
 - Antolatzaileak markatu eta ordezkatu
- Testu bat baino gehiago baliatuz ahozko azalpen bat egiteko eskema garatu.
- Testu-mota jakin baten ezaugarriak testuan markatu: narrazioetan, esaterako denbora nozioak; argudiozko batean, sarrera, argudio eta kontra-argudioak, argudiatzeko formak, ondorioak...
- Arazo jakinak konpontzeko testuetako informazioa erabili. Adibidez: deialdi baten oinarriak eta zenbait lehiakideren ezaugarriak emanda deialdiari hobekien egokitzen zaion lehiakidea aukeratu...; liburuen erreseinak irakurri ondoren adin jakin bateko umeei hobekien egokituko zaien liburua aukeratu eta aukeratu izanaren arrazoiak eman.

IDATZIZKO ADIERAZPENA

- Esaldi multzo baten artetik gaiaren araberako azpimultzoak egin
- Ahoz azalpenak egiteko informazioa aukeratu, ordenatu eta eskemak egin
- Parrafo multzo bat ordenatu eta testua berregin
- Testu baten eskema edo ideia-mapa egin
- Ideia-mapa, ideia zerrenda edo eskema batean oinarrituz testua idatzi
- Hutsuneak bete:
- Testu-antolatzaileak
 - Erreferente jakin baten ordezeko anaforikoak
- Kontestualizatutako parrafo-mota desberdinen antolamendua eta baliabideak landu
- Testu baten sarreratik testuaren gaia eta edukia aurreikusi
- Testu bati sarrera-parrafoa eman
- Testu bati bukaera, ondorio-parrafoa eman
- Sarrera eta ondorio-parrafoak era desberdinetan berridatzi
- Testu baten hasiera eta bukaera emanik garapena zirriboratu
- Puntu eta aparterik ez duen testu baten parrafoak eman
- Parrafo baten sarrera-esaldia eman eta parrafoa osatu, halako bideren bat erabiliz: argudiatu, konparatu edo kontrastea eman, arrazoitu, ondorioztatu, adibidez hornitu, birformulatu ...
- Hiztegiko definizioa berridatzi, kontzeptuak birformulatuz, adibideak emanez...

- Parrafoa eman eta parrafoaren esaldi eratzailera eskatu
- Parrafo bakarreko testuak idatzi, gaia eta garapen modua emanik. Adibidez:
 - Herri garatu/ ez garatuak: bizitza-itxaropena (konparazio-kontrastea)
 - Zure eskolan eleaniztasun goiztiarra jartzeko aintzakotzat har zaitzaten eskatu nahi duzu Lurraldeko Hezkuntz Ordezkaritzan. Horretarako txosten bat idatzi behar duzu eta, atal batean, orain arte esparru horretan egindako lanaren berri eman nahi duzu (narrazioa).
- Testu bat lerro edo hitz-kopuru jakin batean laburtu edo erreseinak egin
- Grafiko batean oinarritutako testu motzak idatzi
- Ikus-entzutezko kanaletan jasotako informazioaren inguruko idatzia egin: erreferentzia hutsa, entzundako zerbaiten aurkako edo aldeko argudiaketa...
- Ikasleek berek idatzitako testuak edo testu-zatiak berridatzi. Irakurketa desberdinak eginik, irizpide jakin baten arabera zuzenketak egin eta berridatzi: informazioaren kantitatea-kalitatea, lokailuen erabilera, ortografia, puntuazioa, erreferentzia-kateak, hitz-ordena, sintaxia- morfologia ...
- Egindako idazlana ikaskideari ozenki irakurri eta ikaskidearen ulertze-mailaren neurriko zuzenketak egin.
- Gai baten inguruan arin, burura momentuan etorritakoa etengabe eta zuzendu eta ezer ezabatu gabe idatzi; ondoren, zirriborroa landu: ideak ordenatu, gehitu, kendu, zuzendu ...

ENTZUTEZKO ULERMENA

- Elkarrizketa batetik informazioa inferitzen ikasi:
 - Solaskideen harremana: gertukoak dira/ hoztasuna/ formalidade maila
 - Gaia
 - Helburua
- 10/ 15 minutuko solasadi baten erreseina egin: gaia, esatariaren/ en jarrrera, helburua,
- Dokumental baten erreseina egin: gaia, erabilera oharra eta gomen-dioak
- Aurrikusi. Konparazio batera, eztabaida baten harian solaskide batek ala besteak emango dituen argumentuak aurrikusi.
- Diskurtso-mota desberdinen ezaugarriak aztertu: antolaketa, baliabideak...

- Diskurtso jakin baten barruan alderdi desberdinak aztertu:
 - Sarrerak; ideiak uztartzeko baliabideak: arrazoiketa, konparazioa, argumentazio motak, suposizioak...
 - Loturak, sekuentziazioak, erreferentziak, zitak...
 - Ahozkoatasunaren ezaugarriak: errepikapenak, adibideak, berformulazioak...
 - Diskurtsoa, edukia zuzentzeko moduak, haria berreskuratzeko baliabideak...
 - Lexikoa, esamoldeak, modismoak...
- Funtzio komunikatiboak landu: funtzio-esaldiak, bestelako baliabideak aztertu...
- Erantzunez landutako entzunketak:
 - AAG erakoak
 - Galdera irekiak erakoak
 - EGIA/GEZURRA erakoak (oso aproposak dira informazio inplizitoari buruzko informazioa lantzeko)
 - Koadroak bete
 - Bestelako erantzunak eskatzen dituzten ariketak:
 - Sekuentziak ordenatu
 - Irudiak egin
 - Lan-iharduerak bideratu
 - Entzutezko eta idatzizko kanaletatik jasotako informazioa kontrastatu
 - Ikaskideen artean informazioa osatu
 - Azalpen bat entzun eta laburpen batekin konparatu: esandakoak/esangabeak antzeman
- Ikus-entzutezko kanaletatik jasotakoa idatzizko kanaletara ekarri:
 - Pasadizo bat kronika bilakatu
 - Eztabaida batean onarrituz, solaskide baten argumentazioa defendatuz eta beste batena baztertuz gutuna idatzi.

AHOZKO ADIERAZPENA

- Argazki/ komiki batean agertzen den iraganeko gertaera-kate bat deskribatu
- Gai/ topiko espezifikoari buruzko iritziak eman
- Elkarrizketa eta diskurtso-estrategiak erabili (adb.: gaia aldatu, informazio osagarria eman, norbaiti hitz egiteko eskatu...)
- Etorkizunari buruzko hipotesiak egin
- Ahozko azalpen baten laburpena egin
- Prozesuak deskribatu

- Ahozko zein idatzizko iturrietako informazioa integratzea eskatzen duten arazoak konpondu, taldeka.
- Elkarrizketa eta diskurtso estrategiak erabili (desadostasuna adierazi, esaten dena baloratu.)
- Prozesu konplexuak diagrama baten laguntzaz deskribatu
- Norberaren iritzia azaldu modalizazioa erabiliz (jarrera funtzioak)
- Gai ezagun bati buruzko azalpenak egin (aldez aurretik prestatu gabe)
- Gai konfliktibo bati buruzko eztabaida egin talde txikietan eta ondoren eztabaidaren ondorioak talde handian agertu
- Balizko plan/ proiektuak eztabaidatu eta adostutakoa agertu
- Irrati/ telebistan ikusitako saio baten berri eman
- Irrati/ telebistan ikus-entzundako elkarrizketa bati buruzko berri eman
- Egunkarietako albisteak elkarri kontatu eta bertsio desberdinak kontrastatu
- Irakurritako liburuen kapituluak edo erreseinak elkarri kontatu
- Zatitan emandako informazioa trukaturaz informazio osoa lortu
- Ikasketariei rola banatu eta simulazioak egin: ebaluazio bilerak, guraso/ irakasle, irakasle/ irakasle ikasle bati buruz, klaustroa...
- Diskurtso-eredu desberdinak landu eta ereduaren araberako ekoizpena egin.
- Ahozko diskurtsoan ematen diren hutsuneak betetzeko estrategiak landu: parafraseatu, entzuleari edo hartzaileari laguntza eskatu, «zera» eta halako betegarriak erabiltzen ikasi...
- Hitz bat eman eta bat-batean hitz horri buruz hitz egin, ezer prestatu gabe, etengabe diskurtsoa zuzendu, berformulatu, berordenatu...
- Zatika-zatika diskurtso zatiak ere ekoiztu. Esaterako: sarrerak, sekuentziazioak, gaiez aldatzeko formulak...
- Nork bere irakasgaiaren inguruko azalpenak egin
- Irakaskuntza munduko gaiei buruzko eztabaidak, azalpenak... burutu
- Zehar lerroetan erabil daitezkeen gaiei buruzko azalpenak, lantzeko metodologia eta abarrei buruzko esperientzia trukaketak burutu.

6.6. Gaitasun linguistikoa

Gaitasun linguistikoa duen hizkuntz erabiltzaileak, morfologia, sintaxia eta lexiko arloan dituen ezaguerak egokitasunez eta zuzentasunez erabiltzen ditu helburu komunikatibo batzuen mesedetan.

Gaitasun gramatikala, beraz, ez da helburua, bitartekoa baizik. Honek esan nahi du edukiekin batera bete ditzaketen funtzio komunikatiboak, erabileraren egokitasun maila eta abar landu behar direla, azken batean ikasketariaren lana edo egin beharra esaldi edo testu zuzen, egoki eta koherenteak sortzea baita.

Gramatika-jardunaldien helburua erabiltzaile trebeak egitea da. Ideia bat era askotan adieraz daiteke eta gaitasun gramatikalak ideia hori adierazteko bitarteko ugari eskaintzen ditu.

Lehen urratsetan, hizkuntz jabekuntzaren hastapenetan, gramatika oso era praktikoa eta funtzionalean erakustea komeni da; halakoetan ikasketariaren lana funtzio komunikatibo jakin batzuk betetzea izango da eta horretarako eduki edo nozio jakinak erabili beharko ditu. Baina, gaitasun gramatikala hazten doan neurrian, helburua funtzio komunikatiboak gero eta zehaztasun eta egokitasun handiagoz betetzea izango da.

Gaitasun gramatikal mugatua duen ikasketariak gramatika falta hori agerian uzten du ekoizten dituen testuetan. Halakoetan sarritan aurki daitezke:

- Bukatu gabeko esaldiak
- Komuztadura arazoak
- Menpeko esaldiak erabiltzeko ezintasuna
- Lokailu gutxi batzuen amaierarik gabeko errepikapena (gero, gero ... eta, eta...)
- Esaldi luzeak josteko arazoak
- Puntuazioaren erabilera makurra...

Hala ere, ahozko bat-bateko hizkuntzan, hutsune hauek, elkarreraginak, etengabeko esanahia negoziatu beharrak, imintzioek, keinuek eta abarrek esaltzen dituzte, ez hala, ordea bakarrik formal eta idatzizko adierazpenetan. Hauek, elkarreragirik ez duten hauek, gramatikaren erabilpen osoagoa, zuzenagoa eta zehatzagoa eskatzen dute, ez baitute bestelako biderik esanahia era argi eta ulergarrian bideratzeko.

Gaitasun gramatikalaren egitekoak erakusten du, beraz, gramatika-eman-kizunetan lortu behar dena. Hona hemen gramatika lantzen dugunean izan behar diren helburuak:

4.000n, batez ere, ikasketaria ezagutzen ez dituen edukiak erabiltzera bultzatuko dugu. Horretarako ereduak eskainiko zaizkio hasieran eta ondoren erabilera bultzatuko da, beti ere zertarakoa, funtzioa, garbi adieraziz eta esangura duen ataza batean erabilaraziz. Ariketa analitikoak, errepikapenak eta halakoak, inguramendu komunikatibo garbirik ez duten ariketok ere bere lekua izango dute gaitasun gramatikala areagotzeko momentuan.

5.000n, berriz, ikasketariak, ezagutu, ezagutuko ditu edukirik gehienak eta erabili ere egingo ditu. Hala ere, hizkuntza malgutasunez erabili beharko du eta horretarako gai izan behar du, besteak beste: edukiak ordezkatzeko, aldatzeko, modalizazioa eskaintzeko, ordenatzeko, alderdi jakinak azpimarkatzeko, errepikatzen ... Laburbilduz, gramatika, Atal honetan ez da landuko eduki berriak ezagutzeko, baizik eta beste bi helburu nagusi hauek lortzeko: batetik zuzentasuna eta bestetik malgutasuna, zehaztasuna eta egokitasuna.

Esandakoaren harian gramatika lantzeko baliabideek hizkuntzalaritzaren bidea saihestu behar dute eta hizkuntzaren erabilera izan behar dute ardatz.

Hona hemen ohiko ariketa analitiko, Cloze-test eta abarrez gain morfo-sintaxia era osoago eta errealagoan lantzeko zenbait ideia edo ariketa.

Esaldia eta parrafoaren mailakoak

1. Esaldia zabaldu: esaldi batetik abiatu eta esaldia jantzi. Esaldi lokabe bat edo parrafo baten hasierako esaldia eman eta zabaltzea eskatu, erlazio logiko jakina ezarriz: kontrastea, arrazoiketa, adibidea...

2. Esaldia desegin: esaldi bakar batez osatutako parrafoa eman eta berau berridatzi esaldi laburragoak erabiliz.

Adb: Hona hemen testu liburu batetik ateratako parrafoa. Irakur ezazu arretaz eta testua errazten saia zaitetz: Esaldiak berridatzi, moztu...

«Hau egin ahal izan zen, lehenik konkistatutako herriak (estatu amerikar gutxi batzuk, nazio aborigen gehienek aurre egin bait zuten) gauza izan ez zirelako garaiz erreakzionatzeko gainera etorri zitzaizenaren tamaina danteskoaren aurrean, eta inbasoreek egoera bera mantetzeko bortxaketa fisikoa eta ideologikoa, arrazakeria aberegarrian, iraganaren mistifikazioan, beste kulturekiko arbuioan eta, azken finean, beste gizarte desberdinen funtzionamendua ulertzeko gaitasun ezean oinarritutako sistema konpultsibo konplexu bat eratu zutelako; eta bigarrenik, herri haietan zilar-meatoki ikaragarriak aurkitu zituztelako, per se balioa ematen zitzaion ondare eszedentarigarri»²

3. Esaldiak berridatzi: batzuetan berridazketan erabili beharreko eduki jakin bat eskainiko zaie ikasketariei. Besteetan, berriz, ikasketariak berak aukeratu du berridazteko bidea. Ariketa hauetan ez da komeni berridazketak oso muturrera eramatea. Hobe da maiz erabiltzen diren egiturak erabiltzea. Adb:

Tabakoaren kanpaina dela eta, lege aurretik jendeaurreko zerbitzuei betetzea dagozkien arauak zehatz-mehatz jakin nahi genituzke ahal bezain laster.

.....-nez ahalik etabidal

Egia al da datorren ikasturtean aurten baino hamar eskola-egun gehiago izango ditugula ?

..... egiaztatu

4. Esaldiak osatu: ikasketariei izen eta aditz multzo bat emango zaie eta hauek atzizkiak, juntagailuak, menderagailuak, lokailuak (loturak) eman beharko dituzte esaldia osatzeko.

² Adibide hau «ldazkera-liburua»tik (Jose Ramon Zubimendi eta Pello Esnal) jasoa da.

5. Esaldiak lotu: bizpahiru esaldi bakun emanik konplexuago bat osatu behar dute. Adb:³

Ezetz emango diet. Uste dut. Biharko zeregin ugari dut. Ez dut astirik.

.....

Lan-talde bidez eutsi diogu gaiari. Bataren iritziak, bestearen ikuspuntu bereziak, bestearen xehetasunak bildu ditugu. Lan ederra burutuko genuke-ela uste genuen.

.....

6. Esaldia hobetu: ariketa hau oso emankorra izan daiteke zuzenketa egiteko, idatzitakoa zuzendu edo hobetzeko. Honetarako, ikasketariak be-
raiek idatzitako testuetako zatiak erabiltzea komeni da. Adb:

*Gaur egun gosea oso modan dagoen gai bat da. Guztiok oso ezagunak ditugu goseaz arduratzen diren organizazio ez gubernamentalak, baina, bada-
dira organizazio hauek egokiak elikagaiak hirugarren mundura hel daitezen?.
Nik uste dut galdera hau hainbat jendek egin diola bere buruari, nik behintzat
hainbat aldiz egin diot, zeren eta egunkariak irakurtzen ditugunean, edota te-
lebista albisteak ikustean konturatzen gara gauza asko, elikagaiak, diruak,
jantziak... bidean gelditzen direla, heldu gabeko tokira heldu gabe. Ez, hone-
kin ez dut esan nahi organizazio guztiek berdin egiten dutela, «medikos sin
fronteras» delako organizazioak asko egin du bai gosea eta bai gaisotasunak
konpontzeko, edota umeei ikasketak, jatekoa, jantziak... ordaintzeko egunero
100 pezeta eskatzen dutenak ere. Baina baude beste batzuk...*

*Nik uste dut tontokeria asko ditugula eta gu oso ondo biziz gero berdin
zaigula besteak nola bizi diren. Diru larregi gastatzen dugu armetan, adibi-
dez. Zertarako horrenbeste diru, jendea hiltzeko ?, hobe diru horren erdia hi-
rugarren edo ez hirugarren mundukoei ematen badiegu ikasketa, jateko...
egokiak eduki ditzaten, bestela ordaintzen dugun zergen %0,7 famatu hori,
gai hauentzat erabiltzea izan beharko genuke.⁴*

7. Puntuazio ikurrak jarri: ariketa hau ez da oso samurra izaten. Komeni
da zailtasuna mailakatzea eta batzuetan puntu batzuk ematea.

6.7. Itzulpena

Maila hauetan eta 5000n, batez ere, itzulpena oso tresna erabilgarria izan
daiteke aurreko pasarteetan aipatu den malgutasuna, egokitasuna eta zehaz-

³ Adibideak Joseba Ezeizaren «Testuaren Harrian» liburutik hartuak dira.

⁴ Adibide hau ikasketarien idazlanetan jasoa da.

tasuna lortzeko. Arrazoi bat baino gehiago dago itzulpenaren teknika bultzatzeko. Hona hemen halako batzuk:

Ezin ahaztu daiteke ikasketarien artean lehen hizkuntzak pisu handia duela. Ideiak garatzeko prozesu kognitiboetan, pentsamenduaren konplexotasuna areagotzen den neurrian, ikasketariek bere lehen hizkuntzara jo beharra izaten dute eta itzulpenaren mekanismoa maiz erabiltzen dute.

Bestalde, gaurko joera didaktikoek hausnarketa sakonak egin eta gero berriro ere itzulpenen balioa berretsi dute. Hauek diotenez, ikasketa edo jakabekuntza prozesu orotan eragin handia du aurretik ikasitakoak. Hizkuntzen jakabekuntzan, honek esan nahi du bigarren hizkuntza ikasten ari den ikasketariak kontuan izango duela bere ama hizkuntzan duen ezagutza. Beraz honek ere itzulpenaren baliagarritasuna indartzen du.

Azkenik ikasketariek behin baino gehiagotan jo behar izaten dute inguruko erdaratara material didaktikoa, apunteak eta abar prestatzeko; halakoe-tan ere itzulpenera jo behar izaten dute maiz.

Beraz itzulpen teknika bazter ezin daitekeen teknika dugu, baina, neurrian eta helburu jakinekin baino ez erabiltzeko gomendioa egin behar da.

Gure kasuan baliagarria izan dakigukeen itzulpena, itzulpen didaktikoa da. Ikaste prozesuan, itzulpena adierazpena hobetzeko bidetzat hartu behar dugu eta, kontraesana dirudien arren, lehen hizkuntzaren kalko estuetatik ihes egiteko bide gisa.

Ildo honetan azpimarratu behar da ikasketariak bigarren hizkuntza erabiltzen gaitu behar ditugula. Pentsamendu konplexuenak adierazteko ere bigarren hizkuntzan dituzten baliabideak erabiltzen ohitu behar dute eta hala erabiliko dituzte zenbait mekanismoren jabe egiten diren neurrian. Baina itzulpena erabili behar dutenean hiru gomendio hauek izango dituzte beti gogoan:

- Jatorriko testua ondo ulertu behar da
- Testua eta testu ingurua izan behar dira kontuan
- Testua eta ingurua bigarren hizkuntzan isladatzen ahalegindu behar da, beti ere, hitzez hitzeko itzulpenetatik ihes eginez.

Itzulpena, beraz, oso baliagarria izan daiteke ikasketariek sarritan idatzietan egiten duten erdaratiko itzulpen estuetatik ihes egin eta euskara samurragoa, benetakoagoa eta irakurterazagoa ekoizteko.

7. ERANSKINAK

7.1. Egokitasuna

Komunikazioa egoera desberdinetan gerta daiteke eta kontestu hauetara errenditu behar dira diskurtsoak eta testuak. Egokitasuna edo koherentzia kontestuala testua ingurunearekin lotzeko propietateari dagokio, hots, testua bere kontestualekiko egokia izateari. Badu zerikusirik, beraz, hiztunarekin eta hartzailearekin, asmo komunikatiboarekin, ekoizteko eta hartzeko bidearekin...

Kontestuaren osagai fisikoak eta sozialak gogoan izanik, honako kontzeptu hauek baliatuko ditugu testuaren eta ingurunearen arteko harremanak isladatzeko: erregistroa, subjektibitatearen adierazpena eta testu-mota.

7.1.1. Erregistroa

Errealitate bakoitzak hizketa-modu berezia eskatzen du; izan ere, hiztunak bere behar eta ingurune komunikatibora egokitu behar du testua. Hortik sortzen den hizkuntz erabilera-mota bakoitzari erregistro deitzen zaio.

Horrenbestez, kontestua osatzen duten elementuek (NORK, NOREKIN, ZERTAZ, NOLA... aritu, alegia) baldintzatzen dute erregistro bat ala bestea erabiltzea, ondoren aipatuko ditugun faktoreen arabera. Dena den, erregistroa ez da ulertu behar gauza finko eta egonkor gisa, bi muturren artean gauzatutako continuum bat bezala baizik.

Laburbilduz, honako faktore hauek bereiz daitezke:

GAIA

Oinarrizko banaketa honako bi hauen artean ematen da: *gai orokorra* (aparteko jakintza berezirik eskatzen ez duena) eta *espezifikoa* (gai jakin baten eskatzen duen zehaztasun lexikoa, esamolde bereziak, formulak, sinta-

xia...). Garbi dago hartzaileak ere baldintzatzen duela gaiaren garapen-modua: ez da gauza bera enuntziatzailea eta hartzailea maila berekoak direnean edo hartzailea maila apalagokoa denean (dibulгатiboa, azalpena...).

Gaia	<i>Orokorra</i> : edozein hiztunentzako modukoa, hizkera arrunta, sintaxi librea, subjektiboagoa...
	<i>Espezifikoa</i> : teknizismoak, kultismoak, sintaxi konplexuagoa, abstrakzio maila handia, objektiboagoa...

HE2ko ikasketariak irakaskuntzako gaiez jardun beharko dutenez, honako hauek ikasi beharko dituzte, besteak beste: irakaskuntzako lexiko orokorra (*DBH, DBHO, arlo, jakintzagai, mintegi-bilera...*), ebaluaziorako nozioak (ikasleen deskribapen fisikoa zein beren izaera eta jokabideena...), Lehen Hezkuntzako lexikoa eta nozioak (zenbakiak, eragiketak, animalien izenak...) Bigarren Hezkuntzan norberaren arloari dagozkion lexiko eta nozioak (historikoa, matematikakoa...)...

FORMALTASUN-MAILA

Formaltasun-maila erlazio sozialarekin lotuta dago eta, beraz, seriotasunez eta handikiro aritzetik etxekotasun eta konfiantza handienean jardutera lihoake mailaketa hori.

Formaltasun-maila	<i>Jasoa</i> : objektiboa (ez-deixia, zehar estiloa...), zehaztasuna, ahoskera zaindua, landua, idatziari dagokiona (agurrak, data...). Esaterako: eskabideetan, testu akademikoetan, komunikabideetan, gutun formaletan...
	<i>Ez-formala (kolokiala)</i> : subjektiboa (deixia, ironia, estilo zuzena...), ez-landua edo bat-batekoa, lexiko arrunta (<i>izorratu, kristona...</i>), hurbiltasuna adierazteko esapideak (<i>polit hori, potxua...</i>), hitanoa (<i>isilik egon hadi! egina zagok!...</i>), txisteak, txantxak...

Gure ikasketariak kontuan hartu behar du, besteak beste, hizkuntzaren erabilera jendaurrekoa den (klase-emankizuna, eskola-kontseilua, klaustroa...) edo maila pribatuan (lagunartean...) ematen den, hartzailea nor den (gurasoak, administrazioa...), etab.

KANALA

Errealitatean egoera asko eman badaitezke ere (ozenki irakurtzeko idatzia izan, testu idatziak baina bat-batekoak balira bezala ahoskatzeko, dekla-

matzeko, errezitatzeko...), hemen, ematen den bereizketa nagusia eta bakoitzari dagozkion ezaugarriak aipatuko ditugu.

Kanala edo bidea	<i>Idatzizkoa</i> : landua, prestatutakoa, diferitua (denboran), iraunkorra, hartzailea(k) aparte (elkarreraginik ez), batuaz, koherentzia eta kohesioaren kontrol handia, jasoagoa, sintaxi konplexua, lexiko zehatz eta kultoagoa, keinurik ez...
	<i>Ahozkoa</i> : bat-batekoa (aurretiko eskema gora-behera), berehalakoa, iragankorra, koherentzia eta kohesioaren kontrol txikiagoa (digresioak, errepikapenak, norabide aldatzeak...), buruz burukoa (elkarreraginezkoa), sinkopak, sintaxi simple eta laburragoa, ez oso formala, lexiko orokorra eta zabala (makuluak eta onomatopeiak barne), keinuak...

7.1.2. Diskurtso objektiboa eta diskurtso subjektiboa

Hiztunak beti hartzen du posizio bat diosenari buruz, dela jarrera bat, afektiboa denean, dela iritzi bat, intelektuala edo kognitiboa denean. Subjektuak testua moldatu egiten du bere burua erakutsiz edota izkutatuz: bere iritzia ematen du azken finean, zehar bidez edo era esplizituan. Hiztuna modu agerian eta esplizituan agertzen denean, bere baieztapenen balorazio-iturri gisa agertzen denean alegia, *diskurtso subjektiboa* sortuko da. Kontrara, agerpen horren ezaugarriak ezabatu eta testuaren atzean izkutatzen denean *diskurtso objektiboa*.

Esan behar da subjektibo/ objektibo bereizketa honek, orohar, baduela bere eragina erabili beharreko testu-mota eta erregistroan. Honela:

Subjektuaren agerpena	<i>Objektiboa</i> : azalpen formala, hizkera teknikoa, administratiboa...
	<i>Subjektiboa</i> : iritzi-artikuluak, kritika, hizkera kolokiala...

Hizkuntzak badu baliabide-multzo bat hiztunaren subjektibitatea adierazteko: subjektuaren agerpena (deixia), desdoblamendua (polifonia) eta bere iritzi edo jarreraren adierazpena (modalizazioa).

DISKURTSO SUBJEKTIBOA	DISKURTSO OBJEKTIBOA
— Subjektua erakustea (deixia)	— Ez-subjektua erakustea (ez deixia)
— Desdoblamendua	— Ez desdoblamendua
— Modalizazioa	— Desmodalizazioa

DEIXIA

Diskurtsoak inguruneari egiten dio erreferentzia eta hau era askotakoa izan daiteke: diskurtso barruko elementuei aipamen egiten diena (kotes-tuala), hots, erreferentzia *endoforikoa* (anafora, elipsia, katafora...), kohesioari dagokiona; eta enuntziazioaren denbora, espazio edo pertsonen koordenadei erreferentzia egiten diena edo *deixia*. Honela:

- Pertsona-deixia: *Ni* alde batetik, eta, bestetik, *ni* horretatik kanpo daudenak edo buruz burukoak: *Zu/Hi* eta *Bera* aurrean daudenean, ez anaforikoa.
- Toki-deixia: *Hemen, hor, han...*
- Denbora-deixiak: *Gaur, bihar, etzi, etzidamu, atzo, herenegun...*
Hauekin guztiokin batera zenbait leku-adberbio eta denbora-adberbio zein aditz-jokaera (nago, duzu...).

Funtzio deiktikoa eta anaforikoa hobeto bereizteko, hona hemen pertsona gramatikalari dagokion eskema:

1. eta 2. pertsona gramatikalak	3. pertsona gramatikala
Enuntziazioaren pertsonak	Ez-pertsona
Funtzio deiktikoa	Funtzio anaforikoa
Unean uneko diskurtsoa (elkarrizketa)	Diskurtso historiko edo narratiboa

Era berean, adberbio deiktiko eta anaforiko edo kontestualak bereizteko:

	DEIKTIKOAK	ANAFORIKO edo KOTESTUALAK
Aldiberekotasuna	<i>orain, une honetan gaur, aurten gaur goizean, hil honetan...</i>	<i>orduan, une hartan, egun hartan, urte hartan, goiz hartan, hil hartan...</i>
Iragana	<i>atzo, herenegun, iaz, joan den astean... duela gutxi, arestian...</i>	<i>bezperan, aurreko urtean, hilabete lehen (xe)ago...</i>
Geroa	<i>bihar, etzi, etzidamu, aurre- rantzean, gero, datorren ur- tean...</i>	<i>biharamunean, bi egunen buruan, handik aurrera, ge- rora, hurrengo urtean...</i>

Deiktiko hauen bitartez edozein diskurtso narratibo elkarrizketa izatera pasa daiteke pertsona, modu eta denboraren aditz-morfemak aldatuz, eta, alderantziz, elkarrizketa diskurtso narratibo bihur daiteke elementu anaforikoen bidez numero eta aspektuaren aditz-morfemak erabiliz.

DESDOBLAMENDUA

Enunziatu edo testu batean ahots edo ikuspuntu desberdinak egon daitezke: alde batetik, diskurtsoaren subjektua dago, bere gain dago testuaren ardura. Bestetik, sortutako enunziaztailea edo ikuspuntu bat hartzen duen pertsonaia. Esan daiteke bi hauen artean dagoen erlazioa literaturan egilea eta pertsonaiaren artekoaren parekoa dela.

Ikus dezagun adibide bat:

Orduan dena alpargata zen. Komunioan ez bazen, gainontzean alpargategin ibiltzen zen jende guztia.

Emakumeak alpargata grisak, ganean lore gorriarekin edo txuriarekin edo urdinarekin, ibiltzen zituzten. Alpargaterira joan eta «ea zein nahi duzun» galdetzen zuten; eta «nik lore hau nahi dut», eta lore hura haiek berak bordatzen zuten. Orain baino alpargata dotoreagoak ziren orduan.

Gizonezkoek, berriz, ondo behar bazuten, alpargata txuriak ibiltzen zituzten. Gero ere, nere gizona, apustua jokatzera alpargata txuriekin joaten zen.

Gure aitak ez zuen abarkarik ibiltzen. Jose Bernardo Errekaldeko horrek bai; baina Donostirako. Hala esaten zuen gure aitak:

«Bai; horrek bazekik non nola apaindu: Donostira traje ederrarekin bai, baina abarkekin, azpantar txuriekin eta ia belaunetaraino bueltaka-bueltaka lotutako sokakin joango duk, como casero. Baina Amezketara, han denak abarkekin ibiltzen dituk eta zapatekin joaten duk. Horri distinto gustatzen zaio; distinto».

(Pello Errotaren bizitza Mikaela Elixegik kontatua)

Hemen subjektua edo kontalaria dago (era esplizituan ere bai, zeharka bada ere *nere*, *gure* horietan). Baina hau beste enunziaztaileetan desdoblazten da: dendako saltzaile eta erosleak (elkarrizketan eta 1. eta 2. pertsonak erabiliz: *nik*, *duzu*). Beste pertsonaia bat sortzen du: bere aita (honek hitanoa darabil, gizonezkoekin hitzegiten balego bezala, eta ez bere alabarekin: *bazekik*, *dituk*); gainera *como casero* horrek kaletarren ahotsa jaso eta errepikatzen du; aurretik inork esandako enunziaztaia errepikatzeko fenomenoari *oihartzun* deritzaio.

Subjektuak desdoblazteko nola jokatzeko duen hobeto argitzearren, ikus dezagun, goiko adibidearekin jarraituz, honen inguruko fenomenoak:

—Estilo Zuzena: *Alpargaterira joan eta «ea zein nahi duzun» galdetzen zuten; eta «nik lore hau nahi dut» esaldian ikus dezakegu nola subjektu kontatzaileak lehen aldian dagoena bere gain hartzen duen; komatxo artean dagoena, berriz, orainaldian adierazia, beste norbaitzuei dagokie, ustezko saltzaile eta erosleei alegia. Orobat aita pertsonaia enunziaztaile dagoen azken pasarteetan. Enunziaztaile-aldaketa honek baliabide gramatikaletan du bere ispilu: deixian, arestian ikusi bezala, aditz-denbo-*

- ran (orainaldia), entonazioan (tonua aldatzea)... Era berean, grafikoki ere adierazi ohi da: komatxoak, gidoiak, letra etzana... Oso erabiliak dira, halaber, komunikazio-aditzak, hots, informazioa emateko erabiltzen direnak edo *verba dicendi*, esaterako: *esan, adierazi, jakinarazi, erantzun, galdetu, gaineratu, ziurtatu, agindu*... Estilo zuzenak dramatismoa damaio testuari eta gehiago begiratzen dio adierazteko moduari, edukiari baino.
- Errepikapena: enuntziatzaileak aurretik inork esandakoa errepikatzea edo *oihartzun* deritzana. Adibidez, *como casero* horretan kaletarren ahotsa edo ikuspuntua jaso eta errepikatu bide du aitak. Ildo beretik, gogoratu, esaterako, argudiozko testuetan kontrako tesiaren aurrean egiten den kontzesioan, modalizatzaile bat erabiliz (*egia da*...kasu), kontrarioaren ikuspuntuaren oihartzuna ere jasotzen dela, jarraian enuntziatzailearena kontrajartzeko den arren. Hemen ere: «*Donostira traje ederrarekin bai, baina abarkekin... joango duk*».
 - Ironia: hau ere norbaitek aurretik esandakoa errepikatzea da, edo oihartzuna; baina kasu honetan, bere jatorrizko edukia era barregarrian aldatuz, enuntziatuaren edota bere egilearen kontra agertzeko. Badu txantxa-zentzua eta entonazio bereziaz adierazi ohi da. Azken batean subjektua honek onartzen ez duen enuntziatzailean desdoblatzea da fenomeno hau. Adibidez: *Bai, horrek bazekik non nola apaindu*. Aitak (suposatzen da norbaitek esan duela Jose Bernardok badakiela nola jantzi, edo joku hori egiten du behintzat) hori esatean justu kontrakoa adierazi nahi izateaz aparte, beste zerbait gehiago lortu nahi du (beste farregarri utzi, horrelako jokabideaz bere jarrera azaldu...). Antzera «*distinto*» horrekin: kaletarrena bide den esaera errepikatu, baina zentzu peioratibo batekin oraingoan.
 - Ukazioa: jo dezagun, *Baina Amezketara, han denak abarkekin ibiltzen dituk eta zapatekin joaten duk* esan ordez, hauxe dioela: *Amezketara ez da abarkekin joango, hara zapatekin joango da*. Jakintzat ematen du nola jazten diren Amezketan eta besteak hori ez duela egiten esatera-koan nabarmendu egiten du honen jokabidea.

MODALIZAZIOA

Termino honek esanahi desberdinak ditu eta irakurketa desberdinak egon daitezke betetzen duen funtzio eta lekuaz. Honela, gramatiketan ikuspuntu formala (morfosintaktikoa) eta nozionala (semantikoa) hartzen dira kontuan. Ikuspuntu diskurtsibotik, ordea, mugak ez daude garbi: kate diskurtsiboan elementu libretzat jotzen da, ingurune sozialaren parametroen eta testu-antolatzaileen (kohesioa) artean dagoena. Hori dela eta, batzuetan kasik diskurtso-antolatzaile gisa azter daiteke eta besteetan, kontestura egokitzeko jokatzen duen funtzioaren arabera (erregistroetan, testu-motetan, diskurtso subjektiboan...).

Dena den, guk hemen honela definituko dugu: modalizazioa, hitzunak berak esaten duenarekiko hartzen duen jarrera (ziurtasuna, zalantza, beharra, balorazioa...) edo inplikazioari deritzo, beti ere ikuspuntu objektibo edo neu-

tral batetik haratago. Adibidez, *berandu da antzerkira joateko* asertzio edo baiezpenean enuntziatzaileak, ikusle edo begirale neutrala bailitzan, konpromezu bat hartzen du: baieztatzen ari den hori benetan hala dela denentzat. Baina, esaten badu *honezkeru berandu da* edo *berandu izan behar du* edo *berandu bide da* aldatu egiten du konpromezu hori: dioena ez da egia objektiboa; bere gogotik ateratzen den ikuspuntua baizik (esaten da modalizazioa esanguraren eremuan *bai* eta *ez* artean dagoen bitartea dela).

Modalizazioak ahalbidetzen du hiztunari buruzko informazio gehiago edukitzea, hala nola honek elkarreraginean solaskideekiko erlazioak mantentzeko eta indartzeko erabiltzen duen estrategiaz. Hain zuzen ere modalizazioa da enuntziatzaileak bere iharduera diskurtsiboaren gainean duen azken kontrola.

Modalizatzaileak asko dira eta testu antolatzaileetatik oso hurbil badaude ere (zaila da batzuetan iritzi-bideratzaileetatik bereiztea, adibidez: *uste dut*, *nire iritzirako*, *iruditzen zait*, *nire ustez*, *jakina denez*, modalizatzaileak ere bada dira honako adibidean bezala: *bihar eguraldi ona egingo du*, *uste dut*), lau ardatz inguruan sailkatu ohi dira:

Ziurtasuna	<ul style="list-style-type: none"> — <i>Jakina, noski, benetan, dudarik gabe, zalantza barik, ez-bairik gabe, seguru, zinez, hori bai...</i> — <i>Egia da, badakigu, argi dago, bistan da(go), zer esanik ez, ezin uka, segur da, ziur egon... (-eLA /-eNA).</i> — <i>Jakina denez, denok dakigunez...</i>
Probabilitatea	<ul style="list-style-type: none"> — <i>Agian, antza denez, badaezpada, beharbada, diotenez, dirudienez, ematen duenez, inondik ere, nire iritzirako, nire ustez, nik dakidala, nik dakidanez, nonbait, onenean, seguruenik, segurutik, ziurrenera,...</i> — <i>Badirudi, esan daiteke, iruditzen zait, pentsa dezakegu, uste (bait) dut... (-eLA), baliteke, gerta liteke, litekeena da, espero da (dut-dugu)... (-TzEA), beldur izan ez ote...</i> — <i>Omen, ei, ote, bide.</i> — Aditzaren geroaldia: <i>-ko da, -ko zen; ahalera: zitekeen, liteke...</i>
Beharra	<ul style="list-style-type: none"> — <i>Derrigorrez, ezinbestez, ezinbestean, halabeharrez, nahitaez...</i> — <i>Beharrezkoa da, ezinbestekoa da... (-TzEA), ...behar da.</i>
Balorazioa	<ul style="list-style-type: none"> — <i>Damurik, tamalez, zorionez, zoritxarrez...</i> — <i>Eskerrak...!, gaitzerdi...!</i> — <i>Aski da, bidezkoa da, ikusgarria, lotsagarria... deritzogu, ondo dago, ondo legoke, primeran dago, sinestezina da, tamalgarria da...</i> — <i>Espero izan, deitoratu, desio izan, harritu, irrikatu, nahi izan, opa izan, poztu...</i> — <i>Gehiegi/ gutxiegi, asko/ gutxi, izugarri, ikaragarri, nahikoa, samar, dexente...luze, zabal, handia...</i>

Modalizazioaren erabilera nahikoa librea da eta erabiltze-maila desberdinez hitzeging beharra dago: ea testu batean modalizazioaren erabilera-indizea oso altua ala baxua den, non eta zertarako agertzen den.... Irizpide orokor gisa, esateriak zenbat eta gehiago *negoziatu* behar izan bere mezuan dioena, hainbat eta gehiago modalizatu beharra gertatuko zaio eta, aldiz, zenbat eta objektiboago, orduan eta gutxiago (ahozko elkarreraginean askoz gehiago, esaterako, idatzi zientifikoetan baino).

Sailkapen osoa ematea ezinezkoa bada ere, ikus ditzagun adibide batzuk:

- Galdera erretorikoak luzatzerakoan, titulu batean irakurlearen arreta bereganatzeko, adibidez: *Euskara hizkuntza sexista ote?*
- Iritzi orokorreko argudioak egiterakoan, sarrerako pasartean, kasu, irakurlearekiko konplizitatea lortzeko, esaterako: **Denok dakigu** *genero gramatikala bereizten duten hizkuntzak halako bereizketarik egiten ez dutenak baino sexistagoak izaten direla*
- Argudio bat azpimarratzeko: **Argi dago** *euskarak ez duela genero gramatikalik.*
- Ideia baten aurrean kontzesio bat egiteko kontrakotasuna agertu aurretik: argudiozko testuetan, esaterako, oso erabiliak: **Egia da** *genero-eza lagungarri gertatzen dela sexismo auzian. Baina badira emakumea isilpean uzteko beste modu batzuk ere.*
- Ondorioak ateratzerakoan: *Beraz, «gizaki» bezalako hitzak erabili **beharko** genituzke «gizon» hitzaren ordez.*
- Balorazioak egiteko: **Zorionez**, *gero eta hedatuago dago erabilera hau.*
- Hipotesiak azaltzerakoan: *Dinosaurioak meteorito baten eztrandaren eraginez desargetu **bide** ziren. Hori gertatu izan ez balitz, **agian**, gaurko gizakiak ezkatak izango lituzke.*
- Zerbait kontatzerakoan: *Ba **omen** zen behin zapatari bat... Istripua hiruretan gertatu **omen** da. Lan hau, **nonbait**, geroko utzi zuen ...*
- Aginduak edo aholkuak ematerakoan, sekuentzi egitura duten instrukzioetan, konparazio batera: *plazaraino zuzen joan eta bertan ezkerretara hartu **behar da**. Orobat aholkuak emateko orduan: ume miopea urtero aztertu **beharko litzateke**.*

Bestalde, modalizazioaren erabilera-indizeak badu erlazio nahiko zuzena komunikazioaren formalitate edo instituzionalizazio-mailarekin. Izan ere, esandakoa-
rekiko jarrera subjektiboa nekezago emango da formalitate handiko testuetan.

Hona hemen adibide batzuk:

- Agiri eta inprimaki ofizialetan (gutunak, eskabide-orriak, ediktuak, dekretuak, aginduak, erabakiak, egiaztagiriak, baimenak, ofizioak, ordainagiriak, iragarkiak...). Modalizazio-indizea baxua izaten da. Eskola-zuzendari batentzat, esaterako, desegokia litzateke: «idazki honen bidez egiaztatzen dut, *nire ustez*, urlia ikasleak behar besteko gaitasuna duela...».

- Erljio kutsuko testu gehienetan ere, Elizen Arteko Biblian kasu, Jaungoikoaren hitza ikutu ezina delako batetik, eta idazleak —ebanjelio-egileak, esaterako— kontatzen duten gertakarian fedearen ikuspuntutik konprometiturik daudelako bestetik, oso modalizatzaile gutxi agertuko dira, egoera berezietan ez bada.
- Instrukziozko edo aginduzkoetan, hots, agindu, arau, aholkuak... esplizitu egiten direnetan. Hemen ere, testuok duten kutsu normatiboaren ondorioz, mezua hertsia izan ohi da, hots, ez dago esaten denarekiko tarterik hartzerik. *Beharra*, ordea, oso erabilia da honelakoetan.
- Testu akademikoetan eskuarki modalizatzaile gutxi erabiltzen dira. Izan ere, diskurtso zientifikoan kontzeptuak ez dira frogatzen, erakusten baizik. Beraz, esatariak, bere jarreraz baino gehiago, unibertsaltzat jotzen den errealitateaz dihardu. Adibidez, «bi punturen arteko distantziarik laburrena marra zuzena da, *zalantzarik gabe*», guztiz lekuz kanpo legoke.

Dena dela, hipotesiak formulatzerakoan, hain zuzen ere oraindik egia unibertsala ez den heinean, baizik eta norbaitek oraindik ikuskizun dagoen zerbaiten gainean luzaturiko suposizioa, sarritan agertuko dira modalizatzaileak, *probabilitate* adierazleak batez ere. Honela, esaterako, *bide* partikula, *omen* ez bezala, oso aproposa da gertaera baten balizko arrazoiak azaltzeko. Era berean, goiko adibidean bestelako aukerak baztertu ondoren, irakaslea ikasleekin batera hipotesi hori frogatzera iritsiz gero, zilegi litzateke: «Beraz, *argi dago* bi punturen arteko (...) marra zuzena dela».

7.1.3. *Testu mota*

Orokorrean, erreferentea (edukia) edo parametro materiala (lekua, denbora...) eta soziala (xede, estatusa...), batetik, eta, bestetik, ekoiztuko den testuaren arteko erlazioa ez da mekanikoa edo zuzena; beraz, kontestu bereetik testu desberdinak erator daitezke. Izan ere, bien bitartean badago bestelako eremu bat eta hemen kokatu behar ditugu, hain zuzen ere, diskurtso-mota desberdinak. Hauek molde antzera funtzionatzen dute eta bertan urtzen da gerora testua (ekoizpen linguistikoa edo diskurtsoaren emaitza berrala) izango dena. Molde edo diskurtso-mota hauek garapen sozio-historikoan eraikitako egitura diskurtsiboak dira, hizkuntz unitateen antolaketa eta banaketa berezia dutenak. Honela, hizkuntzaren bidez sor daitezkeen testuak oso heterogeneoak izan arren, badira zenbait ezaugarri, oso era desberdinetako testuek modu batera ala bestera konpartitzen dituztenak, mota batekoak direla esateko bide ematen digutenak. Egunkari batek dakarren gertakarien kronika, gertatutako zerbaiten kontaketa eta haurrentzako ipuin bat, esate baterako, ustez oso desberdinak izan arren, testu-mota berekoak dira, zeren egitura bera erakusten baitute; oinarrizko eskema bakar baten arabera antolatzen dira: sarrera (hasierako egoera), korapiloa eta konponbidea, lokailu logiko eta denborazkoen bidez garatzen da istorioa, eta abar.

Honako testu-mota hauek bereizten dira: deskribapena, narrazioa, azalpena, argudioa, instrukzioa, elkarrizketa.

Dena den, gehienetan ez da testu-mota homogeneousorik agertzen eta baten ezaugarriak nagusitzen badira ere, maiz asko agertuko dira txertaturik bestelakoei dagozkien *sekuentziak*: narrazioan, esaterako, usu agertuko dira elkarrizketak edo deskribapenak.

Bestetik, testu-mota hauek hainbat *genero* dituzte azpian. Adibidez, narrazioa honelako azpimultzotan banatuko dugu: ipuinak, biografiak, autobiografiak, berriak, erreportaiak, iragarkiak, aktak, txostenak, gutunak...

7.1.3.1. Deskribapena


ZER DEN

Gauza bat nolakoa den erakusten duen testua da. Sekuentzia deskriptiboak eskuarki bestelako testuen barruan agertzen dira txertatuta, bigarren mailako funtzioa betetzen dutelarik. Honela, azalpenetan, testu-liburuetan kasu, sarri agertzen dira; narrazioetan oso arrunta da narrazioaren markoaren deskribapena (denbora, espazioa, pertsonaien deskribapen fisiko eta psikologikoa, beren pentsamoldearena...); elkarrizketetan maiz agertzen dira gauzen edo espazioen deskribapenak, prozesuenak ...

EGITURA

Deskribapen testua, ematen den informazio guztia biltzen duen titulu edo gai nagusi baten inguruan multzokatutako zenbait elementuz osatuta egoten da. Izan ere, testu hauen ezaugarri nagusienetako bat horixe da, hain zuzen: deskribapenaren espantsioa nahi adina luza daitekeen arren, informazio guztia titulu batera laburtu eta bil daitekeela. Informazio berriak —edo gai nagusiaren espantsioa— deskribatutakoa —gaia— erlazionatzen du gai horri dagozkion propietate, parte edota kualitate zenbaitekin.

Deskribapenak honela sailka daitezke:



Orokorrean, deskribapen subjektiboa (literaturan batez ere erabilia) eta objektiboa edo teknikoa (zientzietako testu-liburuetan...) berezi ohi dira. Hona hemen azken honen ezaugarriak:

- Deskribatu nahi denaren xehetasunen enumerazioa. Ezaugarri behine-
nak irizpide baten arabera aukeratuak; ez-arbitrarioa, beraz.
- Argitasuna: zehaztasun lexikala. Esanahi anitzeko terminoak saihestu
egin behar dira.
- Adjetiboak: iritziak emateko baino, errrealitatea eta kontzeptuen mu-
gak zehazteko erabiliko dira.
- Datuen aurkezpen logikoa: ulergarritasuna du helburu, eta ez asmo es-
tetikoa betetzea.
- Aditz-denbora: forma intenporalak eta inpersonalak sarri agertuko dira
orainaldiarekin batera.

Horrez gainera, curriculum honetan pertsonen deskribapenak ere —ikas-
leen izaera eta egoera, batez ere—, badu bere lekua definizioarekin batera.

Definizioan kontzeptu bat zer den adierazteko, azalduko dugu zein *klase*-
tan dagoen sartuta (esaterako, katua ugaztunen klasean dago) eta zein diren
bere ezaugarriak. Klasea ezaugarri komunak dituen elementu multzoari deri-
tzogu. Klaseen arteko harremanak honelakoak izan daitezke:

- Barnean egotea: katua felidoen familiako da, felidoak haragijaleen or-
denan daude eta azken hauek ugaztun-klasearen barruan.
- Bereizturik egotea: adibidez, ugaztunak eta narrastiak.
- Ebaketa egotea: konparazio batera, izurdeak ugaztunak dira eta, era
berean, itsasoko animaliak.

Gehienetan espazioaren ardatzean eratutako testuak izan arren, badira
denboraren progresioan ematen diren ekintza edo prozesuen deskribapenak
ere.

Deskribapenetan ordena bat segitu ohi da, gehienetan honako dimentsio
hauen arabera:

- Goitik beherako dimentsioa: goi/ behe; azpi/ gain; ipar/ hego...
- Zeharkako dimentsioa: ezker/ eskubi; alde bat/ beste alde; mende-
balde/ ekialde...
- Hirugarren dimentsioa: gertu/ urrun; aurre/ atze; barru/ kanpo...
- Denboraren dimentsioa: ordua, egunak, hilabeteak...

7.1.3.2. Narrazioa

ZER DEN

Narratzea denbora tarte jakin batean gertatzen diren ekintzak kontatzea
da. Narrazioaren ardatza denbora da eta gertakarien arteko erlazioa denbo-
razko konektoreen bidez gauzatzen da nagusiki.

Era askotako testuak izan daitezke narrazio: ipuina, biografia, akta, albiste (Non, Zer, Noiz, Non, Zergatik eta Nola galdereei erantzutea du ardatz), erreportaia (pilpilean dagoen gertakizun baten kontaketa zehatza), kronika (aldi ematen dena eta aurrekoa baino subjetoagoa), narrazio historikoa (testu liburuetan, kasu), solas-kontaketa (pasadizoen kontraera solasaldian), gutuna..., baina denek daukate zenbait ezaugarri komun. Ekoizten direneko kontestuekiko erlazioa ez da estua, ez dute hartzailearen interbentzioa eskatzen, baina honen arreta eta interesa piztea dute helburu; gertakarien denborazko ordena eta euren artean sortzen den kausa/ondorio harremana da garrantzitsuena, narratzailearen desdoblamentua —polifonia ere deitua— agertzen dute sarri... Azken batean denek daukate testu-egitura berdintsua.

EGITURA

Narrazioaren egitura aztertzeko ondoko osagai hauei erreparatuko diegu:

1. Ekintza

Narrazioa gertakizun baten kontakizuna da, beraz, zerbait gertatu behar da eta honi *ekintza* deritzo. Oro har, era progresiboan narratu ohi da ekintza eta honen egitura klasikoa hauexek da:

- Hasierako egoera edo aurkezpena. Gertakarien *markoa* ezartzen du: pertsonaiak (lehen eta bigarren mailakoak, ezaugarri fisikoak eta psikologikoak...) eta giroa aurkeztea (lekua deskribatzea, noiz gertatzen den eta denbora horri buruzko zehaztapenak, aurretik gertatutakoen kontraera...). Hasieran agertzen da gehien bat, nahiz era inplizitua izan edo beste atalen batean txertatuta ere ager daitekeen.
- Korapiloa. Hasierako egoeraren oreka aldarazten duten eta gatazka bat eragiten duten gertakarien multzoa. Narrazioaren gunea izanik, nahi-taez esplizitua izan behar du testuan.
- Konponbidea. Oreka berri batera itzultzea edo egoera berria.

Hala ere, kontuan izan behar dugu ordena klasiko hau ez dela beti jarraitzen, batez ere narrazio literarioetan, adibidez, gerora agertu beharreko ekintzak hasieran jarritik edo denboran saltoak eginez («flash-back» edo atzera saltoa, kasu). Gainera, kontakizunean zehar pertsonaia berriak ager daitezke edota giroa ere aldatu egin daiteke.

2. Denbora

Narrazioan kontatzen diren ekintza horiek denboran zehar gertaturikoak dira. Denbora da, horrenbestez, narrazioaren haria eta antolaketaren giltzarri. Honek zera dakar berekin:

- Kontaktaren ordena kronologikoa da, hots, denborazko erreferentzia markatzen duen jatorri edo abiapuntu batetik aurrera gertatutakoa.

Jatorrizko erreferentziak era desberdinetan adieraz daitezke:

- Deiktikoen bidez (*atzo, joan den...*) hartzaileak hauen esanahien jakintun direnean: solas-kontaketa, egunkariko albistea...
- Denbora objetiboaren data-aipamen zehatzak erabiliz: *K.a 384. urtean, 1931ko apirilaren 14a...*
- Formula estereotipatuaren bitartez: *behin batean, antzina, egun batez...*

Hauekin batera, narrazioan zehar honelako testu-antolatzaile kronologikoak, besteak beste, agertu ohi dira:

- enumerazioak egiteko: *lehendabizi, gero, hurrena, ondoren, azkenean...*
- aldiberekotasuna adierazteko: *une hartan, -kin batera, -tzean, -tzera-koan, artean, bitartean...*
- aldaketa markatzeko: *halako batean, bat-batean, orduan, harrezkero...*

—Ekintza hauek enuntziatio-egoera baino lehen jazo dira (narratzeko momentua baino lehen, alegia) eta, ondorioz, aditzak iraganean erabiltzea eskatzen du. Aditz-aspektuari dagokionez, berriz, lehenaldiko burutuaren (ekintza bera adierazteko) eta ez-burutuaren (ekintza denboran edo espazioan kokatzeko) arteko jokia oso erabilia da.

—Dena den, komeni da bereiztea:

- *Historiaren denbora*: ekintzak gertatzen direnekoa (noiztik noiz arte). Ekintzen bilakaera hau denborazko antolatzaileekin ezezik, bestelako baliabideen bitartez ere adieraz daiteke: antolatzaile espazialak, logiko-kontzeptualak (kausa-ondorioa...)
- *Kontaktaren denbora*: narratzailearen denbora. Izan ere, gerta daiteke kontatzaileak narrazioaren erritmoa bizkortzea (esaterako, ekintzak jarraian kateatu elipsiak eginez, elkarrizketak tartekatuz...) edo moteltzea (deskribapen zehatzak eginez, bere gogoetak azalduz...).

3. Ikuspuntu narratiboa

Egilea eta narratzailea ez dira beti gauza bera. Izan ere, testuaren egileak zenbait teknika balia ditzake narratzerakoan. Hemen ikuspuntu batzuk besterik ez ditugu aipatuko:

—Narrazioa 1. pertsonan: egilea eta narratzailea bat dira eta bizipenak, oroitzapenak, norberari gertatutakoak, aitorenak... adierazteko egokia. Diskurtso subjektiboarekin lotua joan daiteke (deixia, estilo zuzena, ironia...). Erabilera-esparrua: autobiografia, solas-kontaketa, barkarrizketa... Batzuetan, nobeletan batez ere, egileak pertsonaia bat aukeratzen du eta honen ikuspuntutik narratzen du 1. pertsonan.

- Narratzaile neutroa: 3. pertsonan egiten da eta diskurtso objektiboaren ezaugarriekin erlazionatua (zehar estiloa, anafora eta ez-deixia, modalizatzaile gutxi...). Erabilera-esparrua: albistea, erreportaia, narrazio historikoa, aktak...
 - Narratzaile orojakilea: hau ere 3. pertsonan da. Dena dakienaren ikuspuntua hartzen du; eta narraziotik kanpo badago ere, pertsonaiek berak baino gehiago daki kontakizunari buruz. Literaturan erabilia (ipuin klasikoak, XIX. mendeko nobelak...).
 - Polifonia edo egilea pertsonaia desberdinetan desdoblatzea: diskurtso subjektiboarekin erlazionatua, narrazio ez literarioetan aparteko garrantzia du (ikus Subjektibitatearen adierazpena): pasadizoen kontaktuzunetan, txisteetan...
- Alde batetik, istorioa kontatzen duen pertsona dago, narratzailea, *ni* batez aurkezten dena (beherago eskaintzen den testuko *nik ez dakit*); beste aldetik, narrazioaren jasotzailea, *zu* batez ordezkaturia (testuko *badakizu*); eta azkenik, narratzaileak aipatzen dituen bestelako pertsonen edo enuntziatzaileen ahotsak (testuko *gure mutila* edo *biajantea*).

(...) **nik ez dakit** nola, baina bere kotxearen parean, bigarren filan, beste kotxe bat zegoen aparkatuta. Sutan jarri zen. **Badakizu** gainera nolakoa den bera. Hasi zen, ba, bozina jotzen eta, halako batean, hara non datorren taberna batetik morroi bat, **biajantea** antza, esaten ez zela hainbesterako eta ea zergatik hainbeste zarata. **Gure mutilak** orduan: «ez baduzu kotxea berehala hortik kentzen, ikusiko duzu! (...)

4. Diskurtso Moduak

Narratzaileak istorioa azaltzeko, bestelako enuntziatzaileek esaten dutena testualki erreproduzi dezake edo narratzaileak berak mediatizaturik agertarazi.

Estilo zuzenean, narratzaileak enuntziatzaile berriaren hitzak testualki jasotzen ditu, ahotsaren tonua aldatuz: *gure mutilak, orduan, «ez baduzu kotxea berehala hortik kentzen, ikusiko duzu!»*.

Testu idatzietan enuntziatzailea aldatu dela zeinu tipografikoen bidez adierazten da (gidoiak, komatxoak - «..»-) eta askotan, *esan, galdetu, erantzun, gaineratu* bezalako aditz deklaratioboren batek markatzen du enuntziatuaren hasiera edo bukaera.

Zehar estiloan narratzaileak bere mintzora inkorporatzen du enuntziatzaile berriak adierazitakoa:

... morroi bat esaten **ez zela** hainbesterako eta ea zergatik hainbeste zarata.

Zehar estiloaren hasieran edo bukaeran goraxeago zehaztu diren aditzen antzeko nagusi bat egoten da eta ia beti *-ela, -n, -tzeko, -tzea*, etab. bezalako menderagailuak daramatza menpeko esaldiak. Pertsonak eta aditz-denborak ere aldatzen dira.

Zehar estilo librea aurreko bien arteko zerbait da. Zehar estiloaren ezaugarriak dauzka (1 pertsona > 3. pertsona, orainaldia > lehenaldia), baina estilo zuzenaren zenbait ezaugarri ere mantentzen ditu: narratzaileak enuntziatzailearen hitzak errespetatzen ditu eta bere deiktikoak. Ez da, bestaldetik, aditz nagusirik agertzen (aditz deklaratorik ez) eta testu idatzietan ez da gidoirik, ez komatxorik, ez eta menperagailurik agertzen.

Estilo zuzena	Norbaitek esandakoa hitzez hitz jasotzen da. Idatzitako testuetan gidoiak edo komatxoak arabiltzen dira. Adibidez: <i>Gaur arratsaldean zinera joan nahi dut -esan zuen Andonik.</i>
Zehar estiloa	Hiztunaren hitzak aditz nagusi baten menpeko esaldietan txertatzen dira. Aditz-denborak eta pertsonak aldatu egiten dira. Aditz nagusiak honelakoak izaten dira: esan, erantzun, galdetu, agindu, gaineratu, proposatu... Adibidez: <i>Andonik arratsalde hartan zinera joan nahi zuela esan zuen.</i>
Zehar estilo librea	Norbaitek esandakoa zehar estiloan bezala erreproduzitzen da, baina aditz nagusi, menperagailu edo komatxorik gabe. Adibidez: <i>Andoni ez zen gurekin etorri. Arratsalde horretan zinera joan nahi zuen.</i>

Narrazio testuetan deskribapen eta elkarrizketa testuak txertatuta egoten dira. Nahitaezkoa izaten da narrazioan osagarri deskriptiboa eta oso ohikoa elkarrizketen erabilera, sinesgarritasuna eta hurbiltasuna lortzeko.

7.1.3.3. Azalpena

ZER DEN

Testu-mota hau gai bat hartzaileari era garbi eta ordenatuan azaldu edo erakustean datza. Aurretik gaia ongi ezagutzea eskatzen du, orobat, ideiak modu artikulatu eta progresiboan aurkeztea. Azalpenean, batez ere teknikoan edo zientifikoan, gaiak edo kontzeptuak, egia eztabaidaezinak bailiran, erakutsi egin behar dira, ez frogatu; hortaz, diskurtso objetiboaren ezaugarriak isladatuko ditu (modalizatzaile urri...). Honen arabera, testu desberdin asko izan daitezke azalpenekoak: entziklopedikoak (gai baten definizioa eta garapena, kasu), klase-emanaldiak, testu-liburuak, hainbat hitzaldi, entsaioak, egunkariko zenbait artikulua-mota, ikasleei hainbat azterketetan eskatzen zaiena...

Azalpen eta argudiozko testuen arteko desberdintasunak, horrenbestez, hauexek lirateke:

- Argudioak hartzailea pertsuaditzea du helburu eta jasotzailearen usteak eta pentsaera aldarazteko behar diren estrategiak erabiltzen ditu horretarako, haren ezagupenen maila jasotzea bere xedetik urrun geratzen delarik. Honek esan nahi du aurretik badagoela zerbait zalantzan edo eztabaidan dagoena, eta honek asko baldintzatuko du enuntziatzailearen estrategia, geroago ikusiko dugun bezala.
- Azalpenak, berriz, informatzeko xedea bete nahi du eta hartzailearen ezagupen-maila aberasteko estrategia aproposak erabiltzen ditu. Hor-taz, edukiak era ulergarrian aurkeztea da garrantzikoena, eta ez eduki horien erabateko zehaztapena.

Hala eta guztiz ere, testu errealetan bereizkuntza hau ez da hain nabar-mena izaten. Azalpen testu batek argudiozko osagai handiago ala txikiago bat izaten du ia beti. Askotan zerbait azaltzea informazioa eman eta berau egiaz-tatzean datza —testu akademikoetan ere, hainbat hipotesi frogatu behar izate-n dira ondoriora iritsi ahal izateko—; baina egiaztatzeke, argudiozko estrate-giak erabili behar dira. Informatzea eta sinistaraztearen arteko mugak, beraz, ez daude beti hain definiturik. Beste aldetik, argudio-testuek azalpenezko pa-sarteak izaten dituzte, argumento «objektibo» hauek eraginkorragoa egiten baitute argudioa.

EGITURA

- Sarrera. Hemen testuko ideia nagusia ezagutarazten da, helburuak, hipotesiak, nola garatuko den gaia, etab. Ongi egituratua eta zu-zena ezezik, interresgarria eta erakargarria ere izan behar du. Ho-rretarako ohiko baliabideetako batzuk ondoko hauek dira: galdera erretorikoak, norbaiten aipuak egitea, gaiaren garrantzia azpimarra-tzea...
- Garapena. Ematen den informazioa biltzen duen testuaren atala. Gaiari nola heldu, hartzaileak noraino dakien eta azalpen zehatz eta be-tea egin beharrak baldintzatzen dute testuak dakarren informazioaren hautaketa-lana, orden logikoa (induktibo/deduktiboa) bere antolaketa eta progresioa.... Atal honetan funtsezkoa da, beraz, beherago zehaz-tuko diren koherentziarako mekanismoei (azalpenaren egokiera, pro-gresio tematikoa ...) duten garrantzia aitortzea.
- Ondorioa. Testuak bete nahi zuen helburuaren azalpena. Era askota-koa izan daiteke: azaldutakoaren puntu nagusiak azpimarratu, ondo-rioak atera, garapenean ikuspegi diferenteak eman ondoren norbera-ren iritzia agertu...

KOHERENTZIARAKO MEKANISMOAK

1. Azalpenaren egokiera eta munduaren ezaguera

Azalpen-testuaren ekoizleak hartzailearen balorazioa egiten du zenbait faktore kontuan hartuta (adina, ikasketa-maila, noraino ezagutzen duen gaia...). Hartzaile-motaren arabera, beraz, informazioa hautatu eta era batera ala bestera azalduko du (termino teknikoak ala ez hain teknikoak erabiliz, zenbait kontzeptu argituz edo adibideen bidez azalduz, egin ditzakeen inferentziak aurreikusiz...).

Honela, bi eratako azalpen bereiz daitezke hartzaile-motak baldintzatuturik:

- Dibulgaziorako azalpena: gehienbat gai orokor bati buruz informazioa ahalik eta argien eta objektiboen emateko denean. Edonork, entzulego edo irakurlego zabal batek alegia, ulertzeko modukoa. Erabilitako hiztegia, zehatza izanik ere, ez da oso espezializatua, termino gehienak bederen.
- Especialistentzako azalpena: aurretik ezagupen berezia eskatzen duena —zientziaren alor batena bereziki— hartzailearen aldetik. Izaera eta elaborazio-mailagatik, idatzizko adierazpenetik hurbil (koherentzia eta kohesioaren kontrol handia, sintaxi konplexua, abstrakzio-maila handikoa...), baita ahoz azaltzeko denean ere (ihardunaldi, batzar, simposium, hitzaldi, txosten, oroitidazki, tesi doktoralak...). Esan gabe doa lexiko berezitua sarri agertuko dela (teknizismoak, kultismoak...).

2. Ordena logikoa

Edukiak azaltzeko ordena logikoari dagokionez, bi hauek nabarmen daitezke:

- Deduktiboa: azalpena orokorretik hasi eta xehetasunetara iristen da.
- Induktiboa: kasu partikularretatik hasi eta, azkenean, ondorio orokorretara heltzen da.

3. Progresio tematikoa

Testuak informazio berria eman behar du etengabe testuaren batasuna mantenduz eta, aldi berean, gaiari lotuz. Testuak dakarren informazio berriaren (irazkina edo *rema*) eta jadanik ezaguna den informazioaren (mintzagaia edo *tema*) arteko oreka eta haien arteko erlazioa koherentzia faktorerik garrantzitsuenetakoa da azalpenezko testuetan. Testu hauek progresio tematikoaren arabera banatutako parrafoetan artikulatzen dira eta parrafo horietako bakoitzak gai nagusiarekin zerikusia duen azpigai edo aspektoren bat gartzen du. Azkenik, bai parrafo barruko esaldi kateatuen arteko erlazioa, bai gainontzeko beste parrafoekiko lotura hainbat konektoreen bidez ezartzen da:

leku-denborazkoak, aurreko edo ondoko parrafoaren gaiari erreferentzia egiten dioten erreferente anaforikoak, azalpenaren urrats desberdinak zehazten dituzten konektore logikoak...

4. Ideien Antolaketa

Ideiak antolatzeko parrafo-mota desberdinak erabil ditzakegu:

- Deskribapenezkoa: azaldu beharreko gaia erreferentziatzat harturik, honi buruzko ezaugarriak banan-banan deskribatzen dira. Adibidez: definizioa, jatorria, ezaugarri fisikoak, kokapena, barietatea...
- Sekuentziala: gaiaren bilakaeraren faseak banaka azaltzen dira (*hasieran, ondoren, azkenean...*). Adibidez, odol-zirkulazioa.
- Konparatiboa: bi gauza, ideia edo kontzeptu (begia eta argazki-kamara, esaterako) elkarrekin alderatzen dira antzekotasunak eta desberdintasunak agerian utziz. Konparazio hau bertikala (lehenengo begiaren ezaugarri eta funtzionamendua azalduz, eta ondoren argazki-kamara-rena) edo horizontala (ezaugarri ezaugarri elkarrekin konparatu) izan daiteke.
- Kausa-ondorioa: oso laburrak (antolatzaileen bidez soilik adierazia) edo luzeak (narrazio historikoetan, adibidez) izan daitezke.
- Saillkapenak: elementuak hartu eta klaseak osatu, edo hartu klaseak eta beraien arteko harremanak ezar ditzakegu (bata bestearen barnean, elkar-ebaketan, erabat bereizturik). (Ikus deskribapenean klaseari buruz esandakoa).

5. Bestelako baliabideak

- Adibideak: euskarri ezin hobeak azaldu nahi dena argitzeko.
- Kontrasteak: parrafo barruan azpimarratu nahi den kontzeptua edo ideia nabarmentzeko.
- Datu zehatzak: objektibotasunak zehaztasuna eskatzen du; bide batez, azaltzen ari dena egiaztatzeko balio dezake.
- Euskarri didaktikoak: laburpenak (aurretik gidoi gisa balio dezaketanak), eskemak, koadro sinoptikoak, irudiak, mapak, argazkiak...

7.1.3.4. Argudioa

ZER DEN

Argudiozko testua zerbaitek bereizten badu, bere helburuak bereizten du; izan ere argudiozkoak pertsuaditzea, norberaren ikuspuntua onartaraztea edota jasotzailearen iritziak edo pentsamoldea aldaraztea helburu duten testuak dira. Beraz, era honetako testuetan hartzailea inon baino gehiago dago «sartuta» testuan, nahiz eta enuntziatio-egoeran presente izan ez. Izan ere, eztabaidagai den zerbait badago (tesi, ikuspuntu edo jarrera des-

berdinak, kasu), enuntziatzaileak hartzailea konbentzitu beharko du eta, ondorioz, horretara egokituko du bere estrategia. Horretarako enuntziatzaileak, besteak beste, bere jarrera agertu beharko du bere diskurtsoan zehar, alegia, modalizazioaz baliatu beharko du. Argudiozko osagai handia duten testu batzuk ondoko hauek dira: editoriala, kritikak, txostenak, iritziak, tesiak, sententziak...

EGITURA

Argudio-testuetan eskuarki tesi edo arazo batetik abiatuz, ondorio batera heltzen da argumentuen azalpenaren bidez. Argudio-eredu bat baino gehiago badago ere, honako egitura hau agertzen dute gehienetan:

- Esposizioa. Abiapuntu den arazo, asuntu, egoera edo kontra egin nahi zaion tesiari buruzko azalpena: zertan datzan, zirkunstantziak, zertan oinarritzen den...
- Proposamena edo hipotesia. Esposizioan aurkeztutakoari buruz proposatzen den hipotesiaren edo norberaren ikuspuntuaren formulazioa.
- Demostrazioa. Proposatutako hipotesia edo ikuspuntua demostratzen eta justifikatzen duten arrazoi, ideia eta frogen azalpena.
- Ondorioa. Demostrazioaren ondorioen azalpena eta proposamen berrien formulazioa.

Egitura honek forma ezberdinak izan ditzake:

Argudio dialektikoetan:

- Tesia/ antitesia/ sintesia (zerbaiti buruz batzuek duten ideiei beste batzuenak kontrajartzen zaizkie, bi ikuspegiaren arteko sintesira ailegatzeko).
- Tesia/ antitesia (beste tesia erabat arbuiatu, norberarena kontrajarriz).

Argudio zientifikoetan:

- Arazoa/ hipotesia/ hipotesiaren egiaztapena/ ondorioa.
- Aurreko tesia/ premisak/ hipotesia/ hipotesiaren egiaztapena/ ondorioa/ tesi berria.

ARGUDIO-MOTAK

- Autoritate-argudioa. Ospe edo sona handikoen aipua erabili: adituak, itzal handiko zientzilariak, pentsalariak, iturriak (Biblia, egunkariak...), etab.
- Norberaren esperientzia. Oso erabilia, esaterako, «zuzendariari gutunak» direlakoetan.
- Adibideak. Berebizikoak dira onartutako zerbaitekin identifikazioa lortzeko; egokiak izango badira, nolabaiteko lotura izan behar dute gaiarekin.

- Analogia. Plano paralelo batean gertatzen dena, defendatu nahi den ikuspuntuari aplikatu.
- Pragmatikoa. Lortutako emaitzen arabera baloratu ideia baten eragin-kortasuna.
- Errefrauk. Gizarte batean orokorrean onartutako iritziak isladatzen dituzte.
- Gizartearen uste orokorra. Honi aipamen egin hartzailearen identifikazioa erdiesteko. Bestetan, kritikatu beharreko tesia izan daiteke.
- Logikoa: kausa-ondorioa...
- Azaltzailea: azalpenezko testuetatik hurbil, hauetan erabiltzen diren baliabideak erabiltzen ditugu hemen ere (informazio ugaria, datu zehatzak, sailkapenak...).
- Hipotesiak: ideia bat defendatzeko edo errefusatzeko bere balizko ondorioak aztertu.
- Kontrasteak: azpimarratu nahi den kontzeptua edo ideia nabarmentzeko erabiliak.

7.1.3.5. Instrukzioa

ZER DEN

Instrukzioen bidez jasotzailearen jokabidea erregulatzea helburu duten testuak dira: aholkuak, araudiak, eskola ariketak, lan-prozesu bat bideratzeko proposamenak, errezetak, gida turistikoak, joku eta aktibitateen arauak... Testu prediktiboak ere hemen sar genitzake, geroari buruzko informazioa ematean, zeharka, jasotzailearen portaera erregulatzeko asmoz eginak baitaude (horoskopoak, eguraldi iragarpenak...).

EGITURA

Hurrenez hurren datozen maila bereko informazio andanaren itxura hartzen dute, gehienetan denbora ordenamendu bati jarraikiz (narrazioetan legez, baina haietan ez bezala, ez dago ez korapilorik ez eta konponbiderik ere).

Instrukzio testuetan geroaldia, agintera (edo subjuntiboa), aditz-partizipioa, beharizana eta bigarren pertsona erruz erabiliko dira.

7.1.3.6. Elkarrizketa

ZER DEN

Solaskide bi edo gehiagoren arteko txandakako elkartruke komunikatiboa. Testu hauek ingurunearekiko erlazio zuzenean sortzen dira, hots, solaskideak aurrez aurre daudela eta denbora eta espazio jakin batean. Bi eratakoak izan daitezke: ez-bat-batekoak (debateak, entrebistak —lana lortzeko, medikuarenean...—, ahozko azterketak, etabar) eta bat-batekoak.

EZ-BAT-BATEKOAK	BAT-BATEKOAK
<p>— Planifikatuagoak. Aldez aurretik finkatutako gai bat izaten da abiapuntua eta nork noiz hitz egin behar duen ezarrita dago.</p> <p>— Kontestuak erabat mugatzen du gaia.</p> <p>— Solaskideetako batek gidatzen du elkarrizketa eta betetzen duen rola, besteak beste, gaia finkatzeko, galderak egiteko, hitz egiteko txanda emateko, solasaldiari amaiera emateko aukera ematen dio.</p>	<p>— Zabalagoak dira: ez dago planifikaturik ezta aldez aurretik programaturik ere. Gaia aurretik finkatu gabe dago, edozein eratako testuinguruan gerta daitezke eta funtzio desberdinak bete ditzakete.</p> <p>— Testu hauek ahozkoari berez dagozkion ezaugarriak izaten dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hitzezko eta ez-hitzezko elementuak batera ematen dira (keinuak). • Esaldi bukatu gabeak maiz ematen dira. • Elipsiak, errepikapenak, sintaxi inplizitua. • Pausak, geldiuneak, isiluneak, zailantzak eta zuzenketak • Betegarriak: <i>eh...</i>, <i>ba...</i>, <i>nola esan...</i>, <i>bueno...</i>, <i>zera...</i> • Erregistro kolokialak

EGITURA

- Sarrera: agurrak, atentzioa deitzekoak (*Eh!*, *Aizu!*, *Egunon!...*). Era desberdinetakoa izan daiteke formaltasun maila, solaskideen arteko harremanen eta abarren arabera.
- Orientazioa: solaskidearen arreta bereganatzea, gaian sartzeko ahalegina... (*badakizu atzokoa?*)
- Gunea: elkarrizketaren zertarakoa (gertakari bat kontatzea, zerbait eskatzea, agintzea...)
- Bukaera

7.1.4. Ahozko diskurtsoaren ezaugarriak

Curriculumaren atal honetan orain arte, testuaren ezaugarriez eta testumotez jardun dugu, idatzizko diskurtsoaren eta ahozkoaren artean bereizketarik egin gabe. Hurrengo lerrootan ahozkoak berariz dituen ezaugarriak aztertzen eta zenbait ohar ematen saiatuko gara.

Ahozko Diskurtsoa

Oso prestatua
Bat-batekotasunik gabea
 Jende aurreko irakurketa
 Publikoan egindakoa

Prestatu gabea
Bat-batekoa
 Pribatuan egindakoa

Egia da askotan ez dela erraza izaten ahozko eta idatzizko komunikazioaren mugak jartzea. Aurreko lerroetan agertzen den grafikoaren arabera, ahozko komunikazioan sortutako testuek idatzizko zenbaiten oso antzeko ezaugarriak izan ditzakete edo ez. Irakurritako dikurtsotik gidoi batean oinarritutako ahozko azalpen batera aldea dago. Alde hau areagotu egingo da irakurritako diskurtsoaren beste aldean lagunarteko elkarrizketa edo eta bat-bateko zenbait burutazioren azalpena edo eztabaida baten arrazoiketa jartzen baditugu.

Oro har, ahozko komunikazioan, bat-bateko akozko komunikazioan nagusiki, idatzian ez bezala, ekoizleak ezin du bere diskurtsoa behin eta berriro prestatu, aldez aurretik berrikusi eta zuzendu; ezta hartzaileak entzundakoa bi edo hirutan entzun, atzera egin eta antzekorik ere, hobeki ulertzeko. Elkarreaginean ematen den ahozko diskurtsoa, normalean, bat-batekoa, azkarra, eta solaskideen erantzunen arabera izaten da. Ikasketariak, beraz, bat-bateko edo erdi bat-bateko baldintzetan komunikazioa eraiki behar duenean diskurtsoa ahozko moldeetara ekartzeko gaitasuna landu eta bereganatu behar du.

Hitz gutxitan esanda, ahozko diskurtsoak dituen ezaugarriak direla eta, ekoizleei gaitasun berezia eskatzen die.

—Batetik, diskurtsoa errazteko gaitasuna. Horretarako, ahozkoaren ezaugarri hauez jabetu beharko da:

- Oinarritzko hiztegia erabiltzen da zehaztasunak, gaiak hala eskatu ezean, idatzirako uzten direlarik. Maiz erabiltzen dira parafrasiak, hitz beraren ordean inguruko esplikazioak ematea, alegia.
- Itxura batean, egitura sintaktiko sinpleak erabiltzen dira; esaldi loka-beak, koordinazio bidezko loturak... Periodo luzeak idatzizkoaren eremukoak ditugu.
- Esaldiak etenda uzten dira sarritan. Intonazioak eta ahoz eginiko etenaldiek balio handia dute.
- Betegarriak eta makuluak erabiltzen dira askotan (beno, zera, esan nahi dut zera...)
- Zenbait formula jakin erabiltzen dira.

—Bestetik, ahozkoak berez dituen zailtasunak (bat-batekotasuna, ulertzeko aurrera eta atzera egin ezina...) gainditzeko edo ulermena errazteko gaitasuna. Aurreko honen haritik, ahoz adierazi nahi dena ulertarazteko hiztunak ondokoa egiten du:

- Behin eta berriro errepikatzen ditu ideiak.
- Diskurtsoan zehar, ideiak errepikatzeko lan horretan, laburpenak egiten ditu edota gauza bera beste era batean esaten du.
- Adibideak eta konparazioak egiten ditu, gauzak adierazteko esperientziaren bidezko urratuz.
- Autozuzenketak egiten ditu etengabe.

Azken batean ahozko komunikazioak dituen zailtasunak gainditzeko, informazioa bermaz trukatzeko bideak erabiliko ditu. Hau hala izanik, beharrezkoa da ikasketaria halako azpigaitasunetan trebatzea, bere diskurtsoa ahozko moldeetara egokituko badu.

Hona hemen, adibide gisa, gertakizun berberaren ahozko eta idatzizko bertsioak, ahozkotasunak, dituen ezaugarrien lekuko.

BEIZAMAKO KRIMENA. (Pako Aristi)

Ahozkoa:

... krimen hau Beizaman gertatu zan. Beizama dago han Gipuzkoan, mendian, txintxilika, Gipuzkoako bigarren herririk altuena; hantxe mendian txintxilik dago eta bueltan dena barrankoak eta prezipizioak daude.

Eta... 1926. urtean gertatu zen azaroaren 13an, azaroaren 14an izan zen krimena deskubritua, azaroaren 14a zen igandea, eta igande goizean...

Bueno ez, baserrian bizi ziren hor jarri dizkizuedan hiru emakume horiek, ezta? Ama, Bibiana, Mari Juana eta Jazinta bi alaba.

Aita hila zuten eta bi seme soldaduzka ez egiteagatik Ameriketara alde eginak. Baserritik kanpo bizi zen Jazinta. Etxean izan zituen problema batzuegatik eh? gero kontatuko dizuet...

Eta orduan bizi zen Tolosan. Igande goizean etorri zan baserrira, baserria dago Beizamatik oso aparte, Beizamatik ordu t´erdi oinez han, eh?. Murumendi da, han dagoen mendi bat, hola, leienda asko dituen mendi bat, e... lamiak eta holako leiendak. Murumendin dago baserri hori oso aparte, oso paraje bakarti eta triste eta solitario batean.

Alaba igande goizean bisitara joan zen, eta baserriko atea irekita zegoen, harritu egin zan, nola zegoen atea irekita, sartu zen barrura eta sukaldean zegoen bere ahizpa, Mari Juana, hantxe odol potzu handi baten erdian hilda. Hasi zan Jazinta diarka ezta?, beldurtuta, ikaratuta ea zer gertatu zen eta ohiuka: ama, ama, ama ohiuka, eta ama ez zen agertzen inondik. Orduan, atera zen baserritik 200... 300 metrora edo, topatu zuen bere ama, hantxe lurrean zegoela etzanda eta bizkarrean zeuzkan zauriak.

Ahizpak, bere ahizpak, hemen zeukan holako zauri handi bat, petxuan, holaxe, eta amak bizkarrean zauzkan puñalada batzuk.

Hori izan zen krimenaren... zer esan... krimenaren deskubrimendua, igandean. Gero, igande arratsaldean telegrama bat bidali zitzaion Donostiko gobernadore zibilarri, eta telegrama hartan kontatzen zen ba, Beizaman nola krimen beldurgarri bat izan zen eta lehenbailehen etortzeko Gobernadorea Azpeitira.

Eta hurrengo iluntzean etorri zen Gobernadorea Azpeitira. Beizaman... juzgadoak denak Azpeitin daude, ezta? Azpeiti da partidu judiziala. Eta epaile izendatu zuen Marroki jauna eta orduan hurrengo egunean bertan hasi ziren diligentziak eta ba, istorio luze bat izango zena, turbulentoa eta garai hartako jendea asko markatu zuena.

Nik gaur egun ere topatu dut jendea Beizaman, ba gai hortaz hitz egin nahi ez duena; joan eta galdetu zuk, eta halako, halako krimen horretan eta halako detenitu zutela eta zergatik eta ez, ez... nik ez dakit horrenik ziur, eta hori beste batek hobeto esango dizu eta oraindik jendea dago hitz egin nahi ez bezala... Ba zauriak, ezta?

Krimenak, bueno izan zituen ondorio sozial haundiak eta hola, eta garai hartan zabaldu zen ba halako temore, temore bolada bat, han inguruan, inguruko ziren baserrietan eta. Eta jendeak oraindik ere... Nik atera nuen «Diario Vascon» oraintxe dela urte bete, orain dela urte bete, bete ziren 60 urte ezta?, krimen honenak, eta atera nuen bi zatitan reportaje bat. Eta lehenengo zatia aterata deitu zidan emakume batek esanez; ez ateratzeko bigarren zatia...

Idatzizkoa:

Beizamako krimenaren azken kronika

1926. urteko azaroaren 14 igandea zen. Iluntzeko hamaiketan Gobernadore zibilak telegrama beldurgarri bat jaso zuen, Azpeitiako komandanteak bidalia. Telegramak zioenez, Beizamako «Koroasagasti» baserrian bi emakume asesinaturik agertu ziren. Ama-alabak ziren, Bibiana Oskariz, 66 urtekoa, eta Mari Juana Odriozola, 27koa, eta baserriko biztanle bakarrak.

Euskal Herri guztia ikaratu zuen krimenak, ondorio latzak izan zituen familia askorentzat, eta oraindik ere, zauriak ez daude erabat sendaturik. Bihar iluntzean beteko dira 60 urte, eta beti zatika eta zurrumurruen menpe kontatu den krimen honen zertzelada eta xehetasun guztiak kontatuko ditut, behingoz eta betiko argi gelditu dadin Koroasagastin gertatua.

Nik kontakizun honekin norbait minduko banu, barkamena eskatzen diot aurretik.

Bihar 60 urte betetzen dira

Jazinta Odriozola, beste alaba, Tolosan bizi zen. Mari Juana ahizpa Frantziako Aranburu artzaiarekin harremanetan hasi zen eta ezkontzekotan ziren. Amak Koroasagastira ezkontzea erabaki zuen, baina Jazintak ez zuen begi onez ikusi ezkontza. Haserreturik amak baserritik bidali zuen, 1.500 pezetako dotea emanik. Tolosan «Ceru-Chiqui» tabernan aritu zen sasoi batez, eta garai hartan etxe partikular batera joatekotan zebilen neskame. Igande hartan, eguerdiko hamabiak aldera heldu zen baserrira aspaldiko partez ama eta ahizpa bisitatzerara. Atea erdi irekita zegoen eta harriturik barrura sartu zenean izurikara latz batek hartu zion barrua. Mari Juana ahizpa eskaileretan zegoen, hankaz gora, hilda. Bularraldea ebakirik zeukan eta sukalde guztia odolez orbaindurik zegoen. Ia bere onetik aterata, oihuka hasi zen, amari deika, eta inork erantzuten ez zionez, «Garagartza» baserrira abiatu zen, gertuena zegoen baserrira. Baina hirurehun metrora erabat hatsantaturik gelditu zen, bere ama ere hilik ikusi zuenean. Buruz behera zegoen eta bizkarrean zeuz-

kan zauriak. Orduan amaren gainetik ez pasatzeagatik, berak esan zuenez «Txapartegi» baserrira, urrutiago dagoenera joan zen ito beharrean aurkikuntza triste haren berri ematera.

Koroasagasti Gipuzkoako baserririk solitarioenetako bat zen. Malkarrean zegoen, mendi zuloan, selban, Santa Agedatik ordu batera, eta baserritik ez zen beste etxerik ikusten, dena mendia, sasia eta zuhaitzak.

7.1.5. *Eztabaida/ Negoziazioa (ahozko elkarreraginean oinarritutako diskurtsoa)*

Testu aztertzaile denen iritzian, ahozkotasunean oinarritzen direnen arteko diskurtso mota erabiliena, ordezkari nagusia, solaskide askoren arteko eztabaida da. Horretaz gainera, berau da gizartean eta, jakina, eskolan ere maizenik erabiltzen den ahozko diskurtsoa. Horrenbestez, hurrengo lerro hauetara ekartzea erabaki da, dituen ezaugarriak eman eta eskatzen dituen azpi gaitasunak zehazteko.

Eztabaida batean solaskide anitzek hartzen du parte. Bertan partaideek gai jakin baten gainean duten iritzia trukutzen dute eta, azken batean, dituzten iritzia hurbiltzen, batzen saiatzen dira. Bestela esanda, eztabaida orotan kide bakoitza gainerakoak bere iritzietara hurbiltzen saiatzen da; edukien etengabeko negoziazioa ematen da; eztabaidalagun direnen arteko elkarreragina etengabea da eta bakoitzak besteen argumentuak onartuz, baztertuz, neurri batean onartuz, indartuz edo ahulduz gainontzekoengan eragina izan nahi izaten du.

Ikasketariak, eskolako eztabaidetan betetzen duten rolaren arabera, aurkezle edo eta partaide soil izango dira. Esate baterako, ikasleen artean ari-tzean sustatzaile, moderatzaile izango dira; mintegi, klaustro eta halakoetan, berriz, partaide soil, zuzendari edo kargua duten ikasketarien kasuan, salbu.

Hari beretik, rolaren arabera hizkuntz ekintza jakinak burutu beharko dituzte kasuan. Hala, sustatzailearen kasuan:

- Gaia aurkeztu
- Txandak zaindu
- Aldi bakoitzaren bukaeran edo aldika-aldika iritzia laburtu, ordenatu...
- Eztabaida harira ekarri
- Bukaeran ideien sintesia egin, ondorioak atera...

Eta partaide soilaren kasuan:

- Iritzia eman/ argumentatu
- Besteen argumentuak jaso eta:

- Onartu
- Indartu
- Baztertu
- Neurri bateko adostasuna adierazi

Dena den, hizkuntz ekintza hauek zehazteko orduan ez ditugu rola kon-tuan izan, asko baitira nahiz batean nahiz bestean errepika daitezkeen hiz-kuntz funtzioak. Atzitik, nolabaiteko sailkapena egiteko lau sailetan banatu di-tugu:

—Hitz eman eta hartzearekin zerikusia duten funtzioak:

- Hitz eman
- Hitz kendu/ isilarazi/ jarduna etenarazi

—Diskurtsoarekin zerikusia duten funtzioak:

- Diskurtsoa artikulatzeko
- Hasteko
- Jarraitzeko
- Bukaera emateko
- Ideiaren bat gehitzeko
- Arrazoitzeko/ argumentatzeko
- Esandakoa zuzentzeko
- Esandakoa beste era batean esateko/ hobeto adierazteko
- Esandakoa zehazteko
- Esandakoa laburtzeko
- Esandakoari enfasia emateko/ azpimarratzeko
- Ideiaren bat azal-azaletik ikutzeko
- Gaira itzultzeko

—Gainontzeko solaskideen jardunarekin lotuta dauden funtzioak:

- Zuzenketa eskatu/ errepikatzeko eskatu
- Isilarazi
- Esandakoa onartu
- Esandakoa ez onartu
- Esandakoa ukatu
- Esandakoa partez onartu

—Idea edo argumentu bat adierazteko orduan solaskideak erabiltzen duen jarrerarekin loturik daudenak, modalizazioari dagozkionak, hain zuzen ere.

- Ziurtasunez adierazi
- Posibletzat jo
- Ezinezkotzat jo
- Beharrezkotzat jo
- Harridura adierazi.

Funtzio hauek burutzeko hizkuntz formak ez dira zehaztuko, HE1eko Cu-riculumean eta lokailuei eskeinitako sailean aski zehaztuak baitaude.

7.2. Baliabide diskurtsiboak

SARRERA:

Testu-aztertzaile anitzek, testuen baldintzen artean, koherentzia eta kohesioaren balioa azpimarratzen dute, hauek baitira testuaren barruko kontzeptuen arteko lotura, hariaren logika eta progresio tematikoaren bermea.

Hurrengo lerroetan ondo ehundutako testuak, testu koherente eta kohezionatuak lortzeko behar diren baliabideak aztertuko ditugu.

Ondorengo hauek dira testua ondo ehuntzeko erabiltzen ditugun baliabide batzuk:

—Erreferentzi kidetasun kateak

- Pronominalizazioa: erlazio anaforikoak eta kataforikoak
- Elipsia
- Errepikapena/ ordezkapen lexikala: hiponimia eta hiperonimia
- Mugagabe-mugatu egitura

—Testu-antolatzaileak: lokailu eta esapideak

—Puntuazio-markak

7.2.1. Erreferentzi kidetasun kateak

Dakigunez, baliabide hauei esker lortzen dugu testuaren kohesioa eta barruko ideien batasuna. Hauei esker zehazten dira testuaren barruan, bai aurretik bai ondoren, egiten diren erreferentziak.

Hona hemen bakoitzaren funtzionamendua:

PRONOMINALIZAZIOA

Igorleak testu batean agertzen diren izen-sintagmak, perpausak eta zenbaitetan parrafo osoak ordezkatzeko erabiltzen du baliabide hau. Ordezkapen hau izenordain edo erakusleen bitartez egiten da eta bere funtzioa testuinguruko bestelako elementu bati erreferentzia egitea izaten da.

Bi eratakoa izan daiteke:

Anafora

Baliabide honen bidez testuan aurretik aipatu dugun elementu bati egiten zaio erreferentzia; honela, aurrekari izeneko elementua izango dugu lehendabizi eta aurrekari honi erreferentzi egiten dion anafora ondoren.

Anaforaren funtzioa betetzen duten kategoria gramatikalak izenordainak eta erakusleak edo azken hauetatik eratorritakoak izaten dira. Hala nola: *hau, hori, hura ... honebeste, horrenbeste, hainbeste... berau, berori, bera... honen guztiaren..., hemendik, horrela, honengatik guztiagatik, bertan, azken hauek ...*

Hona hemen adibidez hornitua:

*Zere urdina edo balea urdina deritzona, sekulan bizi izan den animaliarik handiena da, garai bateko dinosauriorik handiena baino askoz handiagoa. 35m. luze da eta 150 Tm. pisatzen ditu. Jaiotze momentuan 9m. inguru luze da: **hau** ez du inork ikusi eta balekume aurreratuak aztertu ondoren ondo-rioztatu ahal izan da (...)*

(Esaizu 1. 5. Unitatea)

*Endozookeria landare baten eta animalia baten artean ezartzen den erlazio mutualista da. **Lehenak**, bere hazien sakabanakuntza lortzen du eta **bi-garrenak**, mimetismo bezalako sariak lortzen ditu (Testu-loturarako baliabideak. Igone Zabala 1996)*

*Puntu honetan erretzaile pasiboen arazoa ukitu nahi nuke. **Horrela** deritzo ez-erretzaile izanik, bere inguruko beste erretzaileek kontsumitzen duten tabakoaren kea, bere borondatearen kontra irensten duenari.*

*...heste meharra eta heste lodia. **Azken honek...***

*Heste meharraren mukosak zeharkako tolesturak ditu, balbula konibenteak deritzenak; **balbula hauek** biloskaz beterik daude eta biloska hauei esker zurgapen azalera asko gehitzen da, **horrela**, zurgapena behar bezala egiteko.*

Erlazio kataforikoa

Kasu honetan anaforaren kasuan ez bezala ordezkatu den elementua, hau da, izen-sintagma, perpausa osoa edo parrafo osoa, ordezkapena egiteko erabili den elementuaren ondoren joaten da. Lehen graduko erakusleak eta hauetatik eratorritako formak dira ordezkapen mota hau egiteko erabiltzen diren kategoria gramatikalak. Hona hemen batzuk:

*Tamainuaren arabera **haitzulo mota hauek** bereizi ohi dira: makrokobak (20cm baino gehiagokoak), mesokobak (0.1-20cm bitartekoak) eta mikrokobak (0.1cm baino gutxiagokoak).*

*Gantz-azidoen formula generikoa **honako hau da: ...***

*Ahoko patologia **hiru taldeotan** sailka genezake: ...*

*Eta honela, liseri-hodiaren **hiru eragin hauen** bitartez —jariaketa, mugikortasuna eta zurgapena— lortzen dena **hauxe da** (zenbait ekintza metabolikotarako erabiliz, adibidez energia sorkuntzarako, mantenugaiak gorputzarentzat baliagarri suertatzea)...*

Bestelako barne-erreferentziak

Testuan aurreko bi ataletan aipatu erreferentziaz aparte bestelako erreferentzia anaforiko eta kataforikoak ere egin daitezke. Ondoren aipatuko direnak, aurrekoen aldean, testu- zati edo atal osoagoei egiten diete erreferen-

tzia eta gehienetan, aditzondoa erabiliz eginak izaten dira. Hona hemen halako batzuk:

Lehen esan dugun bezala...
Aurrerago ikusiko dugun bezala...
Beherago helduko diogu honi.

ELIPSIA

Batzuetan igorleak gaia isiltzen du, hau da, ez du esplizitatzen testuan (ahozkoan zein idatzizkoan) zertaz ari den. Honek ez du inongo zailtasunik sortzen hartzaileak zertaz ari den ziur dakienean (lehenik testuan aipatu delako eta, beraz, biontzat konpartitua delako). Hona hemen adibide bat:

*Gaur eguneko gazteak ez dira garai batekoak bezalakoak. (**Egungo gazteak**) argalak eta luzeak dira.*

MUGAGABE-MUGATU EGITURA

Izen edo sintagma baten errepikapenaren kasua dugu hau, baina desberdintasun batekin. Kasu honetan, izen bat edo sintagma bat lehenengo aldiz aipatzen dugunean era mugagabean agertuko zaigu normalean, eta bigarren eta ondorengoetan, jadanik aurkeztua eta ezaguna dugunez, era mugatua, mugatzaileak edo erakusleren batek lagundurik. Adibidez:

*Ondoren mihiak elikagai-multzo hau eratu eta biribilduko du, **bolo bat** osatuz. **Bolo hau** irensketa-unean mugimendu baten bidez faringe aldera pasatzen da. (...). **Boloa** ...*

ORDEZKAPEN LEXIKALA

Hitz egiten ari garen gaiaren izena beste hitz batez ordezkatzeko dugunean «ordezkapena» deituko diogu. Ordezkapena ez da berdin-berdin egiten testu-mota guztietan. Literatur narrazioko testuetan, adibidez, zilegi da aipatutakoaren esanahia metafora bidez hartzea, baina hau ez legoke hain ongi azalpenezko, argudiozko... testuetan. Testu hauetan ordezkapenak egiteko izen generikoak, hiperonimoak erabiltzen dira maiz. Honela, esaterako, *baleari* buruz ari bagara, *zetazeo*, *ugaztun*... erabil daiteke gaia berrartzeko, edo *erleez* ari gabara, *intsektu* erabiltzea. Beste batzuetan, aldiz, ez da horren erraza ordezkapen lexikal hauek identifikatzea.

Hona hemen adibide batzuk:

—Hiponimo → Hiperonimo

***Erleek**, erasotzeko nahiz babesteko, pozoiz-zakuaren muturrean dagoen eztena erabiltzen dute. Zaku hori uzkurto egiten da eta eztenaren bidez, etsaiaren ehunetara pasarazten dute pozoia. **Intsektu hauek** hil egiten dira eztenkadaren ondoren*

—Hiperonimo → Hiponimo

*Dakizunez, **intsektu guztiek** ez dute ziztada-ahalmen berbera izaten. **Erleak ...**, **liztorrak ...***

—Bestelakoa

Halakoetan proposatzen den elementu lexikalak aurreko hitz baten ordeztako izan ordeztaldez aldeztatik emandako ideia edo kontzeptu oso baten ordeztokotza hartzen du. Hona hemen adibide gisa:

*Jakina da errinozeronteen populazioak azken urteotan behera egin duela. 1975.ean 65.000 zeuden eta gaur egun 3.500 bakarrik. **Hondamendiaren** arrazoia neurrik gabeko ehiza izan da (...)*

Ikus daitekeenez, kasu honetan **hondamendia** hitzaren aurrekaria 65.000 errinozeronte burutik 3.500era jeistea, «beherakada» dela esan daiteke. Horrelako ordezkapenak oso maiz erabiltzen dira.

7.2.2. Testu-antolatzaileak⁵

Ezer baino lehen, lokailuen zerrendatzeari ekin aurretik, ohar batzuk ematea komeni da, ondoko zerrendatzeak behar duen balioa eta ez bestelakorik izan dezan.

Lokailu edo testu-antolatzaile izenpean zerrendatzen diren unitateak gramatikaren eremu eta kategoria desberdinetatik ekarri dira hona, testuaren barruan izan dezaketen egitekoaren arabera birsailkatuz.

Lokailutzat hartzen diren hauek balio desberdin anitz izan dezakete. Dena den, testu-antolatzaile diren neurrian, eta irizpide horren baitan baino ez dira aztertuko. Ez zaie, beraz, eduki dezaketen balioa murriztu nahi izan, testuaren interpretazioaren araberrako balio jakin bat eman, baizik.

Garbi utzi behar da zerrenda edo sail berean egoteak ez diela, inolaz ere, erabateko baliokidetasunik ematen, erabilerari dagokionez. Hau da, elkartzen dituen tasunak elkartzen dituela ere, sarri askotan testuratze-leku edo balio semantiko desberdina izango dute eta ezin izango dira, besterik gabe, baldintza berberetan erabili.

Hemen zerrendatuko diren lokailuak eta emango diren adibideak idatzizko ereduetatik hartuak dira. Horrenbestez, bada, idatzizko diskurtsoan eta ahozko estandarrean, egoera formaletan, azalpen magistraletan, hitzaldi eta halakoetan, alegia, bete-beteko balioa izango dute. Ez hainbestekoa, ordea,

⁵ Lokailu eta bestelako testu-antolatzaileak sailkatzeko orduan Luis Mari Larringanen Tesi Doktoralak eskaini du bidea.

lagunarteko edo ahozko hizkuntzaren erabilera arruntago, pribatuago edo la-saiagoetan.

Hona lokailu edo testu-antolatzaileen azterketa zehatzagoa:

7.2.2.1. Lerrozko integratzaile markatzaileak⁶

Orain artekoan diskurtso-funtzioen barruan landuak edo jasoak izan dira lokailu eta esapide hauek. Antolatzaile hauen egitekoa testuaren osotasuna egituratzea da: testuaren hasiera, jarraia eta bukaera seinalatu, ideia multzo baten barruan nolabaiteko ordena eragin edo hierarkia bidezko mailaketa bi-deratu. Laguntza ezin hobea eskaintzen dute, beraz, testua edo diskurtsoa harilkatzeko eta hartzailearen interpretatze-lana erraztu eta irakurketa-lana bi-deratzeko.

Erabilera handia duten antolatzaileak dira eta, euren ugaritasuna medio, bost multzotan sailkatuko dira:

DISKURTSOA HASTEKO EDO GAIRATZEKO

Azalpen, argudio testuetan, gutun hasieretan eta diskurtso hasieretan erabiltzen dira, oro har. Beren eginbeharra gaia azaldu, hasiera eman, hartzailearen arreta erakarri, solaskidea eta hartzailearen amankomuneko mundua-ren ezaguerari erreferentzia egitea, diskurtsoa gairatzea eta abar izaten da. Aipatzekoa da gure ikasketarien diskurtsoa ez dela normalean hutsetik has-ten eta aurreko klaseko, eguneko, edo gaiko edukien aipamen eta erreferen-zia egin beharrean egoten direla.

Formak:

Hasteko esan dezadan
 Ezer baino lehen
 Aztertuko dugun gaia
 Irakurleak ondo dakienez
 Ezaguna denez
 Sarritan entzun ohi da
 Azken bolada honetan
 Idazki honen bidez ... (gutun)
 Idazki honen helburua ... (gutun)
 Lerro hauen bidez... (gutun)
 Honekin batera ... (ohar/ gutun)...
 Has gaitezen atzo esandakoa gogoratuz
 Gogoratuko duzue ...ikusi genuenean

⁶ Lerrozko integratzaile markatzaileak terminoa berria dugu eta Luis Mari Larringani zor zaio.

Adibideetara ekarrita:

Sarritan entzun ohi da lo egitea ezinbestekoa zaigula gorputzak behar bezala egingo badu lan; besteak beste, muskulu eta garunari atsedena emateko ordua izaten da loaldia eta baita gorputzaren garbiketa sakona egiteko parada ere.

Gutun honen bidez zuzentzen natzaizue Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituen programa eta laguntza bereziei buruzko informazio zehatza igor diezadazuela eskatzeko.

Gogoratuko duzue Nafarroako historia **ikusi genuenean** esandakoa: Gaztela erreinu modura Santxo Handia hil zenean sortu zen, honek egindako testamenduan bere seme Fernando Gaztelako Errege izendatu zuenean.

SEKUENTZIAZIOA EMATEKOAK

Hauek instrukzio testuetan, azalpenetan eta deskripzioetan erabiltzen dira nagusiki; azalpenetan eta deskripzioetan, sailkapenak egiteko orduan, batez ere, eta argudio-testuetan zerbait arrazoitzeko, arrazoi bat baino gehiago eman behar izaten denean. Bi hitzetan esanda, sailkapen, enuntziatio eta sekuentziatio-parrafoetan ematen dira antolatzaile hauek.

Honekin batera esan behar da sailkapen edo enuntziatio-parrafoak eratze-esaldia izaten dutela sailkapenari edo tipologiari sarrera emateko. Aipatu, halaber, eratze-esaldiak eta sailkapenak lotura estua izaten dutela.

Hona hemen halako eratze-esaldi batzuk:

Hainbat puntu azpimarratu nahi nuke

Jorratu nahi ditugun gaiak

Hona hemen friso kronologikoa egiteko eman beharreko pausuak

Bost prezipitazio mota nagusi aipatu dira

Formak:

Lehendabizi/ lehenik,

Alde batetik/ bestetik, (bestalde)

Bigarrenik

Hirugarrenik

Ondoren

Azkenik/ bukatzeko

Badira-enak

Badago ...-enik

Hona hemen zenbait adibide:

*Gai honi gainbegirada emanaz, **hainbat kontu azpimarratuko nuke. Batetik**, ezin esan daiteke etxekoandre guztiak bizi modu bera dutenik, ezta*

gutxiagorik ere. **Bestetik**, etxekoandreen lana gaitzesten ez den garai honetan, ez nuke faltsuki goretzi nahi. **Eta hirugarren eta azkenik**, soldata dela eta ez dela, esan nahi nuke hori bikote bakoitzari dagokiola soilik eta gizar-teak ez duela honetan ezer esan beharrik.

Prezipitazioak, eta batik bat euria, elurra eta txingorra nola sortzen diren behatuta eta ikertuta **bost prezipitazio mota nagusi aipatu ohi dira**:

1. Itsas ertzeko prezipitazioak
2. Prezipitazio orografikoak, erliebeak sortutakoak
3. Prezipitazio ziklikoak
4. Prezipitazio konbektiboak
5. Konbergentziazko prezipitazioak

(Gizarte zientzia, DBH 1.zikloa. Ostadar Elkar/GIE)

Hona hemen friso kronologikoa egiteko eman beharreko urratsak:

Lehendabizi, irudikatu behar diren lehenengo data eta azkena erabaki behar dira.

Bigarrenik, irudikatu behar dugun denboraldi osoa kalkulatu ondoren, neurketa unitateak erabaki behar dira: urteak, mendeak, milurtekoak...

Ondoren, bi lerro zuzen, bi marra papalelo, marraztu behar dira,
(...)

Azkenik, bukatzeko, frisoaren gainean gertaera nagusiak ipini, kokatu behar dira dagokien dataren parean eta frisoaren gainean titulua idatzi behar da.

(Gizarte zientziak. Geografia eta Historia. DBH 1. Erein)

Atzerritarrek ez dute lan finkorik eta han-hemenka aritzen dira eguneroko bizimodua aurrera ateratzeko. Esaterako, **badira** beren irabazpideak kalleko salmentan ateratzen dituzten**nak**. Badira, baita ere, eskupeko baten trukean autoen kristalak garbitzeari ekiten dioten**nak** ...

GAI BATI HASIERA EMATEKOAK

Hauek, izenak dioen bezala, gai edo ideia berriren bat diskurtsora ekartzeko erabiltzen dira. Hala ere, batzuetan enuntziazio edo zerrendatze-pasarteetan ere erabil daitezke, antolatze esaldian ideia andana aipatu ondoren banan-banan garatu nahi direnean, hain zuzen ere. Akta eta informazio sailkapenetan oso arruntak dira.

Formak:

- (ri) buruz
- ...dela eta
- (ri) dagokionez
- (r)en ikuspegitik begiraturik
- (r)en aldetik
- (r)en gainean

Adibideetan jarrita:

*Gela hartan baziren **hiru gauza azpimarratuko nituzkeenak: argia, isiltasuna eta usaina. Usainari dagokionez, esan behar da goxoa eta sarkorra zela; argiaren moteltasunari buruz...isiltasunaren aldetik...***

***Bileran honako gai hauek aztertu ziren: ordutegia, eskolaz kanpoko ekintzak eta gurasoekiko harremanak.** Luze eztabaidatu ondoren honelako erabakiak hartu ziren:*

Ordutegiari dagokionez...

Eskolaz kanpoko ekintzak direla eta...

Azkenik, gurasoekiko bilerei buruz...

***Osasun eta segurtasun eskubideen ikuspegitik** esan daiteke gure hiri-
riek gabezia ugari dituztela...*

*Itaundu didazun horren **gainean** esan dezaket...*

IDEIA BATEN JARRAIA EMATEKOAK EDO BERRIRO ERE GAIARI HELTZEKOAK

Hauek aurretiaz aipatutako zerbait, ideia baten bat edo dena delakoa berriro ere testuratzeko, harira ekartzeko, edo eta hariari berriro ere heltzeko erabiltzen diren antolatzaileak dira.

Formak:

Lehen esandakoari jarraituz
Lehenengoaren harira/ haritik esan
Arestian esan bezala
Lehenengoaren ildo beretik esan dezagun
Gaira itzuliz

Hona hemen adibide bat:

Sarreran aipatu dugun bezala, pilen konexioa ez dugu, printzipioz, minimoen barruan sartu.

(Natur zientzia. Irakaslearen gida DBH1. Erein)

BUKAERAKOAK

Argudio-testuetako konklusio-parrafoetan, gutunen bukaeretan eta hala-koetan erabiltzen dira nagusiki. Beti ere, testuaren bukaera adierazten duten antolatzaileak dira.

Formak:

Bukatzeko/ azkenik
Amai dezagun esanaz

Hitz batez
 Laburbilduta, baieza daiteke
 Ondorio gisa/ Bukaera gisa
 Besterik gabe ... (gutunetan)
 Honenbestez, esan daiteke
 Zuen berrien zain ... (gutunetan)

Adibidez:

Esandako guzti honen ondorioz, zera galdetzen diogu geure buruari:
ez ote dute emandako hitza jango ?

Besterik gabe, *laster zure berri izango dudalakoan, adeitasunez agurtzen zaitut.*

Horrenbestez, *nire hitzei eskaini diezuen arretagatik, aldezturik eskerrak emanaz, adeitasunez agurtzen zaitut eta zure erantzunaren zain geratzen naiz.*

7.2.2.2. Emendiozkoak

Euskaltzaindiak EGLU III.ean honela definitzen ditu:

«Emendiozko lokailuak gehitze zentzua ematen dute testuan zehar. Azken batean, analogiaz ideiak lotu edo proposizio bati beste bat gehitu edo gaineratzeko erabiltzen dira.»

Oso ugariak dira eta, ideien ordenameduan duten eragina dela eta, azpisailetan ematea komeni da.⁷

EMENDIOZKOAK

Gehitze zentzua dute. Ideiak analogiaz elkartzeko bide oso aproposa eskaintzen dute. Ideiak gehitu baino ideia bat zabaltzeko erabiltzen dira.

Formak:

Eta
 Ere
 Baita... ere
 Ezta... ere
 Halaber
 ... ezezik ... ere
 Ez bakarrik, ... baita ere...

⁷ Emendiozkoen artean ere, Larringanen tesiari jarraiki, azpisailak egitea erabaki da, denek amankomunean duten gaineratze, gehitze zentzuari nolabaiteko ñabardura ezarri nahian.

Ez bakarrik... bazik eta ...ere
Zentzu berean
Era berean

Adibidez:

*Gaur egun munduko etorkinak gureganatzen ari dira bizibide baten bila. Beste garai batzuetan, **euskaldunak ere** beste lurraldeetara joan behar izan zuten, biziko baziren. (Cómo se escribe. Moldatua)*

*Bukatzeko, gure eskerrik beroenak beren erizpide (sic), kritika eta laguntza eskaini diguten... **Halaber**, esker mila AÑAMENDI argitaletxeari... (Larringan)*

*Gero eta jende gehiagok aprobetxatzen ditu uda parteko hilabeteak oporretara joateko, **baita** Gabonak eta Aste Santua **ere**. (Como se escribe. Moldatua)*

***Italiakoa ezezik**, Ipar-Amerikako zinema, behin bederen ispilu bihurtu zaigu, geure aurpegi-gogoak ezagutzeko moduan. (Mitxelena, Idazlan hautatuak,326)*

GAINERATZAILEAK

Hauek, aurrekoen aldean, ideiak gehitzeko erabiltzen dira, sarritan argudio gehitzea isladatzen dutelarik.

Formak:

Gainera
Hone(ta)z/ Horre(ta)z/ Har(ta)(e)z gainera/ aparte
Are gehiago
Areago

Adibidez:

*Aipatutako kontsiderazio **horietaz gain**, beste honako proposamenak ere egin genizkien gurasoei aztertu eta erabaki zezaten.*

*Haserretu egin zitzaigun, **gainera!***

*Baina, kasu honetan, adibidez euskaradunak azken bost urteotan %3 gehitzeak, ez du inondik inora esan nahi euskararen bilakaera normalizazio bidean sarturik dagoenik. **Are gehiago**, gaur gauzak dauden bezala egonda, datu horiek euskaldungoa eta euskararen garapenaz interesaturik daudenak engainatzeko baizik ez dira. (Larringani jaso. Argia. 51. 109/110)*

MURRIZTAILEAK

Aurretiaz esandakoari nolabaiteko muga jartzeko erabiltzen dira, hau da, esandakoa kasu jakin batzuetara mugatu nahi denean.

Formak:

Behintzat
Bederen
Behinik behin
Gutxienez
Izan ezik
Salbu
Baizik/ baino

Adibideak:

*Beste planeta eta sateliteetan biziaren aztarnarik ez da aurkitu eta ez da uste topatuko denik. Beraz, Eguzki-sistemaren mugen barruan, **bederen**, Lurreko bizia fenomeno bakarra eta bitxia da.*

Berotu izan ezik bestelako guztiak egin zizkion arren, ez zuen bere portaera zuzentzerik izan.

*Ez dira **bi baizik/ baino** etorri.*

7.2.2.3. Nabarmentzaileak

Diskurtsoko atal jakin bat indartu edo gainontzekoetatik bereizteko edo nabarmentzeko erabiltzen dira. Hauen bidez ideien arteko nolabaiteko hierarkizazio bat erakusten da.

Formak:

Batez ere
Batik bat
Bereziki
Nagusiki
Batere
Guztien gainerik
Gehienera jota
Behin eta berriz aitortu nahi dugu
Azpimarratu nahi dugu

Adibidez:

*Planeta horiek (...). Izarren kasuan gertatzen den bezala, hidrogenoz eta helioz osaturik daude, **batik bat**. (Esalditik testura).*

*Ez nuen **batere** asmorik zuri ezer esateko.*

7.2.2.4. Hautakariak

EGLU III.ak dioenez, hauek diskurtsoko atal desberdinen arteko hautaketa, aukera adierazteko erabili ohi direnak dira.

Formak:

Edo (edota, edo eta)
Ala
Bestela
Gainerantzean/
Osterantzean/Gainerakoan
Zein
Nahiz...nahiz.../ ... nahiz...
Dela... dela
Bai... bai
Hala... nola

Adibidez:

*Baina badira bestelako arrazoiak ere: konjuntibitis kronikoak, ikusmenaren graduazio okerra **edota** betaurrekorik ez eramatea, adibidez. (Larringan 77)*

*Herri kirolak aipatzerakoan, gauza bat datorkigu burura: aizkolariak, **edo** sokatira, **edo** harri-jasotzea, **edo** pilota, **edo**... (Larringan 77)*

*Hurrek hamarretarako joan behar dute ohera, **bestela** oso nekaturik jeisten dira biharamonean. (EGLU III: 80)*

*Los Angeles oso hiri zaratatsua da. **Gainerantzean**, oso atsegina. (EGLU III: 88)*

*Dela zurekin **nahiz** dela zu gabe, ni banoa. (EGLU III. 17)*

*Ondo egia da **bai** pertsonen garraioan **eta bai** merkantzienean abiadura faktore garrantzitsua dela oso, batez ere eraman beharrekoak leku oso urrutetakoak direnean. (Esaizu. OHO 7. 163)*

7.2.2.5. Aurkaritzakoak

EGLU III.ean honela irakur daiteke aurkaritzakoei dagokienean:

«Izenak argiro erakusten duen bezala, bi perpaus artean gerta daitekeen kontrakotasuna edo aurkaritza emateko erabiltzen dira sail honetako lokailuak».

Testuei dagokienez, usuenik deskripzio edo azalpen testuetan agertzen dira eta konparazio edo aurkaritza parrafoak hariltzeko erabiltzen dira, sarritan zerbait deskribatzean kontrastea erabiltzen baita, deskribatu nahi den hori beste zerbaitekin parekatuz.

Formak:

Baina
 Aitzitik
 Ordea/ ostera
 Aldiz/ berriz
 Bitartean
 Baizik/ baino
 Dena dela
 Dena den
 Hala ere
 Hala eta guztiz (ere)
 Nolanahi ere
 Edozein modutan ere
 Hori horrela izanik ere

Adibideetara ekarrita:

*Harremani dagokienez, garai bateko moldeek apurturik dirudite. Izan ere, denda txikiaren aldeko bezero eta dendariaren arteko tratu zuzenak eskaintzen dizkien abantailak erabakiorrak iruditzen zaizkien **bitartean**, supermerkatuetarako joera erakusten duen askoren artean tratu estuak inposatzen duen konpromezua uxatu nahia aipatzen dute supermerkatura joateko arrazoi nagusi gisa, supermerkatura joan ohi diren batzuek tratuaren hutsa sumatzen dutela aitortzen badute ere. **Dena den**, badirudi berriro ere estimatzen hasia dela saltzaileekiko tratu goxoa. (Esalditik testura)*

*Sokrates eta sofistak berdinak dira hizketarako zaletasunari dagokionean eta eztabaidarako trebeziari dagokionean. **Hala ere**, zenbait puntutan nabariak dira beraien arteko desberdintasunak.*

*Sokratesen helburua ikasleak bere burua ahal den ondoena ezagutzea da, hau da, ikasleak bere baitan inplizituki gorderik dauzkan ezagutzak aurkitzea, eta eztabaida xede hori lortzeko bidea besterik ez da. Sofistek, **aldiz**, ondo hitz egiten erakustea beste helbururik ez dute, edozein gairen inguruan jardun behar dela ere. Elkarrizketa sokratikoak Egia eta Ongia bilatzen duen **bitartean**, sofistek eskolak Poliseko bizimoduan arrakasta ekar lezaketen trebezia oratorioak irakasten ditu. Sokratesen ustez, Ongia ezagutzeak, berezko ondorio gisa, etikoki zuzen jokatzeko ekarriko du; sofistek, **berriz**, planteatu ere ez dute egiten moralaren arazoa. (Cómo se escribe, moldatua)*

7.2.2.6. Baibainakariak⁸

Atal honetan sailkatuta agertzen diren lokailuak aurkaritzakoen artean sailkatuak ditu Euskaltzaindiak EGLU III.ean. Zer dela eta, bada, berariazko tratu hau?

⁸ Termino hau ere beste asko bezala Luis Mari Larringani zor diogu. Uste dugu izenak soilik oso ondo jasotzen duela adierazten duen kontzeptua eta betetzen duen funtzio diskurtsiboa.

Egia da, zentzu orokorrean, aurkaritzakoen artean zerrendaturik joan beharko luketela; baina, bestalde, argudiozko testuetan duten berariazko lekua kontuan izanik, atal berezia eskaintzea zilegi dirudi.

Izenak, argi uzten duenez, lokailu hauek bi proposizio lotzen dituzte eta normalean lokailuak kontzesioa egiten dio aurrekoari ondoren aurkako argudioa emateko.

Baliabide ezin hobeak dira, beraz, argudiozko testuetan tesia partez onartu eta aurkakoak garatzeko edo kontraargudiatzeko.

Formak:

Egia da...	
Baliteke...	
Ondo dago...	... baina
Bistan dago...	... baina, hala ere
Ezin uka...	... baina, dena den
Sinisgarria da...	
Ondotxo dakigu...	

Adibidez:

***Ukaezina da** emakumeak azken bolada honetan aurrerapauso izugarriak eman dituela berdintasuna lortzeko bidean. **Baina, hala ere**, ezin da ahaztu zenbait gizartetan berdintasun horren usainik ere ez dela oraindik somatzen eta lehen esandakoa herrialde eta inguru jakinetan baizik ez dela gertatzen.*

7.2.2.7. Ondoriozkoak

Lokailu hauek perpaus bat aurreko solas zatiaren ondorioa dela seinaltzen dute.

Argudio edo azalpen testuetan, kausa-ondorio parrafoetan, sarritan agertzen dira. Zientzia testuetan, (matematika, filosofia eta abarretan) ere erabili ohi dira.

Formak:

Beraz
Bada
Hortaz
Honela bada/ horrela bada
Honenbestez/ horrenbestez
Konklusio gisa
Ondorio gisa
Honen guztiaren ondorioz
Hau guztia dela eta
Hau dela eta bestea dela

Esanak esan
Kontu(t)an izanik
Azken batean/ finean...

Hona hemen zenbait adibide:

*Mendearen erdi aldera, Irlanda Ingalaterraren menpe zegoen eta bertako jendea erabateko miserian bizi zen: gosea nagusi, patata beste jatekorik ez zuten bizirik iraun ahal izateko. 1846-1848 urte bitarteko patata-uzta kaskarrak prezioak ikaragarri igo zituen: milioi bat pertsona inguru hil ziren. **Honen guztiaren ondorioz**, urte hauetan sekulako emigrazioa gertatu zen Irlandatik Estatu Batuetara. (Cómo se escribe, moldatua)*

Konklusio gisa, zera esango nuke: kale usoek ez dakarte inongo mesederik eta sortzen ditzuzten kalteak handiak dira. **Beraz**, hobe Donostian egin dutena Elgoibarren ere egingo balute: hilez kontrolatu. (Andres Alberdi. Eskola Gramatika)

7.2.2.8. Kausazkoak

Hauek ere, aurrekoak bezala, kausa-ondorio parrafoetan erabiltzen dira. Formak:

-(e)lako
-gatik
-t(z)earren
Bait-
-(e)la eta
Zeren...bait-/ -n
-(e)nez gero
-(e)la kausa
-(e)la bide

Esate baterako:

*Errenazimentuan urrutiko lurraldeetara egiten ziren itsasbidaia luzeek laguntza handia jaso zuten, portugaldarren eta espainolen eskutik, batez ere, eta ahalegin zabal hark emandako emaitzarik ikusgarriena Mundu Berriaren aurkikuntza izan zen. Bidaia eta esplorazio haiek guztiak, garai hartako gizonak bere buruarekin zuen konfidantza osoan oinarritu behar dira. Hala ere, abentura-egarri hark **bazituen bere alboan arrazoi askoz zehatzago batzuk ere**: merkatu zabalago batzuen beharra, esate baterako; edo sortu berriak ziren Estatu nazionalen espantsio politika; edo Konstantinopla turkiarren eskuetan erori izana, horrek Europak Ekialdearekin betidanik izandako salerosketa bideak mehatxupean jartzen **baitzituen**.*

*Gero eta animalia espezie gutxiago ditugu inguruan, askotan «ezinbesteko» deritzegun **arrazoiak direla eta**: basoen ustiapena, egunetik egunera*

ugariagoa den gizakiak bere esparrua zabaldu behar izatea gune naturalak murriztuz, nekazaritzako lurak zabaldu beharra, komunikabideak...

7.2.2.9. Narrazio antolatzaileak

Bere izenak dioenez, diskurtsoaren denbora markatzeko erabiltzen dira, gertaerak denboran kokatzeko, alegia.

Egia da, denborazkotzat hartzen diren zenbait lokailu, testuaren arabera, denbora deiktikoak izan ordez diskurtso berari erreferentzia egiteko edo argudiatzeko, ondorioztatzeko... erabiltzen direla. Esate baterako:

*Itzul gaitezen **orain** hasierara.
Zer ari zara, **orduan**, marmarrean ?*

Dena dela, hemen denbora adierazpen gisa aztertuko dira. Zerrendatuko direnak, beraz, narrazio antolatzaileak izango dira. Bere horretan, narrazio testuetan (ipuin, kronika eta abarretan) aurkituko dira maizenik. Dena den, izango dute bere lekua bestelako testuetan ere; esate baterako: prozedura adierazteko testuetan, garapen edo hurrenkera kronologikoa adierazten duten parrafoetan, argudio edo ideia bat zehazteko edo eraginkorrago bilakatzeko nork bere esperientzia gehitzen dionetan...

Hona hemen zenbait forma:

Sarrera egitekoak: gertakizun bat denboran kokatzeko.

Behin
Behin batean
Duela
Duela gutxi
... nintzeLA
Antzina
XII. mendearen hasieran
Kotxean nindoaLA
Gaur egun
Oraingo honetan

Denbora aldatzekoak: kontakizunaren denbora oinarri izanik, erreferentzia egin edo aldaketa igortzen dutenak.

Berehala
Bat batean
Halako batean
Orduan
Handik... -RA
-t(z)earekin batera
Geroztik
Aurreko egunean
Garai hartan
Biharamunean
Egun berean

Adibidez:

xvi. mendean egoera hau aldatzen hasi zen Paracelsus eta honen eskolako iatrokimikariekin. Paracelsus, tradiziotik zetozen sendagaiak baztertu

gabe, sendagai berrien bila hasi zen inguratzen zuten mineral eta landareak aztertuz(...). **Ordutik aurrera**, landare eta mineralak aztertzeko beharrezkoa ziren kimika-ikasketak derrigorrezko bilakatu ziren medikuntza fakultateetan. (Esalditik testura. 123)

Herenegun gauean, gazte bat hilda eta beste bat atxilotuta gertatu ziren Malagako polizia munizipalarengandik ihesi zihoazenean, automobil batean lapurretan zebiltzala deskubritu ondoren. (Sortuz 51)

Lanik aurkitzen ez badute, edozeri heltzeko prest agertzen zaizkigu. Konparazio baterako, **duela pare bat urte** nire lagun batzuek etxeko lanak egiteko pertsona bat behar zutela eta, anuntzio bat jarri zuten egunkarian. Hamaika emakume agertu zitzaizkien anuntzioa zela eta, baina baita Europa Ekialdeko bi gizonezko ere lanari heltzeko prest.

7.2.2.10. Adibidegileak

Ideiak edo kontzeptuak argitzeko, sarri askotan, adibideetara, esperientzia pertsonaletara, aipuetara eta halakoetara jo behar izaten dugu eta hala-koetan erabili behar izaten dira antolatzaile hauek.

Bestalde, baliabide ezinbestekoa da ikasketarientzat, azalpenetan etengabe adibideetara jo beharra izango baitute.

Formak:

Adibidez
Adibide gisa
Besteak beste
Konparazio batera(ko)
Esate baterako
Esaterako
Kasu
Hala nola
Hona hemen adibide gisa
Adibidez aipatzearen
Eman dezagun

Adibidez aipatzearen:

*Bada beste jende mota bat bere bizimoduagatik edo, zenbait bitaminaren beharra duena eta hauek osagarri bitaminikoaren 2. kategoria behar dutenen artean jarriko genituzke. **Adibidez**, presiopean lan egiten duen pertsonak B bitamina gehiagoren beharra izango du.*

*Baina emakume zahar hauez gain, badaude laguntza behar duten beste giza talde batzuk ere, **hala nola**, haurrak, ohiko prostitutak edota droga lortzeko beren gorputza saltzen duten horiek.*

*Lanik aurkitzen ez badute, edozeri heltzeko prest agertzen zaizkigu. **Konparazio baterako**, duela pare bat urte nire lagun batzuek, etxeko lanak egiteko pertsona bat behar zutela eta, anuntzio bat jarri zuten egunkarian.*

Hamaika emakume agertu zitzaizkien anuntzioaren aitzakian, baina baita Europa Ekialdeko bi gizonezko ere lanari heltzeko prest.

7.2.2.11. Birformulatzailerak⁹

Beren balioa aurretik esandakoa modu desberdinean berresatea, kontzepturen bat argitzea, ideia osagarriak ematea eta parafraseatzea da.

Testu-mota guztietan azaltzen dira: azalpenetan, deskribapenetan, argudioetan... Hitz ezezagunen esanahia argitzeko ere ezin aproposagoak dira eta baita ondorio parrafoak aurretiaz esandakoarekin harilkatzeko ere.

Ahozko diskurtsoan oso erabiliak dira ideiak behin eta berriro errepikatze-ko, ulergarritasuna areagotzeko, e.a.

Formak:

Hau da
Hots
Edo
Alegia
Hain zuzen ere
Bestela esanda
Zehazkiago esanda
Labur esanda
Hitz gutxitan
Nolabait esateko
Honek esan nahi du
Azken batean/ azken finean

Hona hemen adibide batzuk:

*Lekedak, beren jatorriari dagokionez, bi sail handitan bana daitezke: jatorri naturalekoak, **hots**, landare edo animalietatik ateratzen direnak, eta sintetikoak, **hau da**, kimika industrialaren prozedurez baliatuz lortzen direnak...*

Aditu askok lau talde nagusitan banatzen dituzte musika-tresnak, akustikaren printzipioetan oinarrituz. Hauek dira: idiofonoak, membranofonoak, aerofonoak eta kordofonoak.

*Idiofonoak, berez, erresonanteak diren materialez egindako tresnak dira. **Hau da**, berez sortzen dituzte soinuak. Dardarazteko erabiltzen den metodoari begiratu, sailka daitezke hauek: eraunspenez, **hots**, joka, material malguak deformataraziz ala marruzkaduraz. Lehen taldeko adibiderik ezagunenetako bat xilofonia dugu.*

*Horrelako lanak, hasteko, euskararen irakaskuntza izango zuen helburu zuzena. **Zehatzago esanik**, euskara bigarren hizkuntza bezala ikasten abia-*

⁹ Termino hau ere, aurrekoa bezala, Luis Mari Larringanen Tesitik jasoa da.

*tzen direnei begira burutu nahi zen oinarrizko hiztegi hau. Euskal hitzen zerrenda basikoa eskaintzea izango zuen xede lan honek, **hitz batean esanda**. (Larringan 257)*

*Hauxe da migrazio garaietan eta bereziki ekaitz gogorreneko egunetan, giza presentzia urriena den egunetan **hain zuzen**, normala izaten da kaio, itsas enara eta beste hegazti-espezie batzuetako talde handiak gure hondartzetara hurbiltzea atseden eta elikagai bila.*

7.2.2.12. Finkapenezkoak¹⁰

Aurretik esandakoa edo esan berri dena modu zehatzagoan finkatzera datoz.

Batzuetan, aurretik esandakoa esplizitoki adieraztea da beren funtzioa **hain zuzen ere**-ren kasuan esaterako. Beste batzuetan, **izan ere**-ren kasuan konparazio baterako, kausazko kateamendua erakusten dute eta, halakoetan, kausa-ondorio erlazioa adierazteko erabiltzen dira. Zehaztapen-parrafoetan erabiltzen dira.

Formak:

Izan ere
Hain zuzen ere

Hona hemen adibideak:

*Ausardiak ausardi, ordea, euskaldunek urteak eta mendeak zeramatzaten itsasoarekin harremanetan balea harrapatzen hasi aurretik. **Izan ere**, errekurtsio eskaseko herri batentzat, eta Euskal Herriko kostaldea ez zen oso naharoa, itsasoa bizibide garrantzitsu zen. (Euskal baleazaleak. Esaizu OH07 136)*

*Azken bolada honetan kotxe-istripuen kopurua ikaragarri areagotu da, eta horrek aseguru-etxeak benetan kezkatzen ditu; **izan ere**, gero eta diru gehiago ordaindu behar dute kalte-ordain gisa.*

*Alabaina, alergiari intzidentzia jendeak uste baino txikiagoa da, eztenkadetan %0,3 eta %3 bitartekoa **hain zuzen ere**.*

*Zenbait intsektuk, erleek eta erlastarrek, **hain zuzen ere**, babeserako erabiltzen dute eztena.*

*Orain dela gutxi arte, kalitatearen bilakaera nagusi izan den modu berean, berau baztertu gabe, produzio garbia bultzatzen da gaur egun, ingurugiroan arrastorik utziko ez duen industri iharduera, **hain zuzen**.*

7.2.2.13. Modalizatzaileak

(Ikus modalizazioa 87. orrialdean, egokitasunari eskainitako atalean.)

¹⁰ Larringanen Tesitik jasoa.

7.2.2.14. Atribuziorakoak¹¹

Testuetan agertzen diren enuntziatioak nork eginak diren jakiteko balio dute. Esan daiteke askotan iritzi bideratzaileak ere izan daitezkeela. Ez da erraza halakoen eta modalizatzaileen arteko muga zedarritzea, baina oso erabiliak direnez eta nonbait zerrendatu behar direnez, hemen bildu dira.

Besteak beste, iritzi-parrafoetan, berrietan, zitak egiteko... erabilera handia dute.

Formak:

X-k aditzera eman duenez
Askotan esan izan da
Batek esan zuenez
Baten batek pentsa lezake
Nire ustez
Entzuna dugunez
Esan ohi da
Ikusiko duzuenez
Iruditzen zait
Jendeak uste du
Nire iritzirako
X-k esan duenez
X-en arabera
X-k dioenez

Hona hemen hauen erabilera adibideetan:

*Horiek nola lortu, ordea, beste kontua da eta hor **aurki daitezke iritzi desberdinak**, batez ere hezitzaileen artean.*

***Batzuen iritiz**, irakaslea arbelera atera eta azalpenak emanez lortu da helburua. Alegia, orain gutxi arte jarraitutako bidea da egokiena horien ustez: azaltzea, ariketak eginaraztea eta ebaluatzeke azterketak erabiltzea.*

***Beste zenbaiten arabera**, ordea, ezagunak dira metodo horien emaitzak eta hobetzen hasteko ordua dugu. **Horien ustez**, ikastaldea lan-talde txikiagotan banatzea da lehen urratsa eta, horrela, irakasleak ikasleen lana gertuagotik jarraitzea, arreta pertsonalizatuagoa eskaintzea.*

***Nik neuk uste dut ez dagoela** bigarren sistema horren alde egiteko zailtzarik. Horrek, ordea, irakaslearen aldetik ahalegin berezia eskatzen duelakoan nago eta beldur naiz erronka horri erantzuteko prest egongo ote lirartekeen irakasle guztiak. Hala bedi ! (Esalditik testura)*

Bizilagunek esan dutenez**, familiari argindarra moztu zion aspaldi elektrizitate konpainiak ordaintzeko dirurik ez zuelako. Hotzari aurre egiteko suntu bat egin zuten padera bat erabiliz. **Kordobako Gobernu Zibilak be-

¹¹ Termino hau ere Luis Mari Larringani zor diogu.

rak onartu duenez, litekeena da sutontziak botatako karbono dioxidoagatik lau lagunak itotzea.

7.2.3. Puntuazioa

Aitortu beharra dago puntuazio-marken eremua ez dela, agian, oso argi eta zorrotz araututako horietakoa, beste zenbait edukiren eremuen aldean; izan ere, badira testuaren alderdi hau ezkutuan gordetzen duten gramatikak. Alabaina, horrek ez du esan nahi puntuazio-markak nork bere ajeei jarraikiz jarri behar direnik, ezta gutxiagorik ere.

Puntuazio-markak, aditu guztien esanetan, garrantzi handiko testu-antolatzailleak dira. Berauek dira, izan ere, testua egituratu, esaldiak mugatu, ideiak ordenatu eta garrantziaren arabera azpimarratu, informazioa sailkatu, gaizki-ulertuak saihestu, irakurketa ozenean arnasaldiak bideratu eta abar luzerako behar-beharrezko tresna. Argi dago, beraz, testu bat zuzen puntuatzeko era bat baino gehiago izan daitekeela onartuta ere, ikasketariak puntuazio-arauak landu egin behar dituztela, testu koherenteak gauzatzea lortuko badute.

Askotan puntuazio-arauak ez dira oso zehatzak, ezta oso sinpleak ere. Ez da komeni, beraz, puntuazio-markak lantzerakoan, arazoa azkenengo muturretara eramatea; bai, ordea, ikasketaria oinarritzko arauen jabe egin eta puntuazio-marken testuingururik behinenak zehaztea.

Hurrengo lerroetan puntuazio-marka garrantzitsuenak: koma, puntu eta koma, bi puntu eta puntua aztertuko dira, bertan bakoitzaren erabilerarako testuinguru jakinenak aipatuko direlarik.

KOMAREN ERABILERARI DAGOKIONEZ

Irakurketan egin behar diren pausaldi laburrak edo txikiak markatzeko erabiltzen da nagusiki.

Hona hemen komaren erabilerarako proposatzen diren testuinguruak:

—Perpaus batean kategoria edo maila bereko osagaiak jarraian agertzen direnean, komaren bidez bereizten dira. Honela:

Frantzia, Britainia Handian, Alemanian, Italian eta Austrian izan da Miguel gurea.

Hau esango zuela, bestea esango zuela eta azkenean ezer ez.

—Bai eta ez bat baino gehiago agertzen direnean, koma behar da. Adibidez:

Denak ditu atsegin, bai gorriak, bai horixkak, bai beltzak ere.

Nik ez ditut berrogeita hamar eskatzen, Sodomako hark bezala, ez berrogeita bost, ez berrogei, ez hoge, ez hamar. Bat bakarraren izena eskatzen dut.

—Koma artean idazten dira bokatiboak edo deikiak ere.

*Zatoz, maitea, ene besoetara!
Zer duzu, umea?*

—Esaldiaren harian etenaldia gertatzen denean, komaz adierazten da eten hori:

Hemen ere, beste edonon bezala, alferkeria ugari dago.

—Jarraian aipatzen diren hitzak, eta horien antzekoak koma artean idatzi ohi dira: *hala ere, hala eta guztiz ere, dena dela, dena den, hortaz, nolana ere, orduan (beraz-en zentzuan), bada, ordea, berriz, haatik, besteak beste, bestalde, gehienetan, egia esan, otoi, hotz, hau da, gainera, alegia, hain zuzen, esaterako...*

*Guk, ordea, ezertxo ere ez dugu egin.
Horrela, bada, dena konponduta./ Horrela bada, dena konponduta.
Txinatarrek, kontatzen dutenez, antzeko zerbait egin dute./ Txinatarrek kontatzen dutenez, antzeko zerbait egin dute.*

—Esaldi nagusi baten aurretik doazen esaldia menperatu batzuen ondoren ere, etena markatu nahi izanez gero, koma jarriko da, baina galdegaia denean ez da jarriko:

*Eguzkia izan arren, ez du batere berorik egiten.
Euria egiten duenean ekartzen dut euritakoa./ Euria egiten duenean, etxean geratzen gara.
Pilula hartzen baduzu, oheratzerakoan hobeto sentituko zara./ Pilula hartzen baduzu oherakoan, hobeto sentituko zara.
Ez da komarik jarriko, ordea, erlatibozko esaldien ondoan, subjektuaren funtzioa betetzen dutenean.
Hor ikusten dituzun perretxikoak ez dira pozointsuak.*

—Bi edo esaldi gehiagok aditz berbera daramatenean, elipsia eginez gero, koma jartzen da:

Lehen taldearentzat bira bi; bigarrenarentzat, hiru; hirugarrenarentzat, bat; eta laugarrenarentzat, hamar.

—Eta, edo eta ala partikulen ondoren ere ipin daiteke koma kasu batzuetan.

*Jon eta, ez dira etorriko.
Nekaturik zegoelako edo, etxera joan zen.
Ez zenekien ala, gaur ospatzen zela?*

—Aposizioak eta azalpen adierazgarritzat jartzen diren hitzak ere koma artean idazten dira:

*1984an, elurtea izan zenean, ikusi zuen lehenengoz.
Zure adiskideak, neska-mutil txepel horiek, berriro ere istilutan ari dira.
Zeuk egin beharko duzu, bai, bihar, agindutakoa.*

—Baina-ren aurrean koma (edo puntu ta koma) jarri behar da beti:

*Hiru litro daude, baina hori ez da nahikoa.
Ni ezin naiz joan, baina anaiari esango diot.*

PUNTU ETA KOMAREN ERABILERA

Ortografia ez da matematika, zoritxarrez; ez baita zenbakien jakintza bezain zehatza. Ez da oso zehatza, esaterako, puntu eta komaren erabilera argi eta garbi adierazterakoan. Komaren erabilera azaldu dugu; baina noiz idatzi behar da puntu eta koma?

Esana dago, puntu eta komaren testu-ingurua ez dela komarena bezain garbia; ezin, bada, komaren kasuan adina zehaztasun eman. Hau hala, ondoko lerroetan erabilera batzuk proposatuko ditugu, beti ere, magultasunez jokatzea komeni dela azpimarratuz.

Puntu eta komak, jeneralean, komak baino pausaldi luzexeagoa adierazten du. Hona hemen zenbait testu-inguru:

—Komaz bereizten diren esaldi baten zati nagusiak puntu eta komaz bereiziko dira, baldin eta zation barruan bestela ere komak erabiltzen bada.

Arrazoibidea (okerrekoa) honela ikusten dut: zenbait gazte edo, ari dira gure artean inon sar daitezkeen barrabaskeriak idazten; beste horiek euskaraz idazten dituzte barrabaskeriak; munduaren azken-fina hurbil ez badago, izango dira gazteagoren batzuk oraingoan ondoren; gazteago horiek, behar bada eta Jaunak nahi badu, hobeak izango dira, hots, ez gurasoak bezain aldrebeskerietara emanak; gazteago horiek euskaraz jakingo dute, gurasoenak irakurtzeko lain, bederen...

(Idazkera-liburua, 47 orrialdea)

—Jendearen izen-zerrendak idaztean puntu eta koma erabili behar da, baldin eta bakoitzaren ondoren deitura ez beste ezaugarri bat aipatzen bada.

Elkarrekin iritsi ziren atzo Arantxa Lete, Durangokoa; Manu Aranburu, Eibarkoa; Elena Etxenerria, Lizarrakoa; eta Maite Diaz, Torralbakoa. (Idazkera-liburua 49)

- Idea beraren bi alde desberdin edo kontrajarriak adierazten direnean. Esaldi laburretan koma bidez ere egin daitezke horrelako bereizketak.

*Ezin dezakegu horrela jarrai; hondamendira goaz zuzen-zuzenean.
Dakienak badaki; ez dakienak baleki!*

BI PUNTUEN ERABILERA

Puntuak esaldia bukatu dela adierazten du, baina bi puntuek justu kontra-koa: esaldia ez dela bukatu, jarraipena baduela eta jarraipen horrek mezuaren argibidea dakarrela, alegia. Honelako kasuotan erabil daiteke:

- Gutunetan, hasierako agurraren ondoren.

*Lankide hori:
Jaso nuen otsailaren seiko zure gutuna ...
Jaun agurgarria:
Idazki hau sinatzen duenak...*

- Norbaiten hitz testualak aipatzen direnean, bi puntu jartzen dira aipamenaren aurretik, hau letra larriz hasten delarik.

*Famatua da Sokrates-en harako hura: Ezagut ezazu zeure burua
Galdera hau egin zidan emakumeak: Non dago hondartza ?*

- Adibideak jarri nahi direnean, bi puntu jartzen dira enumerazioaren aurretik.

Bokalez hasten diren zenbakiak h letrarekin idazten dira euskaraz, ehun izan ezik: hiru, hamar, hamaika, hamabi, hogeit, etab.

- Enumerazio bat egiten denean, bi puntu jartzen dira aurretik.

Euskal Herriko herrialdeak zazpi dira: Nafarroa Garaia, Nafarroa Behera, Lapurdi, Zuberoa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba.

- Esaldiaren lehen zatia argitzera, frogatzera edo laburbiltzera datorren hurrengo zatiaren aurrean bi puntu jartzen dira.

Horrelakoxea da bizitza: gutxien uste duzunean dator ezbeharra.

PUNTUAREN ERABILERA

Denok dakigunez zentzu osoa duten periodoak bereizten dituen marka dugu. Bi eratakoa da: puntu eta jarraia; eta, puntu eta aparte.

Bereizten dituen periodoen arteko lotura hestua denean; ideia orokor baten azpi-atalak edo, bereizteko erabiltzen denean, puntu eta jarraia erabilko da. Bestela, berriz, ideien segidan pausu berria ematen denean, puntu eta aparte .

Hauetaz gain, badira bestelako puntuazio markak ere: etendura-puntuak; galdera-markak eta harridura-markak; parentesiak; komatxoak; gidoi eta martratxoak; marra; eta apostrofoa. Dena den, azkenengo hauek duten garrantzia gutxitu gabe, aurrekoen aldean bigarren mailako eragina dutela esan daiteke, testuak sortu eta ideien arteko kohesioa eta koherentzia bermatzeko orduan, bederen.

7.3. Baliabide linguistikoak. 4.000 atala

Eredu teorikoari zegokion atalean aipatu bezala, hizkuntza formalari, morfologia, sintaxia, lexikoa eta fonologiari dagozkionak ditugu. Hona, hurrengo eranskin honetan atalez atal, 4.000n ikasketariiek bereganatu behar dituzten hizkuntz formak.

4.000 atala

MORFOLOGIA (eta beste)	
<ul style="list-style-type: none"> — Deklinabidea <ul style="list-style-type: none"> • Izenen deklinabidea <ul style="list-style-type: none"> – Zenbakiak (data eta orduak) – Leku/ denbora – Kasu bikoitzak – -KO/ -REN • Galdetzaileak <ul style="list-style-type: none"> – -KO/ -REN bidez egindakoak: no-rentzako, zenbateko, norenganako, norekiko... — Izenordaina <ul style="list-style-type: none"> • Mugagabeak <ul style="list-style-type: none"> – I/E + galdetzailea: inor, ezer, inori... – Edo + galdetzailea/ nornahi – Galdetzailea + bait-/ nor edo nor • Bihurkariak <ul style="list-style-type: none"> – X-en burua (erdararekiko interferentziak) • Elkarkariak: elkar/ bata... bestea... • Erakusle indartuak <ul style="list-style-type: none"> – Bera 	<ul style="list-style-type: none"> • Bestelakoak: <ul style="list-style-type: none"> – Norbera/ nor bere — Gradu lokuzioak <ul style="list-style-type: none"> • Are...-ago/ ezin...-ago/ zein baino zein...-ago • Zenbat eta...-ago orduan eta...-ago • Gero eta...-ago/ inoiz baino...-ago — Adberbioak <ul style="list-style-type: none"> • Mugagabeak <ul style="list-style-type: none"> – I/E+galdetzailea: inongo/ inolako+partitiboa – Edo + galdetzailea: edonon... – Edozein + izena: edozein garaitan – Galde...+ nahi: nonahi, nondik-nahi – Galde...+ bait: nonbait... – Galde...+.edo + galde...: non edo non... • Maila aditzondoak <ul style="list-style-type: none"> – Nahikotasuna: nahiko(a), samar, dezente

MORFOLOGIA (eta beste)	
<ul style="list-style-type: none"> – Osotasuna: oso, izugarri, ikaragarri, sano, ondo – Erabatekotasuna: erabat, guztiz, zeharo – Bestelakoak: erdi • Iritzi adberbioak – Ziurtasuna: jakina, noski, zalan-tzarik gabe,... – Ziurtasun eza: bada-ezpada ere – Probabilitatea: beharbada, agian, seguru asko, dirudienez, antza denez... <p>— Posposizioak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arabera, bide, esker, esku, gisa, jabe,... • Alde, aurka, inguru, gabe, arabera, buruz, gisa, ordez, arlo, gora, behera, kanpo, gain, bestalde +ko: aldeko, inguruko... <p>— Partikulak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Omen/ Ei; Ote/ Ete 	<p>— Aditz-izena</p> <ul style="list-style-type: none"> • -T(Z)EN /-T(Z)EA • -T(Z)ERIK • -T(Z)EAZ • -T(Z)EKO: honen bidez osatutako perifrasiak <p>— Aurrizki-atzizkiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • -keta, -gintza, -men/ -pen, -kizun, -dura, -kor, -era, -koi,-bera, ezin,-erraz, <p>— Hitz elkartuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Izena + izena • Koordinazio elkarketak: barre-algara • Menpekotasunezkoak: belar usaina • Aditzoina + izena: jolasleku, ikastordu • Izenkia + izena: ikaste prozesua (ikaste-prozesu) • Izena + izenkia: auto egile (auto-egile) • Izena + adjektiboa: esku-zabal

MORFOLOGIA

Deklinabidea

Ikasketariak, dena aurreko ataletan ikusita eduki arren, oraindik ere zenbait kasutan ez du behar adinako automatismo eta ziurtasun lortu eta tarteka hutsegiteak egiten ditu. 4.000 atal honetan deklinabidearen zenbait atal berrikusi eta finkatzea komeni da:

—Izenen deklinabidea

- Datak eta orduak
Sarri askotan nahastu egiten dituzte egunen eta orduen deklinabidea, eta halako akatsak egin:

**Abuztuaren 5etan arratsaldeko 5ean.*

Komeni da, beraz, finkatzea bien deklinabidea. Era berean, eta orduen kasuan ordu osoen, laurdenen eta erdien deklinabidea berrikustea ona izango litzateke.

- Leku-denborazkoak
Kontsonantez bukatzen diren izenen deklinabidea. Era honetako akatsak zuzentzea komeni da:

**Trenatik; *komunan*

Hilabeteen deklinabidea: kontsonantez bukatzen diren hilabeteen deklinabidea berrikusi behar da era honetako akatsak zuzentzeko:

**Otsailan; *maiatza; *urtarrilako*

Badira zenbait hitz leku-denborazko kasuetan mugagabea eskatu arren ikasketariak singularrean erabiltzen dituztenak. Zuzentzea komeni da, beraz, erabilpen okerra.

Uretan sartu/ ardotan busti/ umetan/ belarretan etzan/ elurretara joan...

Halakoetan batzuetan singularraren erabilpena beharrezkoa da baina orduan esanahi desberdina hartzen dute:

*Eguzkitan egonda erre egingo zara.
Eguzkian helio gasa ugaria omen da.*

- Kasu bikoitzak
3.000 atalean ikusiak izan dira. Hala ere, ikasleen informe eta zientzia testutan maizenik agertzen direnak bederen, finkatzea beharrezkoa da. Hona hemen halako batzuk:

*Irakaslearekiko/ lanarekiko jarrera
Gurasoekiko harremanak
Irakasleenganako konfidantza
Ardatz honekiko simetrikoa da ez ordea bestearekiko
Goranzko/ beheranzko joera.*

- -KO deklinabide atzizkiaren erabilera finkatzea komeni da ondoko atal hauetan:
Zenbatzailea + izena: adina, prezioa, neurria, pisua... adierazten duten izen lagunak.
Euskaltzaindiak hobetsi bezala, singularreko erabilpena bultzatu behar da:

Bi urteko (urte biko) haurra; hamar metroko zabalera; mila pezetako sarrera, hiru asteko egonaldia...

Izena + izenondoa + -KO + izena

Garrantzi handiKO erabakia; irudimen handiko umea

Izen multzoa + -KO + izena

Horren antzeko gauza; Nobel izeneko saria...

Behar izan/ ezin izan + -KO + izena

Egin beharreKO guztia; ahaztu ezinezKO hitzak

Balio banatzailekoa

Mila pezeta eguneko eta pertsonako; kilometro orduko abiadura; ehuneko hamarreko deskontua

Gutxienezko/ gehienezko
Adberbio konposatuak + -KO + izena

Hitez hitzeko itzulpena, banan banako azterketa...

—*Galdetzaileak*

Kasu bikoitzarekin batera bi deklinabide atzizki hartzen dituzten galdetzaileak berrikusi behar dira: norako, noizko, norekiko, norenganako, zeinentzako...

Izenordainak

—*Zehaztugabeak*

- I/E + galdetzailea (INOR/ EZER...)
Erabilpen arruntaz gain aurreko atalean ez bezala galderetan eta baieztoketan duen erabilpena ere lantzea komeni da:

Inor etorri al da/ Ezer behar baduzu badakizu nora etorri.

Ohiko akatsak zuzendu:

- * *Nik ez dut ezer ez esan.*
- * *Nora zoaz? Inora.*

- EDO + galdetzailea (Edonor, edozer...)
EDOZER (edozein) + mugagabea
Kasu honetan izenordainarekin batera *Edozer/ edozein* + Mugagabearen erabilpena sartuko da beharrezkoa denean. Adibidez:

Edozer (gauza) jango luke horrek orain/ Edozeini (edozein pertsonari) ezin zaio halakorik esan, ume.

- Galdetzailea + NAHI (nornahi, nonahi, nolanahi...)
- Galdetzailea + BAIT (norbait/ zerbait...)/ Zer EDO zer. Erabilpen handia duen bigarren forma landuko da eta lehenengoa berrikusi. Zehaztugabe guztiak batera lantzea komeni da, sarritan nahastu egiten dituzte eta.

—*Bihurkariak*

Forma arruntak menperatuko ditu ikasketariak maila honetan. Hala ere, badira forma batzuk erdararen interferentziagatik arreta berezia eskatzen dutenak.

Besteak beste:

*Bainatu nintzen/ *Neure burua bainatu nuen.
Eskuak garbitu ditu/ Garbitu naiz.
Besoa apurtu zuen istripua/ *Besoa apurtu zen istripuan.
Botak jantzi ditut/ Azkar jantzi nintzen eta...
Ez da ezagutzen/ Ez du bere burua ezagutzen.

—*Elkarkariak*

Elkarrekin batera erabilera arloan maiztasun handia duen *bata beste* lantzea komeni da. Hona hemen zenbait adibide:

Elkarren ondotik pasa ginen eta ez genion elkarri agurrik egin./ Bata bestearen ondotik pasa ginen baina ez genion batak besteari agurrik egin.

Ipin itzazu bata bestearen ondoan.

Elkarren ondoan jartzen badituzu, ez dute batere lanik egingo./ Bata bestearen ondoan jartzen badituzu ez dute batere lanik egingo.

Batak besteari sekulakoak esanda ere ez dira sekula hasarretzen.

Kontuz honelakoetan elkarrekikotasuna ez baita benetakoa.

*Bata bestearen barruan/ *elkarren barruan
Bata bestearen gainean/ *elkarren gainean*

Gradu lokuzioak

Ikasleen txosten/ ebaluazio fitxetan maizenik erabiltzen direnak berrikusi:

*Ezin langileagoa da.
Gero eta lan gutxiago egiten du.
Zein baino zein bakartiagoak dira.
Zenbat eta estuago hartu orduan eta egonezin handiagoa erakusten du.*

Adberbioak—*Mugagabeak*

Aurreko atalean, izenordainen atalean alegia, esandakoaren haritik ari-tzea komeni da. Horretaz gain bestelako hauek ere landuko dira:

- INONGO/ INOLAKO + partitiboa

Ez du inolako arrazoirik eman egin duena egiteko.

- INONGO/ INOLAKO + izena

*Ez dugu inolako istiluetan sartu nahi.
Ez naiz inongo jaietan egon.*

- EDO + galdetzailearen leku-denborazko kasuetan EDOZEIN + Mu-gagabearen erabilera bultzatzea komeni da. Esate baterako: *Edonoiz etor zaitzke baina maiztasun handiagokoa dugu edozein garaitan/ momentutan etor zaitzke.*

Edonora joateko prest omen dago./ Edozein lekutara joateko prest omen dago.

Gaur egun edonondik etor dakizuke ustekabea./ Gaur egun edozein le-kutatik etor dakizuke ustekabea.

- Galdetzailea + -BAIT (nonbait/ norabait ...)
Berrikusi eta bere ordeztasun handia duten: non edo non/ noiz edo noiz/ non edo nondik... erabiltzea komeni da.
- Bestalde, honekin batera beste esapide hauek ere lantzea komeni da, maiztasun handiz erabiltzen baitira:

Nola edo hala/ zelan edo halan lortu behar dugu.

—*Maila aditzondoak*

- Nahikotasuna: nahiko(a), samar, dezente

Nahiko(a) ondo moldatzen da lagunekin.

- Osotasuna: oso, sano, ondo, izugarri, ikaragarri.

*Oso egoera txarrean aurkitu zuten elur jausiak azpiratutako mendizalea.
Esan duzun hori sano interesgarria da (Bizkaian batez ere)
Esan duzun hori ondo interesgarria da (Gipuzkoan)*

Komeni da bereiztea: Izugarri/ itzel + izenondoa/ aditzondoa eta izu-garrizko /itzelezko + izena.

*Izugarrizko/ itzelezko lana egin du= Lan itzela/ izugarria egin du.
Izugarri/itzel (batik bat Bizkaian) langilea da.*

- Erabatekotasuna: guztiz, zeharo, erabat
- Erdi:

Erdi txantxetan esan genion arren erdi negarrez utzi genuen.

—Iritzi adberbioak

Testuen modalizazioarekin zuzenean lotuta ditugu adberbio hauek. In-
guru horretan, testuetan txertatuta lantzea komeni da.

Ziurtasuna: jakina, zalantzarik gabe/ zalantza barik...

Ziurtasun eza: bada-ezpada

Posibilitatea: beharbada, agian, seguru asko, dirudienez, antza denez...

Posposizioak

Aurreko ataletan ikusi diren arren berrikustea komeni da, maiz askotan
akats iturri izaten baitira. Bereziki lantzea komeni da -KO atzikia har dezake-
tenak:

Beharren araberako plangintza.

Zortzi urte inguruko ume bat etorri zitzaigun.

Eskolaz kanpoko ekintzak.

Linguistikari buruzko liburua.

Partikulak

—omen/ ei partikulen erabilera finkatu

—ote/ ete

Batez ere era honetako testuinguruetan landuko da:

Ba ote daki ezer horrek?

Ahaztu egin ete jako (zaio) gaurko bilera?

*Nahikoa esan ote diogu hurrengoan berriro ere gaur egindakoa egin ez
dezan?*

Ondoko testuinguru hau, balorazioak emateko erabilitakoa, zailagoa
egiten zaie. Komeni da, beraz, denbora apur bat eskaintzea halako era-
bilerari, testuen modalizazioan bere garrantzia izango du eta.

Beldur naiz galdu ez ote garen./ Beldur naiz ez ote garen galdu.

Zalantzan nago lortuko ote dugun.

Ez dakit txarragoa ez ete den.

Aditz-izena

Aditz-izenaren deklinabidea berrikusi egin behar da. Maiztasun handiena duten kasuak finkatu behar dira eta horretaz gain, bereziagoak direnak landu. Hona atal honetan landuko direnak:

—T(Z)EN/ -T(Z)EA adiera jakin hauetan:

*Ona da egunero lana egitea.
Hau oso ona da eskulanak egiten.*

—T(Z)EAZ: gainera, aparte, batera posposizioekin.

Egunero irakurtzeaz gain zerbait idaztea ere komeni zaio.

—T(Z)EAZ: poztu, nekatu, arduratu, aspertu... aditzekin. Kontuan izan halakoetan oso erroturik daudela -T(Z)EN formak ere.

Nekatuta nago egunero gauza berbera egiTEAZ/egiTEN.

—T(Z)EKO moduan/ moduko(a)

—T(Z)EKO(-A,-AK) + Izan.

Euskara mintzatuan bultzatu behar dira halakoak.

*Harritzekoa da nola handitu den.
Ikustekoak ziren garai hartan plaza erdian izaten ziren jokoak.
Joatekoak ginen baina... (asmoa adierazteko).
Hori zuek egitekoa da (obligazioa).*

—T(Z)EKO + EGON

Ekintza oraindik ere etorkizun dagoela adierazteko.

Hori oraindik ikusTEKO dago.

—T(Z)ERIK

Debekua adierazi, baimena eskatzeko esapideetan:

*Ez dago/daukagu... hemen ezer egiterik.
Aizu, hemen jaterik badago/ badaukagu?*

—T(Z)ERA

Behartu, bultzatu, ausartu, gonbidatu, kondenatu, heldu, iritsi... Kontuan izan hauek zenbait euskalkitan -T(Z)EN hartzen dutela.

Aurrizki-atzizkiak

Honezkero ikasketariak, aurreko ataletan ez bezala, hizkuntzaren funtzio-namenduaren ikuspegi orokorra izango du eta gai izango da atzizkiek lexiko

sorketan duten balioaz jabetzeko. Hizkuntza arruntean maiztasun handia dutenak erabiltzeko gai izango da baina hurrengo bi ataletan 4.000 eta 5.000n berrikusketa orokorra eta zientzia-testuetan, ikasleen ebaluazio fitxa eta abarretan sarriago erabiltzen direnen jabe egin behar du.

Hitz elkartuak

Eratorketak bezala hitz elkarketak berebiziko garrantzia du lexikoaren sorreran. Ikasketaria balio honen jabe da eta gero eta sarriago erabili beharko ditu batetik, zenbait hitz ezezagunen esanahia argitzeko eta bestalde, eskola edo zientzia-testuak ekoizten dituenean kontzeptu zehatzak adierazteko.

MORFOLOGIA: ADITZA	SINTAXIA
<ul style="list-style-type: none"> — Baldintza Hipotetikoa <ul style="list-style-type: none"> • Laguntzaileak: N-Ni-Nk, N-Nk, N-Ni • Trinkoa: jakin, egon... • Balitz bezala, balio bezala... — Iraganeko baldintza <ul style="list-style-type: none"> • N-Nk, N-Ni, N-Ni-Nk <ul style="list-style-type: none"> – Nintzatekeen, zatekeen... – Nukeen, zukeen... – Niokeen, zizkioken... — Iraganeko geroaldia <ul style="list-style-type: none"> • Joango zen — Agintera (berrikusi) — Ahalezko hipotetikoa <ul style="list-style-type: none"> • N, N-Nk, N-Ni-Nk, (N-Ni?) — Ahalezko lehenaldia <ul style="list-style-type: none"> • N, N-Nk, N-Ni-Nk (N-Ni?) — Sujuntiboa <ul style="list-style-type: none"> • N, N-Nk, N-Ni-Nk, (N-Ni?) — Aditz lokuzioen aspektua <ul style="list-style-type: none"> • Berrikusketa orokorra — Aditz trinkoak +ki <ul style="list-style-type: none"> • Iritzi; egon; jario; etorri — Forma inpersonalak 	<ul style="list-style-type: none"> — Berrikusketa orokorra — Aditz-izena <ul style="list-style-type: none"> • Berrikusi. (Ikus Izen-sintagmari dagokion atala) • -tzeak, joan izana — Erlatiboa <ul style="list-style-type: none"> • -neko • Zein ... bait... azalpenezkoa • Kasu bereziak — Gerundiala <ul style="list-style-type: none"> • -la(rik) — Baldintzazkoa <ul style="list-style-type: none"> • -tzekotan — Moduzko esaldiak <ul style="list-style-type: none"> • Berrikusi • Ez bezala(koa) — Konparazioa <ul style="list-style-type: none"> • Konparaketa eliptikoak • Adina/beste+ko + izen neurgaitza — -lako <ul style="list-style-type: none"> • -lako + izena = -N + izena • Delakoa/direlakoak • -lakoan

ADITZA

Baldintza hipotetikoa

Aurreko ataletan landu den arren ondoren zerrendatzen diren funtzioetan erraztasun handiz erabiltzeko adinako gaitasuna lortu behar da:

—Ondorioak atera.

*Itsasoko ur maila igoko balitz zenbait herri urperatuko lirateke.
Zer egingo zenuke nire lekuan egongo bazina?*

—Aholkuak eman.

*Ni zure lekuan egongo banitz ez nioke halakorik esango.
Ondo etorriko litzaioke egunero zerbait irakurtzea.*

—Proposamenak egin.

Eta bihar joan beharrean etzi joango bagina ...?

—Ametsak/ nahiak adierazi.

...gehiago ahaleginduko balitz/ saiatuagoa (izango) balitz...

—Asmoen/ planen berri eman.

*Gustura joango nintzateke ikasketa bidaiara.
Gustura lagunduko nizuke baina...*

—Zenbaitetan oso egoera formaletan, hartzailea urrutikoa bada, bai-
mena, laguntza edo berri eskatzeko, halako formak erabiltzen dira:

*Aizu, lagunduko zeniguke lan hau bukatzen?(lagunduko didazu)
Itzuliko al zenidake atzo utzi nizun liburua? (itzuliko didazu)
Esango al zenidake non bizi den X jauna? (esango al didazu)*

—Honetaz gain, maiztasun handiko aditz sintetikoen zenbait forma ere
finkatzea komeni da: Hona hemen horietako batzuk:

*Gure amak baleki...
Etxean balego deituko genioke baina...*

—*Balitz BEZALA/ Balu BEZALA* eta antzeko formak lantzea ere komeni da.

Iraganeko baldintza

Hau ere, aurrekoa bezala, 3.000 atalean landua izan da. Finkatzea ko-
meni da halako funtzioak betetzeko:

—Damua adierazteko.

...garaiz heldu izan banintz...

—Norbaiti esandakoa egin ez izana aurpegiratzeko.

*Polikiago ibili (izan) bazina...
Nik esandakoa egin (izan) bazenute...*

—Iraganean gerta zitekeenari buruzko konjeturak egiteko.

Il Mundu Gerra aliatuek irabazi (izan) ez balute...

—Aitzakia adierazi.

Jakin (izan) banu...

—Iraganeko ondorioak atera.

Ordurako heldu (izan) balitz ez nion ezer esango.

Ondokoa: Ahozko adierazpenari dagokionez Euskaltzaindiak onartutako «joango nintzen» moduko formak erabiliko dira. Idatzizkoari dagokionean ere «joango nintzen» erako formak erabiltzea gomendatzen dugu, egoe-rak, oso formala edo goi-mailakoa izaki, bestelako erabilera eskatzen ez badu.

Iraganeko geroaldia

Kosta egiten zaio ikasketariari iraganeko geroaldiko formak erabiltzea eta askotan baldintzazkoekin nahasi egiten ditu, gazteleran aditz-forma berbera erabiltzen baita bi funtzioetarako. Komeni da, beraz, biak ondo bereiztea.

Zenbait kontakizunetan askotan erabiltzen da, iraganeko geroaldikoa, suposizioak egiteko. Esaterako:

Bost edo sei besterik ez ginen izango baina sekulako jipoia eman genien ondoko auzokoei.

Edo bestela:

Hori, Inesek egingo zuen, bera ibiltzen da eta beti entxufeak konpon-tzen.

Agintera

Berrikusi oinarrizko zuzeneko eta zehar agintera.

3.000n ikusiak eta landuak izanagatik ere N-Nk erako zenbait forma lan-tea komeni da: *Nazazu/e; gaitzazu/e*

Gaitezen eta *dezagun* erako formak eta aditz sintetikoen bestelako batzuk: *goazen*, *gatozen*, *demagun*... erabiliko dira honelako funtzioak betetzeko.

- Proposamena egiteko: *Goazen etxera*
- Hipotesiak egin edo adibideak emateko: *Eman dezagun...; ...suposa dezagun...; ...jo dezagun*
- Aginduak emateko: *Has gaitezen lanean...; ...azter dezagun...*
- Harira itzultzeko: *Gatozen harira; itzul gaitezen lehengora...*

Erabilerari dagokionez, komeni da bereiztea zeintzuk erabiltzen diren ahoz eta zeintzuk idatziz. Ahoz denak erabil badaitezke ere, ez da hala gertatzen idatzizkoan. Esaterako: *gatozen harira*, *itzul gaitezen lehengora*, *goazen etxera*, *has gaitezen lanean*... ahoz erabiltzen dira maizenik.

3. pertsoneri dagokienean subjuntiboari -LA lotu behar zaio:

*Irteten denean itxi dezala atea .
Nahi duen bezala egin dezala baina egin dezala azkar.*

Ahalezko hipotetikoa

3.000n landuak izango dituzte formarik erabilienak. Hala ere, oraindik ere finkatu gabe izango dituztenez sistematikoki lantzea komeni da. Lantze sistematiko horretaz gain ahozko erregistroetarako, nagusiki, ahalerazko formen aldean maiztasun handiagoa hartzen duten bestelako batzuk ere lantzea komeni da.

- Baimena eskatzeko.

*Aizu, joan gintezke?
Joaterik izango genuke.
Gu joan ahal izango gineteke?*

- Proposamenak egiteko.

*Aizu, hau ezin liteke/ genezake beste era batean konpondu?
Ez genuke beste era batera konpontzerik izango?
Eta... beste era batera konponduko bagenu?*

- Planak, asmoak adierazi.

*Honela eginda, bi egunetan buka litezke/ genitzake lanak.
Honela eginda bi egunetan bukatu ahal izango lirateke/ genituzke.*

- Mesedeak eskatu.

*Ekar zeniezadake, biharko.
Ekarriko (ekarri ahal izango) zenidake/ didazu biharko?*

—Ondorioak adierazi.

Horrela balitz ezin genezake/ izango genuke ezer egin.

—Posibilitatea, gaitasuna adierazi.

Edozein momentutan entzun genezake honelako eztabaida: «Beno, ni-retzat behintzat, egia duk nahiz eta hiretzat ez izan».

Ahalezko lehenaldia.

Izatez hipotetikoko formak baino maiztasun urriagoz erabiltzen dira forma hauek, beraz, 3.000 atalean esaten zen haritik ikasketariak forma hauek ulermen mailan identifikatzeko adinako ezagutza lortu behar du. Hone-taz gain, ekoizpenari dagokionez formarik erabilienak ekoizteko gai izan behar du. Esaterako:

Espero zitekeena gertatu zen...

Ezin zitekeen bestelakorik egin; horregatik onartu behar izan genuen...

Dena dela, hizkuntza mintzatuari dagokionez, batipat, posibilitatea eta ezintasuna adierazteko bestelako forma erabiliagoak bultzatu eta landu behar dira. Hona hemen adibide batzuk:

Lana hobeto egin genezakeen, baina ez genuen horretarako astirik izan.

Lana hobeto egiterik bagenuen, baina ez genuen horretarako astirik izan.

Gu txikitan ezin gintezkeen gaurko gazteak bezain berandu etxeratu.

Gu txikitan ezin izaten ginen gaurko gazteak bezain berandu etxeratu.

Guk txikitan ez geneukan gaurko gazteak bezain berandu etxeratzerik.

Subjuntiboa

Paradigma osoak ikusiko dira, ezagutza mailan, bederen. Erabilpen mailari dagokionean formarik erabilienak baino ez dira sistematikoki landuko. N erako formak, N-Nk erako 3. pertsonari dagozkionak eta dezenteko maiztasuna duten *nazaten, gaitzaten, nazazun, gaitzazun...*nagusiki eta N-Ni-Nk erakoak

Euskaraz, euskara mintzatuan batez ere, inguruko erdaratan baino askoz ere erabilera murriztagoa du subjuntiboak. Hau dela eta, duen garrantzia, eta ez gehiago, ematea komeni da.

Aurreko ataletan, 2.000 eta 3.000n, hasia da ikasketaria subjuntiboa lan-tzen. Aginterari dagokion atalean landuak ditu dagoeneko, ikasketariak 1. eta 3. pertsonari dagozkien subjuntibozko adizkiak. Besteak beste landuak ditu era honetako formak: *Eman dezagun, has gaitezen, ikus dezagun, gatozen harira, goazen jolaslekura...*

Edo bestelako hauek:

Gera dadila dagoen lekuan, etorri berria da eta...

Atal honetan aurrekoak berrikusi eta ondoko funtzio hauen inguruko erabilera landuko da.

—Helburua adieraztea

Duela urtebete laguntza berezia eskaini genion, hizkuntzaren arloan zituena ezak edo hutsuneak bete zitzaizkion...

—Nahia, desioa... adieraztea

...ahalik eta azkarren erantzun diezaguzuen eskatzen dizuet, zuenak huts egiten badigu beste aukera batzuk aztertzeko denbora izan dezagun.

—Zehar estilokoa

Kontuz ibil dadila esan diot baina alperrik.

Subjuntiboaren erabilerearen arloan aipatu dugu idatzizko adierazpenetan eta hizkuntzaren erabilera formaletan subjuntiboa erabiltzen bada ere, euskarara mintzatuaren nagusiki, inguruetako erdaretan baino askoz ere gutxiago erabiltzen dela. Hau dela eta, dagokion neurrian landu eta bere ordezkotzat erabilera proposatzea komeni da. Hona hemen zenbait adibide:

—Borondatezkoak: nahia, desira, gomendioa... adierazten dutenak. Hala ere, koetan bai ahoz eta baita idatziz ere, oso egoera formaletan salbu, aditz-izena maiztasun handiagoz erabiltzen da.

Josuk ni geratzea nahi du baina ezin dut./ Josuk ni gera nadin nahi du baina ezin dut.

Laster itzultzea espero genuen baina .../ Laster itzul zedin espero genuen baina...

Ume artean ibiltzea komeni zaio./ Ume artean ibil dadin komeni zaio.

—Esan, gomendatu, agindu... erako aditzekin. Hauetan ere, erregistroaren arabera, aditz-izena erabiltzeko joera dugu garaile.

Kontuz ibiltzeko esan diot baina alferrik./ Kontuz ibil dadin esan diot baina alferrik.

Matematika lantzeko (lantzea) gomendatu diote irakasleek./ Matematika landu dezala gomendatu diote.

—Helburuzkoetan, aurrekoetan bezala, erregistroek agintzen duten arren, ahozkoan arruntagoa da subjuntiboetako formen erabilera... Ho-

nela, hurrengo adibideetan maiztasun handiz erabiltzen da subjuntibo-
bozkoa, baita ahozkoan ere.

*Zer egin behar dizuegu esandakoa egin dezazuen?/ Zer egin behar di-
zuegu guk esandakoa egiteko?*

*Gozoki mordoa eman behar izan nien nik esandako lekura joan zitezene./
Gozoki mordoa eman behar izan nien nik esandako lekura joateko.*

Aditz lokuzioen aspektua (behar izan...)

Hau ere landua izango du ikasketariak aurreko Ataletan baina, duen maiz-
tasuna eta sarri askotan akats bide izaten dela ikusirik, ondo finkatzea ko-
meni da.

Aditz trinkoa: egon, iritzi, erion (jario), etorri.

Besteen artean, aipatutako hauek landuko dira, maiztasun handiena du-
tenak dira eta. Ikusiak ditu ikasketariak aurreko atalean baina ikusi izanak ez
du esan nahi bereganatuak dituenik. Horregatik komeni da aditz hauek be-
rriro ere lantzea.

— *Iritzi* aditzari dagokionez, sarri askotan zail samarra egiten zaie ikaske-
tariei, gazteleraz ez bezala, N-Ni-Nk- erregimena duela ulertzea. Horre-
gatik bere ordeaz erabil daitezkeen *iruditzen zait/ ez dut horretaz batere
iritzi onik...* berarekin batera lantzea komeni da.

— *Egon* aditza dela eta *-ri* dagokionez finkatzea komeni da eta *-ri buruz
eta -ri* dagokionez en arteko desberdintasuna argitzea. Honetaz gain
beste halakoetan ere maiztasun handiz erabiltzen da:

*Zuri dagokizu gaur patioa zaintzea, eta ez niri.
Guri dagokigunez, ez dago arazorik.*

— *Erion (Jario)*. Kasu honetan formarik arruntenak landuko dira: *dariola/
zeriola ...* eta bide batez moduzko -LA ere berrikusiko da:

*Komuneko iturria konpondu beharko dugu, ura dariola dago eta.
Odola dariola eraman genuen ospitalera.*

— *Etorri*: Hau dugu aditz sintetikoaren artean, N-Ni erakoan, erabiliena. Go-
mendatzen da, beraz, formarik erabiliarik, 3. pertsonari dagozkionak,
lantzea. Hona hemen zenbait adibide:

*Mila esker, oso ondo datorkit gela berria apaintzeko.
Zer moduz datorkizu bihar?. Ez datorkit batere ondo, nahiago nuke etziko
utziko bagenu.
... hortik omen datorkio izena.*

Forma inbertsonalak

Ikasketariak orain arte N-Nk erako aditzak inbertsonalean adierazi behar direnean N formara bihurtzen ikasi du aditz sinpleetan: *esan behar da/ egin behar da/ eman behar da* eta halakoak. Orain forma konplexuagoak ikasi behar ditu, batez ere Z-Ni-Nk erakoak N-Ni aditz-forman jartzen. Adibidez:

*Esan beharko diogu./ Esan beharko zaio.
Debekatu egin zioten herrian bizitzea./ Debekatu egin zitzaion...
Garrantzi handiagoa eman beharko genioke.../ Garrantzi handiagoa eman beharko litzaioke...*

SINTAXIA

Berrikusketa orokorra

4.000 eta 5.000 ataletan oinarritzko sintaxia berrikustea komeni da. Horretarako ariketa jakinak egin baino zuzenketa erabiliko da. Ikasketariak ahozko eta idatzizko adierazpenetan eginiko akatsak zuzentzen ahalegin berezia egingo da arlo honetan. Ikasketarien beraien ekoizpenak erabiliko dira oinarritzko berrikuspenera egiteko.

Aditz-izena

ISri dagokion atalean aipatu da aditz-izena. Bestalde, subjuntiboarekin batera sortuko da nominalizazioa berrikusi beharra, -t(z)eko helburuzko esaldietan eta -t(z)ea nahia, desioa, eskariak egiteko esaldietan. Honez gain edozein momentutan ikasketariak nominalizazioaren kasu jakin bat edo beste ondo finkaturik ez daukala ikusten bada, hutsegite hauek zuzentzeko bitartekoa jartzea gomendatzen da. Atal honetan ISren atalean aipatutakoaz aparte bereziki landuko diren formak hauexek izango dira:

- T(Z)EAK: ... -t(z)eak hamar urteko atzerapena ekarri zuen.
- Burutua: IZANA

*Orain damu dut gaztetan latin gehiago ikasi ez izana.
Gaztetan gehiegikeria ugari egin izanaren ondorioak dira horiek.
Hori egin izanak makina bat buruhauste ekarri zizkion, gizarajoari.*

Erlatiboa

- (E)N eta Partizipioa + -TAKO/ -DAKO. Honen erabilera arrunta erraz menperatuko du ikasketariak. Erraztasun osoz erabiliko ditu erlatibozko formarik arruntenak.

—-NEKO

Baliabide erabilgarria da, -(e)N partikularen erabilera nahasgarria izanik, leku-denboratasuna berariaz azpimarratu behar den kasuetarako. Dena den, halakoetan baino ez erabiltzea gomendatzen da. Hona hemen adibide batzuk:

... gizakia ilargira heldu zeneko irudiak.
... txikiak gineneoak ere kontatzeko modukoak dira.
Aurten Franco hil zeneko 20. urteurrena bete da.

—Azalpenezko erlatiboa: ZEIN/ NON ... BAIT/ -N. Ez da sekula euskara mintzatuan erabiltzen. Hala ere, sarritan agertzen da literaturan eta testu zientifikoetan batez ere. Ikasketariak ezagutu behar du ulermen mailan bederen, baina, ekoizpenari dagokionez, behar-beharrezkoa denetan baino ez erabiltzea eta gehiegikeriarik ez egitea gomendatzen da. Hona hemen adibide bat:

Razionalismoa metodoa edo, zentzu oso zabalean, doktrina filosofikoa da, non egiaren irizpidea ez baita sentipenezkoa, adimenezkoa eta deduktiboa baizik.

Hala ere, hau bera, beste forma batean ere eman daiteke:

Razionalismoa metodoa edo, zentzu oso zabalean, doktrina filosofikoa da. Bertan, egiaren irizpidea ez da sentipenezkoa, adimenezkoa eta deduktiboa baizik.

—Erlatiboak sortzen dituen hutsegiterik arruntenak.

- Deklinabide kasua galtzen duten erlatiboak eta berauek sortzen dituzten hutsegiteak: Erdaratik zenbait erlatiboazko euskaratzerakoan arazo ugari izaten ditu ikasketariak. Honelakoak baztertu behar dira:

** Kanean hitz egin duzun mutilarekin nire etxean bizi da.*
Nire etxean bizi da zurekin kanean hizketan jardun duen mutila.
**Miren bizi den umearentzat da oparia.*
Mirenekin bizi den umearentzat da oparia.

- -LA konpletiboaren interferentzia erlatibo diferituetan:

**Badira ikasle batzuk etxerako ariketak egiten ez dituztela*

Gerundiala:-LA(RIK)

Aurreko atalean, 3.000n, landua dago eduki hau denborazko eta moduzko baliabide gisa: *Txikia nintzela, etxetik nentorrela, eskuak buruan zi-*

tuela... Oraingoan, hauen erabilera finkatu eta ahozko adierazpenetan erabiltzeko gaitasuna areagotzea komeni da, maiztasun handiz erabiltzen baitira narrazio testuetan, batez ere.

Baldintzazko -T(z)EKOTAN

Nahikoa zaila egiten zaie ikasketariei eta arriskua dago edozein baldintzen pare erabiltzeko. Argitu egin behar da, beraz, non eta nola erabili gehiegikeriak baztertuz.

Horretarako erabilera marko garbiak eskaintzea komeni da. Hona hemen batzuk:

- Xedea adierazten du: *Zerbait lortzekotan...*
- Aditza errepikatzen denean: *Esatekotan orain esan eta bestela isildu betiko.*
- Baimen baldintzatua emateko: *Sartu nahi baduzu, sartu baina isilik egotekotan,e!*

Moduzkoak

Hauek ere landuak daude baina oraindik ere ikasketariek sarri askotan nahastu egiten dituzte eta nahasketak zuzentzea komeni da. *Hau zure modukoa da./ Hau zurearen modukoa da* nahastu egiten dituzte sarritan.

* *Ikasi duzunaren moduan da./ ikasi duzunaren modukoa da.*

Ikasi duzun bezalakoa da./ Ikasi duzuna bezalakoa da.

* *Zu bezala ez dago munduan./ Zu bezalakorik ez dago munduan. (Zu la-
korik ez dago munduan/ Zure modukorik ez dago munduan) .*

Desberdintasuna adierazteko ere ikasketariek normalean * *zure desberdina* eta halako formulak erabiltzen dituzte. Atal honetan *ez bezala(koa)* formak finkatu behar dira.

Bezain eta bezala ere sarritan nahasten dituzte:

* *Zu bezalako handia*

Konparazioa

Berrikusketa osoa egin behar da eta bereziki honelako edukiak lantzea komeni da:

- Konparaketa eliptikoak: *behar/ nahi beste/ adina; espero bezain/ uste baino ...ago(a)...*

Horrek ez du behar adina lanik egiten.

Ez dugu espero adina diru gastatu.

Aurten uste baino hobeto dabil.

—ADINA/ BESTE + -KO + izen neurgaitza

*Latinerako ez dauka matematiketarako adinako erraztasunik baina...
Ez duzu horrek adinako gaitasunik duenik hain erraz aurkituko.*

-LAKO

Erabilera desberdinak landuko dira:

—-LA + -KO + izena.

Ustea, beldurra, susmoa, zurrumurrua, seinalea, aitzakia... eta hala-koekin erabiltzen da. Hala ere, honekin batera, erlatibo soilaren erabilera ere landu behar da. Adibidez:

*Txarto dagoelako susmoa dut / txarto dagoen susmoa dut.
Ez harritu horregatik, hori bizirik dagoelako seinalea da./ ... dagoen seinalea da.
Aita Saindua hil zelako zurrumurrua zabaldu zen atzo./ hil zen zurrumurrua ...*

—DELAKOA/ DIRELAKOA

Esapide eginetan erabiltzen da:

«Neumonia Atipica» delakoa oso arriskutsua omen da.

—LAKOAN

Hizkera informalean:

*Giltzak? Josuri eman nizkion, bereak zituelakoan.
Errazago irabaziko genuelakoan geunden baina ...*

3.000 atalean, gutunak lantzeko bukaerako formulazioetan, erabili izan da.

Esaterako:

Egin dizuedan eskariak behar duen harrera izango duelakoan agurtzen zaituztet...

7.4. Baliabide linguistikoak 5.000 atala

Arlo honek, edukienak alegia, ez du atal honetan aurrekoetan izan duen garrantzirik izango. Atal honetara heldu den ikasketariak eskuratua du, neurri batean, maila honetan eskatzen zaion gaitasun gramatikala. Beste era batera esanda, ezagutzen ditu HE2 mailako hizkuntz helburuak bete ahal izateko be-

har dituen gramatika arloko baliabideak. Baina, hau hala izanik ere, ikasketariak ekoizten dituen ahozko zein idatzizko testuetan, besteen artean, zuzentasun-arazoak eta jatorrizko hizkuntzak eragindako interferentziak erakusten ditu. Atal honetan edukien arloak izango duen helburua, beraz, hutsuneak bete eta ahalik eta hizkuntzarik zuzen eta egokiena ekoizteko bidea egitea izango da.

MORFOLOGIA (eta beste)	
<ul style="list-style-type: none"> — Deklinabidea <ul style="list-style-type: none"> • Berrikuseta orokorra <ul style="list-style-type: none"> – Mugatzailea erdal maileguetan – Bizidun/ bizigabeena – Herri eta leku izenak – Mugagabea – Norentzat/ norako – Norekin/ zerez – Instrumentala – Mugagabea eskatzen duten zenbait izen – -ko/ -ren – Motibatiboa, -gatik partikularen erabilpen makurra — Determinatzaileak <ul style="list-style-type: none"> • Mugatzaileak: -a/ bat • Zenbatzaile zehaztuak <ul style="list-style-type: none"> – Zatikiak – Portzentaiak — Izenordaina. <ul style="list-style-type: none"> • Galdetzaileak <ul style="list-style-type: none"> – Nor/ zein/ zer/ non/ noiz/ zenbat/... • Pertsona-izenordainak <ul style="list-style-type: none"> – Forma indartuak: neu, zeu, geu... – Norbera/ nor bere 	<ul style="list-style-type: none"> • Mugagabeak <ul style="list-style-type: none"> – Inor/ ezer – Zerbait/ norbait – Edozer/ edozein • Elkarkariak • Bihurkariak — Adberbioak <ul style="list-style-type: none"> • Leku adberbio indartuak <ul style="list-style-type: none"> – Berean/ bertan — Beste — Posposizioak — Aditz-izena. Berrikusi — Partikulak: Omen/ ei, ote — Aurrizki- atzizkiak <ul style="list-style-type: none"> • -gintza; -go(a); -keria; -kunde; -kuntza; -men/ -pen; -tasun; -kera; -keta — Hitz elkartuak — Aposizioa — Lexikoa <ul style="list-style-type: none"> • Polisemia/ zehaztasun semantikoa • Sinonimo/ antonimoak • Hponimo/ hiperonimoak

MORFOLOGIA

Deklinabidea

Ikasketariak oro har ondo erabiltzen du deklinabidea. Hala ere berrikuseta sakona egitea komeni da eta nagusiki zenbait atal eta arloren erabilera zehaztu eta, hala behar izanez gero, baita zuzendu ere.

—Izena: Mugatzailearen erorketa

• Erdal maileguetan askotan kontu handia izan behar da, mugatzailea

galtzea sarritan ematen den fenomenoa baita. Beraz, saihestu behar dira halako erabilerak:

**Pagano da.*

**Pegamento bota behar dugu ondo itsasteko.*

**Azken zentso egin dutenean.*

—Bizidun/ bizigabeen deklinabidea

Ondo bereiztu behar dira bi paradigmak:

Gurasoengandik/ etxean ikasi du.

**Ez zaitetz zakurrera hurbildu!*

—Leku-denborazkoak

Kontsonantez bukatzen diren izenen deklinabidea. Era honetako erabilerak zuzentzea komeni da:

**Trenatik, *komunan, *komunako*

**Urtarrilan, *ekainan, *urtarrilako*

Badira zenbait hitz leku-denborazko kasuetan mugagabea hartzen dutenak eta batzuetan ikasketariiek singularrean erabiltzen dituztenak. Zuzentzea komeni da, beraz, erabilera okerra.

Uretan sartu, ardotan busti, umetan, belarretan etzan, elurretara joan...

Halakoetan batzuetan singularra erabili behar izaten da baina orduan esanahi desberdina hartzen du:

Eguzkitan egonda erre egingo zara./ Eguzkian helio gasa ugaria omen da.

—Mugagabea

NORI/NOREN eta eratorrietan:

**Edozein lagunari/ *Ineseri*

Bestelakoetan:

**Zenbait liburuak*

—Geografi izenak lekuzko kasuetan

**Kanariasetan/ Kanarietan*

- Norentzat/ norako
Leku/ pertsona ondo bereiztea
- Norekin/ zerez ondo bereiztea
- Instrumentala
Instrumentala eskatzen duten zenbait aditz:

Jabetu, baliatu, ohartu, oroitu, kezkatu, arduratu...

Instrumentala/ sozietatiboa. Instrumentaltasuna adierazteko batzuetan norekin kasua erabiltzen dugu. Komeni da erabilera hau ez baztertzea. Hona hemen adibideak:

*Eskuz egin/ bi eskuekin hobeto egingo duzu.
Paperez estali/ paper harekin estal ezazu.*

—-KO/ -REN

Aurrekoetan ikusiak egon arren edutezko eta leku-denborazko genitibo-eren eremuak mugatzea komeni da, sarri askotan zail egiten baitzaizkie ikasketariei. Hauen kasuan, ahozko tradizioari erreparatu behar zaio eta bakoitzaren eremuak mugatu.

- -REN:
Jabegoa: *Hiru umeren fitxak dauzkat.*
Egiletasuna: *Liburuaren egileak argitu zigunez...*
Erreferentzia espaziala: *-REN aurrean, atzean, gainean...*
Izen abstraktoetan: *-REN kolorea, itxura, usaina, balioa*
- -KO deklinabide atzizkiaren erabilera finkatzea komeni da atal guztietan: Zenbatzailea + izena (adina, prezioa, neurria, pisua...) adierazten duten izen lagunak. Euskaltzaindiak hobetsi bezala singularreko erabilpena bultzatu behar da:

*Bi urteko haurra; hamar metroko zabalera; bost milako biletea, hiru aste-
teko egonaldia...*

Izena + izenondoa + KO + izena

Garrantzi handiko erabakia; imajinazio handiko umea...

Behar izan/ ezin izan + KO

Egin beharreko guztia; ahaztu ezinezKO hitzak.

Balio banatzailekoa

Mila pezeta eguneko eta pertsonako; 2 kilometro orduko abiadura; ehuneko hamarreko deskontua.

Gutxienezko/ gehienezko

—Motibatiboa: -GATIK

Sarri askotan ikasketariak inguruko erderen eraginez edo, neurrigabeki erabiltzen dute -gatik motibatiboa, ez dagokion hizkuntz inguramenduetan. Komeni da, beraz, -gatik honen erabilera-esparrua mugatzea. Hona hemen, arlo honetan, nahasbide bilaka daitezkeen zenbait erabilera:

**Tren batengatik zapaldua izan nintzen./ Tren batek zapaldu ninduen.*

**Zure lagunengatik jakin nuen gaixo zeundela./ ... lagun bidez jakin nuen.../ ...lagunek esanda jakin nuen.*

**Hidrokarburoak hidrogeno eta karbono molekulengatik osatuta daude./... molekularaz...*

Determinatzaileak

—Mugatzaileak: -A/ BAT

Badirudi gaur eguneko euskara mintzatuan eta euskara idatzian, lehen hain ugari agertzen ez zen *baten* erabilera ikaragarri zabaltzen ari dela. Honen aurrean bakoitzari berea ematea komeni da eta gehiegizko *bat* horren erabilera murriztea, halako kasuetan, bederen:

**Buruan txapel bat zeraman.*

**Nekazari bat beti dabil lurrarekin borrokan.*

**Unibertsitarien ehuneko handi batek beti aurkitzen du lan bat.*

—Zenbatzaileak

Zenbatzaile zehaztuak anitzetan agertuko dira eskola-testuetan grafiko, koadro sinoptiko eta honelakoetan. Komeni da, beraz, berrikustea ondoko eduki hauek:

- Frakzioak:

Erdia

Bi bosten

- Portzentaiak

Unibertsitateko ikasleen %10ek ez du begi onez ikusten ikasplanen aldaketa.

Euskal Herriko nekazarietatik, %15ek nekazal turismorako egokitu dituzte beren baserriak.

Euskal Herrian egiten den zaborraren %6 besterik ez omen da birziklatzen.

Izenordaina

—Galdetzaileak

- Beharrezkoa da nor, non, zein, zenbat... galdetzaileen deklinabidea berrikustea, bi deklinabide atzizki eskatzen duen kasuetan, nagusiki:

Zenbaterainoko, norenganako, norainoko...

—Pertsona-izenordainak

- Norbera/ nor bere. Askotan nahastu egiten ditu ikasketariak. Komeni da, beraz, bakoitzaren erabilera esparrua mugatzea.

Norberak eginda beste inork eginda baino hobeto ateratzen omen dira kontuak.

Nork bereak beteta inguratu zitzaizkion erregeri.

—Mugagabeak

Ikasketariak maizenik egiten dituzten hutsak zuzentzen ahalegindu beharra dago. Hona, zenbait adibide:

**Arratsalde osoan ez nuen inor ere ez ikusi./ Arratsalde osoan ez nuen inor ikusi.*

**Inork esan du bihar jai denik./ Ez du inork esan bihar jai denik (zentzuan).*

**Ez du ezerrez esan nahi./ Ez du ezer esan nahi.*

—Elkarkariak

Elkar-en erabilera zuzena bermatu behar da. Horretarako, **Elkar ibili dira egun osoan/ *elkar bazkaldu zuten...*, eta era honetakoak zorrotz sunez zuzendu behar dira.

Bestalde, azken garaian ugaritzen ari diren zenbait erabilera desegoki ere zaintzea komeni da:

**Elkar joango gara./ Elkarrekin joango gara.*

**Elkar bizi dira aspaldian./ Elkarrekin bizi dira aspaldian.*

—Bihurkariak

Hauen kasuan ere, arreta eskatu behar zaio ikasketariari halakoetan eror ez dadin:

*Garbitu naiz/ *Garbitu naiz burua.*

**Oso gaizki ikusi da lanak bukatzeko.*

**Gorrotatzen da.*

Honekin batera izenordain petsonal indartuak ere berrikus daitezke: neu, .../ geu,... eta abar.

Adberbioak

—Leku-adberbioak

Bereizi egin behar dira *berean* eta *bertan* eta honelakoetan kontuz ibili:

**Gaur bertatik/ gaurtik bertatik*

**Tontor bertaraino heldu ginen./ Tontorreraino bertaraino heldu ginen.*

Bestalde, *Egun berean egin genuen joan-etorria./ Egunean bertan egin genuen joan-etorria* bezalakoak ere bereizten ahalegindu beharra dago.

Beste

Beste hitza, ikasketari askorentzat nahasgarria izaten da. Izan ere, gaztelaniaz ez bezala, bi erataria erabil daiteke euskaraz. Komeni da, honenbestez, *besteren* balio zehaztua eta zehaztugabea ondo bereiztea.

**Beste gauza esan behar nizun baina ahaztu egin zait./ Beste gauza bat esan behar nizun baina ahaztu egin zait.*

**Beste egunean/ Lehengo batean/ Joan den egunean
Herriko bi liburudendetan galdetu dut eta batean, agorturik dagoela esan didate eta bestean, berriz, ez dutela sekula ere izan.*

Posposizioak

Honezkero ikasketariak zuzen erabili beharko ditu posposizioak. Hala ez bada, berrikustea komeni da. Hona hemen, orientabide gisa, anitzetan ikus daitezkeen erabilera ez zuzenak:

**Hori, guztiok artean egingo dugu./ Hori guztion artean egingo dugu.*

**Mahai hori gainean jarri zen eta.../ Mahai horren gainean jarri zen eta...*

**Armairua barruan egongo da./ Armairu barruan egongo da.*

**Gu ondoan dagoena./ Gure ondoan dagoena.*

**Testu hau arabera bilbotar gehienak.../ Testu honen arabera bilbotar gehienak...*

**Liburuaren zehar askotan irakurri ahal izan.../ Liburuan zehar irakurri ahal izan ...*

**Noiz da ekologiari buruz hitzaldia?/ Noiz da ekologiari buruzko hitzaldia?*

**Gu aparte ez da beste inor etorri./ Gutaz aparte ez da beste inor etorri.*

Partikulak (ikus modalizazioaz esandakoa egokitasuna sailean).

—Omen/ ei

Ikasketariak ez dute partikula hau erabiltzeko joerarik. Bultzatu egin behar da honen erabilera narrazioen kasuan bereziki, lekukotasuna eta agian testu naturalagoak eta sinesgarritasun handiagokoak sortzeko aukera eskaintzen duelako.

Batzuetan ikasketariak haur bezalako hutsegiteak egiten dituzte. Kontuz, bada, halakoetan:

**Badirudi etorriko omen dela.*

—Ote

Aurrekoan bezala ikasketariak ez dute haur erabiltzeko ohiturarik. Komeni da, beraz, partikula honen erabilera honelakoetan bultzatzea: galdera erretorikoetan nagusiki, eta ondoren, zerbaiten balorazioa egiterakoan, edo zalantza adierazterakoan... . Hona hemen adibide batzuk:

*Zein ote da gaur gelan azaldu zaigun gizonezko gorbataduna?
Beldur naiz ez ote dugun honetan hanka sartu.
Ez dakit ez ote den okerragoa izango.
Zalantza nago bide zuzena hartu ote dugun.*

Aditz-izena

Garrantzi handiko baliabidea dugu aditz-izena. Hori dela eta, ondo finkatzea komeni da eta zuzentasuna zorrotz zaindu. Kontuz halakoekin:

**Ez daki haur egitea.
*Beste umeak jotzea hasi da.
Etxea joatea agindu zion.

Aurrizki-Atzizkiak

Lexiko arloan garrantzi handia dute, bai zenbait hitz ezezagun ulertzeko, baita hitz berriak sortzeko orduan ere. Ikasketariak aurreko ataletan ikusiak izango ditu aurrizki eta atzizki gehienak. Atal honetan, beraz, orain arte emandako atzizkien berrikusketa zabala egingo da. Besteen artean, izen abstraktuak sortzeko erabiltzen direnei eta zientzia testuetan maiztasuna duten ihar-duera-adierazleei eskainiko zaie arreta: -kizun, -kuntza, -keta, -men, -pen, -kera...

Hitz elkartuak

Aurreko ataletan landu da hitz-elkarketa, hitzak sortzeko baliabide modura. Oraingoan, gero eta eskolagai eta zientzia-testu gehiago erabiliko dira eta hitz elkartuek garrantzi berezia hartuko dute.

Aposizioa

Aposizioa dela eta, bi dira ikasketarien arreta behar duten hutsak.

Batetik, aposizio murrizgarrien kasuan hitz-ordena zaindu behar da eta halakoak zuzendu:

**Andereño Felik esan du./ Feli andereñoak esan du.*

**Arrandegi Julenen arraina oso merke saltzen dute./ Julen arrandegian....*

Mitxelena idazle ospetsuak ere gauza bera esan zuen.

Datu hauek Bilbo hiriarri dagozkio; Gasteiz hiriarri dagozkionak, berriz, ez dira hain argiak.

Bigarren kasuan *Julenen arrandegia ...* bezalako formak oso zuzenak dira eta askotan irtenbide oso egokiak.

Beste aldetik, aposizio ez-murrizgarrien kasuan argitzea komeni da hobe dela aposizioan doan sintagmari ere kasu marka jartzea, ez jartzea baino. Honela:

Iruñean, Nafarroako hiriburuan, gero eta euskaldun gehiago dago.

Axularrek, gure idazle maisuak, ezin hobeto azaldu zuen hori guztia.

EAEko Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe guztietara, publiko(etara) nahiz pribatuetara, heltzeko aukera...

Aurrekoa horrela erabiltzea gomendatzen da eta ondoko hau, berriz baztertzea

EAEko Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe guztietara, publikoak zein pribatuak, heltzeko aukera...

Lexikoa

Ikasketariak ikasprozesu osoan zehar garatu du hitz batzuk edo beste batzuk erabiltzeko gaitasuna. Hala ere, Atal honetan arreta berezia eskaini behar zaio lexiko zehatza eta aberatsa erabiltzeari. Hau lortzeko ikasketaria saiatuko da idazlan batean hitz bera behin eta berriro ez errepikatzen eta behar duenean sinonimoak, hiperonimoak edo hiponimoak erabiltzen.

Ikasketariak zenbait aditzi (egon, egin, bota...) balio semantiko izugarri zabala ematen diete. Atal honetan, halako hitz polisemikoen ordeztasun semantiko handiagoa duten hitzak erabiltzera bultzatu behar dira ikasketariak.

Aurreko lerroetan ikusitako ordezkapen lexikalaz gain, aurreko ataletan egindako bidetik zenbait mailegutuan maiz ematen diren erabilera desegokiak zuzendu egin behar dira. Honela:

**Egoera politikA/ Egoera politikoa*

**Musika klasika/ Musika klasikoa*

**Ekonomiko egoera/ Egoera ekonomikoa*

**Erreakzio kimika/ Erreakzio kimikoa*

MORFOLOGIA: ADITZA	SINTAXIA
<ul style="list-style-type: none"> — Indikatiboaren berrikuspena <ul style="list-style-type: none"> • Komuztadura • Transitibo/ intransitibotasuna — Aspektua <ul style="list-style-type: none"> • Erabilera desberdinak bereiztea <ul style="list-style-type: none"> – Baldintzazkoetan – Burutua: etorria zen — Aditz-lokuzioak (aspektua) balio izan, falta izan... — Baldintza <ul style="list-style-type: none"> • Alegiazkoa, ez alegiazkoa • Aurrekoaren eta ondokoaren lotura • Hipotetikoa/ iraganeko geroa • Alegiazko iraganaldia; ondokoa — Ahalera/ aditz-izena <ul style="list-style-type: none"> • Ahalera hipotetikoa/ahal/ezin + baldintza hipotetikoa • Iraganeko ahalera — Subjuntiboa/ aditz-izena — Partizipioarekin osatutako perifrasiak <ul style="list-style-type: none"> • Partizipioa + -A(K) + izan/ egon • Partizipioa + -TA + izan/ egon • Partizipioa + -A(K) + ekudi/ ukan • Partizipioa + -TA + eduki/ ukan 	<ul style="list-style-type: none"> — Oinarrizko sintaxia berrikusi: <ul style="list-style-type: none"> • -LA/-NA • Zehar galdera • Denborazkoak • Konparaziozkoak — Zehar estiloa — Nominalizazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Berrikusi — Erlatibozkoa <ul style="list-style-type: none"> • Erdararen erlatiboa itzultzeko zenbait irizpide — Joskera: <ul style="list-style-type: none"> • Hitz-ordena • Galdegaia: aditza • Bestelakoak — Bezala <ul style="list-style-type: none"> • Gehiegizko erabilera — Gerundioa <ul style="list-style-type: none"> • Berrikusi <ul style="list-style-type: none"> – Partizipioa + -IK/-TA – Partizipioa + -Z – -LA • Nahasbideak gerundioaren erabileran — Ere <ul style="list-style-type: none"> • Erabilera zorroztu eta zuzendu <ul style="list-style-type: none"> – Ere bai (ahoz) – Baita ...ere – Ezta...ere

ADITZA

Indikatiboaren berrikuspena

Aditz osoa berrikustea komeni da eta erabilera zuzena zaindu. Arreta berezia eskaini beharko zaie halako alderdiei:

— Aditzaren komuztadura (pluralgileak)

**Orri batzuk eman nizun.*

—Trantsitibo/ intrantsitibotasuna

Badira zenbait aditz gazteleraren eraginez edo arazo bilakatzen zaizkienak ikasketariei. Interesgarria da, beraz, aditz jakin batzuen erregimena argitzea eta zenbait aditzek dituzten aukera desberdinak zehaztea. Adibidez:

Pasatu naiz/dut/zait/diot

Sail honetan sar daitezke: *sartu, atera, altxatu, hil, igo, hasi, amaitu, bukatu, pasatu, falta izan, gogoratu, ahaztu...*

- N-Nk erakoa: *funtzionatu, irakin, kezkatu, distiratu, aldatu* (inpertsonalean izan ezik), *jo, ukitu...*
- N-Ni-Nk erakoa: *eutsi, eragin, ekin, heldu, -ri eman/ utzi, agur egin* eta halako lokuzioak.
- Esanahiaren arabera N-NK/ N-Ni-Nk direnak: *jarraitu, itxaron, begiratu, deitu, utzi, irabazi, ulertu.*

Aspektua

—Aspektuaren erabilera zuzena zorrotz zaindu behar da. Esate baterako, onartezinak dira Atal honetan honelakoak:

**Etorriko naizenean kontatuko dizut./ Etortzen naizenean kontatuko dizut.*

**Etorriko bada agurtuko dugu./ Etortzen bada agurtuko dugu.*

**Joaten gara etxera?/ Joango gara etxera?*

—Aspektu burutua adierazteko *Partizipioa + -A(K) + izan*: *etorria zen, etorrita zegoen, entzuna genuen, entzunda geneukan...* asko erabiltzen dira forma hauek ahozko diskurtso kolokialean. Zilegi da, beraz, berauen erabilera bultzatzea.

Aditz-lokuzioak

Aditz lokuzioen kasuan (Behar izan, nahi izan...), sarritan ematen den arazoa, *izan* burutuarena galtzea izaten da. Adibidez:

**Garaiz heldu nahi nuen baina ezin dut/ garaiz heldu nahi nuen baina ezin izan dut.*

Baldintza

Maila honetan ikasketariak erraztasunez erabiliko ditu aditz hauek bai idatziz eta baita ahoz ere. Dena den, zenbait erabilera ez-zuzen zaintzea komeni da.

Hona hemen batzuk:

- Egoeraren arabera alegiazkoak eta ez-alegiatzkoak egoki ez erabiltzea.
- Edozein kasutan aurrekoa eta ondokoaren lotura ez gordetzea. Konparazio batean, ez litzateke zuzena:

**Ikasle-kopurua 35 baino haundiagokoa balitz gela bikoiztu egingo da*

- Ikasketariak sarri samar nahasten dituzte alegiazko baldintzaren orain/geroa eta iraganeko geroa. Beharrezkoa da, beraz, biak garbi bereiztea.

**Nik egingo nuen hori, baina ezin dut./ Nik egingo nuke baina...*

- Alegiazko iraganeko ondokoari dagokionez, iraganeko geroaldiaren erabilera bultzatuko da, euskara mintzatuan, bederen. Idatzian, berriz, testuaren formaltasunaren arabera, iraganeko geroaldiaren erabilera edo baldintzazko iraganarena bultzatuko dira, beti ere, iraganeko geroaldia zilegitzat emanik. Adibidez:

Motozale horrek burukoa eraman izan balu, ez zuen (zukeen) halako minik hartuko.

- Azkenik, esan beharra dago zenbait aditz trinkoren erabilera ere sustatzea komeni dela, ahozkoan batez ere: *baleki, balego...*, halakoak erraztasun handiz ekoiztu behar ditu ikasketariak.

Ahalera

3.000 atalean landu eta 4.000n finkatua behar du izan ikasketariak. Maila honetan, beraz, ikasketariak erraz erabiliko ditu oinarrizko ahalerako formak.

- Orain aldikoa: *Joan naiteke/ Guk egin dezakegu...*
- Hipotetikoa: *Baliteke... -t(z)ea*

Gerta liteke... -t(z)ea/ litekeena da... -t(z)ea
Nork ekar lezake...?

- Iraganekoa

Han egon izan bagina edozer (gauza) gerta zitekeen eta guk egoera hartan ezin genezakeen ezer egin.

Komeni da forma guztiak berrikustea eta 4.000 atalean aipatu den bitartek, ahozkorako batik bat, ahaleraren ordezkoko bestelako formak lantzea:

Ni, behar bada, joan ahal izango nintzateke./ Joaterik izango nuke./ Joan ninteke

Guk, nahita ere, ezin izango genituzke biharko azterketa guztiak zuzendu./ Ez genuke zuzentzerik izango./ Genitzake.

Gure gurasoek ezin izaten ziren eskolara egunero joan./ ez (ezin) zitezkeen/ ez zuten joaterik izaten.

Subjuntiboa

4.000 atalean adierazitakoaren bidetik landuko da. Behar bada, oraindik ere, ikasketari askori berri samarra egingo zaio eduki hau. Hori dela eta, landu egingo da atal honetan ere.

—Halakoetan erabiliko da:

Aginte perpausetan: *Egin dezagun, has gaitezen ...*

Helburuzkoetan: *Zer egin behar dut isil zaitezten? (Tzeko)*

Nahia: *Dena ondo buka zedin espero genuen baina (tzea)*

Zehar agindua: *Egin zezala gomendatu zioten baina (teko/tea)*

—Sujuntiboen -N/ -LA.

Hau da hobetsi behar dena:

- -N helburuzkoetan, nahia adierazten duten esaldietan eta aginterako 1. pertsonan
- -LA aginte perpausetako 3. pertsonan eta zehar aginduetan.

4.000 atalean esandakoaren bidetik subjuntiboarekin batera, funtzio berberak betetzeko sarritan aditz-izena erabiltzen dela azpimarratzea komeni da, ikasketariak, ikasleekin gelan dagoenean, sarriago erabiliko baititu azkenengo hauek subjuntiboazko formak baino.

Dena den, ezin ahaztu daiteke maiztasun handikoak direla, baita ahoz ere, honelakoak:

Ez dadila hor geratu e, bestela jo eta txikituko dut!

Egun ona pasa dezazuela!

Ustekaberik izan ez dezazuen esan dizuet baina...

Partizipioarekin osatutako perifrasiak

Euskara mintzatuan, erregistro kolokialean eta narrazioetan batik bat, erabilera handia duten arren, oso arrotzak egiten zaizkie ikasketariei. Beraz, ahozko hizkuntzan landu behar dira eta neurri txikiagoan idatzian.

—Partizipioa + -A(K) + izan/ egon

Zu lehendik ere Ameriketara ibilia zara.

Eskapada ederra eginak ziren.

—Partizipioa + -TA + izan/ egon

Hamaika halako ikusita nago.

—Partizipioa + -A(K) + ukan/ eduki

Nire diru apurrak bankuan sartuak dauzkat.

—Partizipioa + -TA + ukan/ eduki

Nire diru apurrak bankuan sartuta dauzkat.

SINTAXIA

Oinarrizko sintaxia berrikusi

Arlo hau, oinarrizko sintaxiarena, alegia, guztiz bereganatua izan behar du ikasketariak dagoeneko. Edozein kasutan ere, zorrotz zaindu behar ditu halako nahasteak, eman, ematen dira eta.

—-LA menderagailua erlatibotzat ematea

**Ezagutzen dut gizona Parisen bizi dela.*

—Zehar galdera gaizki egitea

**Ez daki zer egiterik.*

**Ez dauka nora joaterik.*

**Ez daki zer ordu da.*

**Non dagoen?*

—Aditzaren aspektua denborazkoetan

Askotan aditz aspektu sinpleenak ere arazo bilakatzen zaizkie ikasketarietara denborazko esaldietan, batez ere, subjuntibo kutsua duten esaldietan. Adibidez:

**Hurrengo atala irakurriko dugunean jakingo dugu nor den hiltzailea./ ... irakurtzen dugunean.*

**Etxera heldu naizenean esango diot./ ...heltzen naizenean.*

—Konparaziozkoak

- Arlo honetan ere izaten da zer zuzendua. Esaterako:

**Zuk baino diruA gehiago daukat/ zuk baino diru gehiago daukat.*

**Jonek ni_ baino gehiago daki.*

- Izen neurgaitzekin -KO ez erabiltzea:

**Aurten ez du iaz adina interes erakusten./ Aurten ez du iaz adinako interesik erakusten.*

- Bezain/ bezala nahastea:

**Zu bezalako handia da.*

Zehar estiloa

Etengabe lantzea komeni da, ezinbesteko baliabidea dugu eta, komunikazio-egoera informaletan entzun/ esandako hitzak berriro kontatzeko. Atal honetan ez da nahikoa izango zehar estiloa zuzentasunez erabiltzea. Ikasketarietiek ekoiztuko duten diskurtsoa jatorrizko hiztunenetik gertu egongo da, jarri, eta naturaltasunean: etenak, errepikapenak, betegarriak, makuluak...

Bestalde ikasketariak askotan egin beharko du paperetik ahozkorako bidea (prentsan, artikulatu batean, aktetan... jasotakoa adierazteko) eta alderantzizkoa (akta jaso, agiriak egin...). Horregatik, hain zuzen ere, zehar estilotik zuzenera eta alderantzizko bidea erraz egiteko gaitasuna erakutsi behar du ikasketariak.

Nominalizazioa: aditz-izena

Esan beharrik ez dago aditz-izena baliabide handiko tresna dugula. Ikasketariak aditz-izenaren garrantziaren jabe izan behar du eta malgutasun handiz erabili behar du, bai idatziz, baita ahoz ere. Ahozkoan ahaleraren eta subjuntiboaren ordezkotzat ezin hobea dela ikusarazi behar zaio ikasketariari.

Erlatiboa

Baliabide ezinbestekoa dugu definizioak egiteko eta zenbait parafrasi egiteko ere. Komeni da, beraz, definizioak ondo egiten ahalegintzea eta, bide batez, erlatiboaren erabilera ondo finkatzea. Adibidez:

Biologia izaki bizidunen egituraz diharduen zientzia dugu.

Honetaz aparte, ikasketarietiek apunteak egiteko eta bestelako egoeretan ere itzulpena jo behar izaten dute sarri askotan. Itzulpengintzan jardun behar izaten dutenean buruhauste ugari izaten dituzte erlatiboetako zenbait periphrasi euskaratu behar izaten dituztenean. Izan ere, Gaztelakerak maiztasun handiagoz erabiltzen du erlatiboa euskarak baino eta, hau dela eta, zenbait erlatibo euskaratzeko orduan irtenbide jakinak eskaini behar zaizkie ikasketariari.

Hona hemen adibide batzuk:

Hau da honekin azpimarratu nahi duguna./ Honekin hauxe azpimarratu nahi dugu
Hori izan zen istripua izan zuela esan zidana./ Horrexek esan zidan istripua izan zuela.

Bi kasuetan bigarren aukera hobesten da.

Adibide hauek erakusten dutenez, ikasketariei esan behar zaie euskarak gutxiago erabiltzen duela erlatiboa gaztelerak baino. Beraz, beste zenbait baliabide erabil ditzakete. Esaterako:

Presidentea, egun hauetan Parisen dagoena...
Presidentea, zeina egun hauetan Parisen baitago...

Biak erabilgarriak izan daitezke, baina dudarik gabe askoz ere jatorragoa dugu ondoko hau:

Presidentea, Parisera egiten ari den bisitan...

Erlatibo ez murrizgarriek NON, ZEINEN, ZEINEKIN ... -N/ BAIT eta hauek bezalako irtenbideez gain bestelako itzulpen jatorragoak ere izan ditzakete. Adibidez:

Bekadun hauek, zeinen tutoreek beren eginkizunari benetan ekin baitiote, nabarmen egin dute aurrera./ Bekadun hauek, tutoreek beren eginkizunari benetan ekin diote eta, nabarmen egin dute aurrera.
On Joxe Miel Barandiaran, zein munduko antropologorik onenatarikoa izan baita, Ataunen jaio zen./ On Jose Miel Barandiaran, munduko antropologorik onenatarikoa bera, Ataunen jaio zen.

Hauetan ere ez dago dudarik bigarrena dugula estrainekoa baino askoz ere zuzenagoa. Gisa honetakoetan, beraz, gaztelaniazko formak ahaztu eta esan nahi dutena argi adierazten erakutsi behar zaie ikasketariei.

Joskera

Ondo jositako testuak, askoz ulerterrazagoak izaten dira bestelakoak baino. Testuen komunikagaitasuna areagotzeko, besteak beste, honelakoei erreparatu beharko dio ikasketariak.

- Hitz-ordena. Hau zaintzea komeni da eta ordena traketsak baztertzea.
- Arlo honetan galdegaiaren arazoa ukitzea ondo etorriko da eta bereziki aditza galdegai denean erabili behar izaten den *Partizipioa + EGIN* perifrasi lantzea, normalean ikasketariei erabiltzea kosta egiten zaie eta.

Irabazi egin zuen eta ez galdu.

—Honetaz gain hitz-ordenan egiten diren oinarrizko zenbait huts zuzentzea komeni da. Hona hemen batzuk:

Beste herriko gizon bat./ Herriko beste gizon bat-en ordeaz.

Bestalde, erraz irakurtzeko moduko testuak sortzeko zenbait bitarteko lantzea komeni da. Denok dakigu, euskarak, izatez, joera handia duela informazioaren karga atzealdera eramateko. Hau gertatzen da bai IS mailan baita esaldi mailan ere. Honela, informazioaren pisua atzeko aldean agertzen dela, askotan esaldiak eta paragrafoak, zuzenak bai, baina ulertezinak suertatzen zaizkigu. Hau konpontzeko, atzera karga arintzeko, alegia, aholku batzuk ematea komeni da.

Hona hemen bidea:

- Hitzak soil deklinatu. Esaterako, errazago ulertuko da: *hiztegi hau erabiliko dugu pasarte hori itzultzeko/ hiztegi honetaz baliatuko gara ... baino .*
- Esaldi laburrak egin eta ez luzatu gehiegi.
- Aditza aurreratu. Esaterako askoz ulergarriagoa dugu lehenengo pasarte bigarrena baino:

Zuzendariak esan du administrazioko langileen prestakuntzako ikastaroak urriaren 3an aurkeztuko direla. Ikastaro horiek hurrengo hilabeteetan izango dira eta, lehendabiziko aldiz, foru aldundiarekin elkarlanean antolatu dira.

Zuzendariak hurrengo hilabeteetan eta, lehendabiziko aldiz, foru aldundiarekin elkarlanean antolatuko diren administrazioko langileen prestakuntzako ikastaroak urriaren 3an aurkeztuko direla esan du.

Bezala

Askotan alferrik erabiltzen da. Komeni da, beraz, erabilera mugatzea eta bakoitzari berea ematea. Hona hemen adibide batzuk:

- *Neskame bezala joan da./ Neskame joan da.*
- *Pello alkate bezala aukeratu dute/ Alkate aukeratu dute.*
- *Bere anaia bezala nauka baina.../ Anaiatzat nauka.*
- *Ate bezala jarri dugu ohol.../ Ate gisa jarri dugu ohol...*

Bestalde, maila honetan dagoeneko finkatua egon behar bazuen ere, oraindik ere arazo bilakatzen zaio zenbait ikasketariri. Honelako erabilerak zorrotz zuzentzea komeni da:

- *Nola da zure etxea?*
- *Hori nirea bezala da*

Gerundioa

Euskaraz, berez, ez dago inguruko erdaren gerundioaren parekorik; honen ordez, euskarak beste zenbait baliabide erabiltzen ditu. Hala ere, batzuetan, inguruko hizkuntzen eraginez edo baliabideok ez dira behar bezala erabiltzen. Komeni da beraz hizkuntz baliabiderik ohikoenak berrikusi eta erabilera desegokiak saihestea. Hona hemen adibide batzuk:

—Bidea, bitartekoa adierazten duena:

Hitz eginez/ eginda dena konpontzen da.

—Modua adierazteko (askotan aurrekotasuna adierazten du):

*Orain arte esandakoa laburbilduz esan daiteke...
Orain arte esandakoa laburbilduta esan daiteke...
Orain arte esandakoa laburbildu eta esan daiteke...*

—Kausa-ondorioa adierazteko:

Etxera deitu dizut, han zeundela pentsatuz/ pentsatuta.

Hau oso jatorra izango litzateke beste era honetan ere:

Etxera deitu dizut, han zeundela pentsatu baitut.

—Azalpenezkoak:

Ohar bat utzi dit zain ez geratzeko esanez.

—Modua/ denbora. Honek erabilera oso zabaldua du eta ondo menperatzea komeni da:

*Zer esan ez zekiela geratu zen.
Gu handik etxera gentozela gertatu zen ezbeharra.*

Oinarrizko erabilera hauek berrikusi eta arretaz landu behar dira, askotan oso modu desegokian erabiltzen baitira. Hona hemen zenbait adibide.

—Geroaldiko gerundioa

Bigaren mailako irakasleak bildu ziren, ondoko hau erabakiz (erabaki zutelarik)./ Bigarren mailako irakasleak elkartu ziren eta ondoko hau erabaki zuten.

**AHV gaur hasiko da instalazio guztiak ixten, 100 urteko historia bukatuz./ AHV gaur hasiko da instalazio guztiak ixten, eta horrenbestez 100 urteko historia bukatuko da.*

—Helburuzko gerundioa

**Gutun hau idazten dizut zuen ikastaroei buruzko informazioa eskertuz eta ondoko lagunak zerrendan onartzeko eskatuz.*

Gutun hau idazten dizut ikastaroei buruzko informazioa eskertzeko eta ondoko lagunak zerrendan onar ditzazun eskatzeko.

—Adjetibozko gerundioa

**Eskolako zuzendaritzak ohar bat egin du liburutegiaren ordutegia zehaztuz./ Eskolako zuzendaritzak liburutegiaren ordutegia zehazten duen oharra egin du.*

**Atzo petrolio-itsasuntzia hondoratu zen Mediterraneoan, zortziehun tonelada petrolio eramanez./ Atzo zortziehun tona petrolio zeraman petrolio-itsasuntzia hondoratu zen Mediterraneoan.*

Ere

Ere-ren erabilera ere arazo bilakatzen da sarritan. Horren aurrean erabilerara zaintzea komeni da eta halakoak ekidin:

**Mikel hemen dago ere.*

**Ere bai esan beharra dago.*

**Mendira joan ginen eta ere bai hondartzara.*

**Nekane eta Maitane ere bai faltatu dira gaur.*

**Beste alderdi bat, baita ere aipatu behar da.*

**Beraien artean badago ere beste kantari bat.*

**Esan behar da ere...*

8. HIZTEGIA

8.1. Gizarte-zientziak

A		
abelazkuntza	aiton seme	aristokrazia
abelbide	aizto	arkitrabe
abelgorri	akueduktu	arku-formako
abelzaintza	aldarrikapen	arku zorrotz
aberri	aldarrikatu	armarri
abzisa-ardatz	alde zahar	arnasbide
adin nagusiko	aldendu	aro
adin-nagusitasun	aldundi	Aro Garaikide
adin-piramide	almadia	Aro Moderno
adin-talde	almohade	arragoa
aginpide	alondegi	arrain baltsa
agintaritza	altitude	arrantza
agintaritza erlijiosoa	altuerliebe	arrantza-baliabide
agintaritza militarra	alturako arrantza	arraste arrantza
agintaritza zibila	altxamendu	artilleria
agora	anfiteatro	artisautza
agorraldi	animali jatorriko	Artizar
agorrola	Antzin Aro	artxipelago
agotak	antzinate	artzantza
agramondar eta beaumontar	arbaso	asentamendu
ahaide nagusi	ardatz	astro
aitzindari	ardatz-etxe	aterpe
aitzindaritza	ardatz kronologiko	aurkikuntza
aintzira	argiteri-sistema	auto horniketa
aire zabal	Argien Mende	autonomia elkarte/erkidego
	argi-urte	azalera .Km ² tan
	argizari	azienda

azienda zuri	bereizkeria	demografia
azienda xehe	berezko hazkunde	depresio
azienda gorri	beroaalde	diagrama
azpiegitura	beroaldi	dohaintza
azpigarapen	berotegi-efektu	dokumentazio-zentro
aztarnategi	berpizkunde	dolare
	berpiztu	
	bidai untzi	
	bide-sare	E
B	bigarren sektore	
	bilakaera	EB: Europar batasuna
babesleku	bilketa	ebakidura
babes-lerro	biltzaile	ebakortz
babes-sare	biltzar	erdigune
badia	bizi-itxaropen	EEE: Europako Ekonomia
bake-itun	bizi-maila	Elkartea
baliagarritasun	bizitza-mota	Egipto Behera
banaketa-sare	biztanle	Egipto Garai
bandokide	biztanleria aktibo	egoitza
baraila	biztanleria inaktibo	egoitza-zona
barne-antolaketa	biztanleriaren dentsitatea	egonkor/sedentario
barne-migrazio	biztanle-kopuru	egoskari
barne-ur	biztanleria	eguraldi-iragarpen
barra-diagrama	bokale	egutera
basailutza	boli	eguzki sistema
basamortu	botere banaketa	eguzkiorratz
basamortutze	botere betearazle	ehizaldia
basilika	botere judiziale	ehiztari
baso-hosto erorkor	botere legegile	ehule
basogintza	bozketa orokor	ehun
baso-soiltze	brontze-aro	ehungintza
bateratze	burdin-aro	ekaitz
batezbeste(ko)	burdinola	ekialde
baxuerliebe	burges	Ekialde Ertain
baxurako arrantza	buruaski	Ekialde Hurbil
behaketa	burutu	Ekialde Urrun
behatoki	buztingintza	ekialde/ sortalde
Behe Paleolito		ekimen (-ren)
beheko ibilgu		ekoizle
behe-laino		ekologia
beirate		ekonomia egonkor
belaki	C	ekuatore
belardi	Carlos I.a	elikadura
belaunaldi	Cro-Magnon gizaki	elikagai
belaze		elikagai-azoka
benefizio-lur		elika-kate
benetako hazkunde	D	Eliz jende erregeladun
Berant Erdi Aro		elizate/ elizaurre
berbere	debet utzi	elizkizun
berdintasun juridiko	delta	

emari	errepublika	G
emigratu	errepublika buru	
enbata	erresuma	gainbehera
energi iturri	errola	galsoro
energi kontsumoa	erromanizazio	galtzada
energi ordezkagarri	erromatar	ganadutza
enperadore	erromes	ganboatar
enpresari-klase	erromesgune	garabi
epelalde	ertz-ganga	garagar
erabilera eta kontsumorako industria	eskala	garapen
eragile	esklabu	garapen bideko estatuak
eragin	esklabutza	garapenaldi
eragin-eremu	eskolatze-maila	garatu
eraginkor	eskualde	garatutako herri
eraikin	eskualde natural	garezur
eraikitzaile	eskulangintza	garraiabide
erakarpen-zentro	eskultura	gatazka
eraketa-prozesu	Esne-Bide	gatzaga
erakunde	Espainiako Indepentzi ge- rra	gatzelu
erakunde ez-gobernatar	Espainiako ondoretza-ge- rra	geografia ekonomiko
eraldaketa	esparru	geografia politiko
eraldatu	esportazio	gerra zibil
eraso	estamentuzko gizarte	gerrate
erbeste	estatu	gerra-gurdi blindatu
Erdi Aro	estolda	gerrauntzi
erdigune	estuario	geruza
erdiko ibilgu	etekin	geruza babesle
Erdiko Paleolito	etorkin	ginezeo
erdi-puntako arku	etxekotu	Gipuzkoako hiriburu
eremu	etzauntza	giro/ aro
erlazio	euri-jasa	giza arazo
erle-hazkuntza	ezarpena	giza arraza
erliebe	ezaugarri fisiko	giza asentamendu
erliebe-profil	ezko	giza bizileku
erlijio-sen		giza ezaugarri
ermandade		giza geografia
erorialdi		giza iharduera
erpin	F	giza indar
errai		giza kultura
erregai	faktore eragile	gizarte produzitzaile
Errege katoliko	faraoi	gizarte-antolaketa
errege-bide	fauna	gizarte-klase
errege-aulki	Felipe II.a	gizateria
errege-sari	feniziar	glaziazio
erregio	ferra-arku	glaziazioarte
erreinu	foro	gobernu
Errenazimentu	foru-hauste	Goi Paleolito
